Es bien cierto que aunque este informe preceptivo fuera desfavorable y obstativo, el «anteproyecto de ley» podría continuar su iter procedimental hasta su elevación por el Consejero o Consejera competente a Consejo de Gobierno, el cual es libérrimo en su decisión de aprobación o no según venimos exponiendo a lo largo de este informe.

Ahora bien, cabe reiterase la ya esencial pregunta que pretende dar respuesta ente informe: ¿es precisa su nueva emisión de informe OCE en relación con un «proyecto de ley» ya aprobado por Consejo de Gobierno e independientemente de si este tomó el acuerdo de su remisión al Parlamento o no? ¿podría bastar con el informe OCE emitido previamente incluso aunque, remitido al Parlamento, el expediente parlamentario hubiera caducado?

La normativa que regula este control económico normativo no establece de forma específica sobre la necesidad de nuevo pronunciamiento. Solo hace referencia en el artículo 27.1 in fine de la LCEyC, a los supuestos de proyectos normativos en que deba dictaminar la COJUA y, toda vez que esta es la última en pronunciarse, «… *con anterioridad a su aprobación, deberán comunicarse a la Oficina de Control Económico las modificaciones que se introduzcan en los anteproyectos de ley y proyectos de disposiciones normativas como consecuencia de las sugerencias y propuestas del dictamen de dicho órgano consultivo.».*

Es decir, sólo «deberá comunicarse», sin más trámites, la modificación introducida. No se debe formalizar un nuevo dictamen, y ello con independencia que el Consejero competente en materia de Hacienda deba conocer de estas modificaciones por vía interna departamento y haga valer sus consideraciones en el Consejo de Gobierno.

Consecuentemente, y teniendo en cuenta las trascendentes repercusiones que cualquier normativa puede tener en la economía, quien esto informa cree que se debe ser consecuente con lo expuesto en los párrafos precedentes de este apartado, de forma tal que (i) si la COJUA no considera procedente pronunciarse sobre el reenvío de un proyecto de ley ya aprobado por Consejo de Gobierno al Parlamento, tampoco parece procedente que lo haga la OCE, y (ii) caso de que la COJUA decidiera que ha de pronunciarse sobre ese proyectos de ley, tampoco parece procedente que se pronuncie la OCE, sin perjuicio de que le sea comunicado el dictamen o parecer de ésta a los efectos legales oportunos, así como las modificaciones que en su caso se introdujeran.

Todo ello que, de conformidad con lo dispuesto en el art. 41.2 del Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Ley14/1994, exista un deber de remisión del anteproyecto de ley a la OCE, a los efectos de su conocimiento del trámite y la valoración de la existencia o ausencia de contenido económico.

5. LA DISTINCIÓN ENTRE ANTEPROYECTOS Y PROYECTOS DE LEY Y EL ACTO DE REMISIÓN A LA CÁMARA

Conforme a nuestra LG, es atribución de los Consejeros o Consejeras la presentación al Gobierno de anteproyectos que se deberán «*proponer para su aprobación por el Gobierno* [como] *Proyectos de Ley*» (artículo 26.8 LG en relación con el 55 LG). Los *ant*eproyectos de ley *«se someterán a la toma en consideración del Consejo de Gobierno, que decidirá sobre su aprobación final en la misma sesión, o bien establecerá los criterios que hayan de tenerse en cuenta en su redacción final y las actuaciones que, en su caso, hayan de seguirse en su tramitación ulterior hasta dicha aprobación»* (artículo 13 LPEDG). Por su parte, corresponde el Gobierno *«aprobar los Proyectos de Ley para su remisión al Parlamento o determinar su retirada, en las condiciones que establezca el Reglamento de la Cámara»* (artículo 18.a LG).

En efecto, tanto la especial consideración de los anteproyectos de ley en comparación con la tramitación de las iniciativas reglamentarias, como la preceptividad de que sean tomados en consideración por el Consejo de Gobierno es un plus de especialidad en la tramitación que reconoce la propia LPEDG al incluir el artículo 13 dentro de su Capítulo III, de «Dispos*iciones Especiales*». Y ello porque, tal y como refiere en su Exposición de Motivos: «*Dada la especial relevancia de las leyes, se ha previsto con respecto a ellas un trámite específico de toma en consideración por el Consejo de Gobierno de los anteproyectos de ley. Su finalidad es que el órgano que ha de ejercer la iniciativa legislativa asuma y oriente la planificación ulterior del procedimiento de elaboración a la vista de un texto ya articulado y sin perjuicio de las modificaciones que resulten de los trámites de audiencia, consulta e informe posteriores».*

En este punto cabe preguntarse de nuevo cuál es la diferencia jurídica entre *«anteproyecto de ley»* objeto de tramitación administrativa y aprobado o no como *«proyecto de ley»,* por un lado, y el sustancial «*proyecto de ley*» que se remite al Parlamento, por otro. De entrada, debemos aclarar que no resulta esencialmente relevante para el presente informe la distinción nominal que de habitual se hace entre «*anteproyectos»* y «*proyectos»* –en los artículos de nuestra LG arriba citados parece extraerse que en el Ordenamiento de la CAE llama «*anteproyecto*» a los textos elaborados por los departamentos, que son presentados al Gobierno como propuestas para su adopción como «*proyectos de ley*», convirtiéndose en tales en el momento en que cuentan con la aprobación de dicho Órgano–. Sí resulta más relevante y sustancial, sin embargo, la distinción entre el «*texto*» en su fase de elaboración administrativa hasta su culminación en la aprobación por el Consejo de Gobierno y el «*documento objeto de ulterior remisión al Parlamento*», con la consiguiente y definitiva conversión en objeto de tramitación parlamentaria, en ejercicio de la potestad de iniciativa legislativa del Ejecutivo.

A este respecto, existe abundante documentación doctrinal, pero en la actualidad –y a salvo de exegesis más doctas– resulta bastante esclarecedor lo dispuesto en el artículo 127 LPACAP, que bajo el epígrafe «*Iniciativa legislativa y potestad para dictar normas con rango de ley*» dice:

> *«El Gobierno de la Nación ejercerá la iniciativa legislativa prevista en la Constitución mediante la elaboración y aprobación de los anteproyectos de Ley y la ulterior remisión de los proyectos de ley a las Cortes Generales.*

La iniciativa legislativa se ejercerá por los órganos de gobierno de las Comunidades Autónomas en los términos establecidos por la Constitución y sus respectivos Estatutos de Autonomía. (...)»

Aunque la primera parte de este artículo puede considerarse de los preceptos que prevén su aplicación exclusiva en el ámbito de la Administración General del Estado (por lo que no sería de aplicación a la CAV en los términos de la Disposición final primera LPACAP), no resulta contradictorio en ese punto con nuestra LG. Es decir, los Órganos de gobierno ejercen en dos fases la iniciativa legislativa que, en el presente caso, le confieren al Gobierno Vasco los artículos 16 y 18.a) LG: una primera e interna «*mediante la elaboración y aprobación de los anteproyectos de Ley»,* y otra segunda y posterior con «*la ulterior remisión de los proyectos de ley*» al Parlamento Vasco.

Estas dos fases –y el producto resultante de sus tramitaciones– tienen, sin lugar a dudas, su trascendencia, pues reflejan la dicotomía del actuar del Ejecutivo en su doble faceta, pues por un lado es el órgano de dirección política y, por otro, es el órgano que culmina la estructura administrativa pública.

Así, se pude considerar que un «*anteproyecto de Ley*» es fruto de una actividad interna administrativa, con notables criterios de discrecionalidad pero sometida a programación (planificación normativa: art. 132 LPACAP) y un especifico procedimiento (LPEDG), cuya ausencia puede ocasionar vicios de nulidad –incluso su impugnación en vía jurisdiccional–, y cuya aprobación por Consejo de Gobierno (y transformación en «proyecto de ley» en la terminología de nuestra LG) le da ya un carácter acto jurídico final –art. 13 LPEDG–, que bien pudiera concluir su tramitación y efectos en ese momento.

Naturalmente, la finalidad última de los «*anteproyectos de Ley*», va más allá de su simple aprobación o conclusión del *iter* procedimental regulado en la LPEDG. Es decir, trasciende más allá de su aprobación y lánguida residencia como «*proyecto de ley aprobado*» en los servicios administrativos de Consejo de Gobierno (o de su Secretaría). Su pretensión es trasformar el ordenamiento jurídico en un aspecto determinado –el objeto y finalidad del anteproyecto de ley–, y ello en base a un programa de Gobierno definido en función de las demandas reales de la sociedad y de la ciudadanía a la que sirve.

A esta finalidad novadora contribuye la remisión al Parlamento del «*proyecto de ley*», acto que se enmarca dentro de los denominados «*actos políticos*» cuya potestad no está reglada actualmente por norma alguna de Derecho Administrativo. Y ello, porque los preceptos referidos a cómo y junto a qué documentación ha de remitirse el proyecto al Parlamento están tan en la frontera de ambos mundos que prácticamente se pueden considerar como de Derecho parlamentario (artículo 57 LG como correlativo del artículo 133 del Reglamento del Parlamento, artículo 58 LG como regulación del propio procedimiento parlamentario).

En este sentido el acto de remisión es un acto que concede un *plus* que se añade al ya de por sí ya perfecto del «*proyecto de ley*» aprobado por el Gobierno, con una finalidad superior cual es el dar contenido al programa legislativo contenido en el Programa de Gobierno en ejercicio de la potestad de iniciativa legislativa que el ordenamiento jurídico le reconoce.

La naturaleza «*política*» de este *«acuerdo de remisión»* del Consejo de Gobierno de un *«proyecto de ley»* al Parlamento, se halla refrendada por la jurisprudencia del Tribunal Constitucional que, entre otras, en su Sentencia de 15 de marzo de 1990 (RTC 1990, 45), cuyo ponente fue el Excmo. Sr. LEGUINA VILLA, manifiesta:

«… no toda actuación del gobierno, cuyas funciones se enuncian en el artículo 97 del Texto Constitucional, está sujeta al Derecho administrativo. Es indudable, por ejemplo, que no lo está, en general, la que se refiere a las relaciones con otros órganos constitucionales, como la decisión de enviar a las Cortes un proyecto de ley u otros semejantes, a través de las cuales el Gobierno cumple también la función de dirección política que le atribuye el mencionado artículo 97 CE. A este género de actuaciones del Gobierno, diferentes de la actuación administrativa sometida a control judicial, pertenecen las decisiones que otorgan prioridad a una u otras parcelas de la acción que le corresponde, salvo que tal prioridad resulte obligada en ejecución de lo dispuesto por las leyes».

En este mismo sentido se ha manifestado el Tribunal Supremo en su jurisprudencia, que aunque centrada fundamentalmente en los supuestos de relaciones entre los poderes del Estado, ha dictado pronunciamientos referidos a supuestos de denegación de la solicitud de ejercicio de la iniciativa legislativa o el ejercicio de ésta (SSTS 13 marzo 1990 [RJ 1990, 1938]; 25 octubre 1990 [RJ 1990, 7972]; y 10 diciembre 1991 [RJ 1991, 9254]).

De ello podemos obtener ya algunas conclusiones:

I. La tramitación de los anteproyectos de Ley no se ve, en principio, afectada por la caducidad de los procedimientos parlamentarios fruto de la disolución del Parlamento. En la medida de lo posible, y sin perjudicar a su finalidad material, debe entenderse que los trámites efectuados con anterioridad conservan plenamente su valor, sin perjuicio de que ello deba ser siempre objeto de valoración por el órgano al que en cada caso corresponde el impulso del procedimiento y teniendo en cuenta, además, la especial consideración flexible y antiformalista que el procedimiento tiene en esos casos.

II. Los *«anteproyectos de ley»* presentados al Consejo de Gobierno y aprobados por este como «*proyectos de ley*», independientemente de su remisión o no al Parlamento para continuar su tramitación en sede parlamentaria, son actos administrativos válidos (aunque no eficaces en la innovación del ordenamiento jurídico) y quedan residenciados en dicho Consejo de Gobierno, sin fecha de caducidad alguna, ya que suponen el fin del *iter* procedimental previsto en la LPEDG.

III. La toma en consideración y aprobación final del *«anteproyecto de ley»* por el Consejo de Gobierno puede ser anterior o simultánea en el tiempo a la decisión de su remisión al Parlamento como *«proyectos de ley»*.

IV. Una vez aprobado por Consejo de Gobierno un *«proyecto de ley»*, la decisión de su remisión a Parlamento excede de la función administrativa de éste, debiendo ser considerado como un *«acto político»*, y por lo tanto no sujeto a mandato normativo alguno sino, más bien, a criterios de oportunidad, sin perjuicio de las normas que especifican la documentación que debe acompañar esa remisión y que determinarán, en todo caso, su admisión o no por la mesa de la Cámara.

6. SITUACIÓN ADMINISTRATIVA DE LOS «*PROYECTOS DE LEY*» REMITIDOS AL PARLAMENTO TRAS SU DISOLUCIÓN.

Ya se ha comentado anteriormente que tras la disolución del Parlamento Vasco o expirado su mandato, caducarán en cuanto a su expediente parlamentario todos los asuntos en tramitación, y entre estos asuntos los *«proyectos de ley»* remitidos antes de su disolución.

Entonces, cabe preguntarse en qué situación quedan, desde el punto de vista del Derecho administrativo, los *«proyectos de ley»* aprobados en Consejo de Gobierno y que posteriormente fueron remitidos como iniciativas legislativas al Parlamento, una vez que este es disuelto.

A juicio de quien esto informa tales *«proyectos de ley»* ya aprobados por Consejo de Gobierno cumplen, también después de la disolución del Parlamento, con la finalidad para la que se han previsto en la fase, llamémosla administrativa. Esto es, y en los términos expuestos en la Exposición de Motivos de la LPEDG, prever el contenido tanto de forma como de fondo de una previsible y concreta iniciativa legislativa mediante el método de:

> *«...aplicar a la redacción de las leyes en el seno del ejecutivo la misma metodología que a las disposiciones reglamentarias. De ese modo se contribuye muy positivamente a facilitar la labor del titular de la potestad legislativa, pues se le presentan para su discusión y decisión unos proyectos mejor fundados y articulados, con una técnica jurídica más depurada y apropiada para alcanzar los objetivos que se propone. Sobre esa base más precisa y segura corresponde a la Cámara parlamentaria su enmienda y aprobación.»*

La razón de ello es la decisión de iniciar la elaboración de las normas, tanto en su fase administrativa como en la puesta en marcha de su tramitación parlamentaria mediante la remisión al Parlamento, *"… no se concibe como una mera formalidad, sino como un acto de gran trascendencia jurídica y política que ha de basarse en una mínima reflexión sobre la necesidad y viabilidad de aquéllas. Por eso, se exige que tenga en cuenta los condicionamientos de toda clase (estudios, informes, audiencias, consultas, negociaciones, etc.) que puedan incidir en la fijación de su contenido, y una estimación del coste y eficacia de su puesta en vigor no sólo en relación con las Administraciones públicas, sino, también, para los ciudadanos y la economía en general»* (Exposición de Motivos de la LPEDG).

Ahora bien, y es aquí donde entra en valor la alta dirección política de la que es titular el Consejo de Gobierno, ¿puede asumirse por el Consejo de Gobierno un *«anteproyecto de ley»* tramitado o incluso un «proyecto de ley» ya aprobado anteriormente y remitirlo de nuevo al Parlamento como *«proyecto de ley»?* ¿Puede hacerlo, incluso cuando dicho proyecto de Ley hubiera sido remitido ya previamente al Parlamento?

Según venimos exponiendo, independientemente de su "*gran trascendencia",* en términos literales de la LPEDG, la decisión de asumir como propio un proyecto anterior y de decidir su remisión o no al nuevo Parlamento, reafirmándolo como iniciativa legislativa necesaria y oportuna –y por lo tanto vigente– conforme al Programa de Gobierno surgido de ese nuevo Parlamento, es **una decisión eminentemente política**.

Cierto es que la remisión al Parlamento de cualquier proyecto de ley deberá acompañarse siempre, a fin de que no haya dudas respecto a la admisión del mismo por la Mesa de la Cámara, de los antecedentes y documentos exigidos por los artículos 57 LG y 133 del Reglamento del Parlamento. Pero a partir de ahí, es también una decisión eminentemente política la de asumir ese proyecto y esa tramitación administrativa llevada a cabo con anterioridad. Decisión de carácter político adoptada por el nuevo Gobierno, todo más cuando en su faceta de dirección política y superior de la misma Administración que los adoptó originalmente –Administración que actúa siempre con personalidad única a pesar del cambio de Gobierno–, que conlleva el afirmar la suficiencia, actualidad y vigencia de lo ya tramitado en la fase administrativa. Es decir, supuesta la validez jurídica de los actos de tramitación efectuados, tales actos no se han visto afectados por el cambio de Gobierno; aspecto diferente y diferenciado del acuerdo de Consejo de Gobierno –y no otro– de remisión al Parlamento en el ejercicio de la

potestad de iniciativa legislativa, y que habrá de hacerse desde criterios materiales y de estricta oportunidad y conveniencia.

Por tanto, en opinión de quien esto suscribe, la respuesta a la cuestión planteada a esta Dirección es afirmativa toda vez que se constate que tal *«proyecto de ley»* se adecue a las previsión política del nuevo Consejo de Gobierno a realizar durante su mandato, que siga siendo precisa su implementación en el ordenamiento jurídico y que los elementos esenciales del texto del *«proyecto de ley»* no se hayan visto afectados por normativa surgida con posterioridad a su aprobación. E incluso la importancia de una eventual modificación sobrevenida del ordenamiento que afectara al proyecto debe ser sopesado de una forma relativa, puesto que el *«proyecto de ley*», aún después de ser remitido a la cámara transformándose el procedimiento en parlamentario, ha de ser sometido a su tramitación en aquélla sede, durante al cuál, y previo a su aprobación final y convertirse en Ley, puede ser sujeto de enmienda por la Cámara de forma que también en ese momento se podrán realizar los ajustes que resulten pertinentes.

7. CONCLUSIÓN

A modo de resumen: el actual y vigente Consejo de Gobierno, puede en el ejercicio de la potestad de iniciativa legislativa que el reconocen los artículos 16 y 18.a) de la LG acordar la aprobación y remisión al Parlamento de un *«proyecto de ley»* aprobado ya con anterioridad, previa elevación a él por el o la Consejera competente (o por varios si fueran varios los competentes) de la correspondiente propuesta.

Esta elevación al Consejo de Gobierno por uno o varios de sus miembros ha de tener por finalidad, además de reflejar la decisión formal de pertinencia y propuesta recogida en el art. 26.8 LG, la de aseverar tanto la vigencia de la viabilidad normativa (es decir, que no se ha visto afectado por normas aprobadas con posterioridad a su anterior remisión) como la vigencia de los trámites anteriormente efectuados y la oportunidad y necesidad innovadora del ordenamiento jurídico que pretende, de acuerdo con los términos previstos en el proyecto político del Gobierno actual.

Así, los *«proyectos de ley»* ya aprobados y residenciados en el Consejo de Gobierno, volverán a ser desde una perspectiva parlamentaria nuevos *«proyectos de ley»* al ser remitidos, con todos sus antecedentes, al Parlamento, iniciándose de nuevo la tramitación parlamentaria caducada en su día por la disolución de este.

Este es mi informe que emito, y someto a cualquier otro mejor fundado en Derecho.

Firmantes del documento electrónico

Nombre	Departamento	Cargo	Fecha
XABIER UNANUE ORTEGA	GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO	DIRECTOR/A	09/05/2017
JESUS MARIA FERNANDEZ AGUADO	GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO	LETRADO/A SERVICIOS JURÍDICOS CENTRALES	09/05/2017

TXOSTENA: Aztertzea juridikoki bideragarria ote den Gobernu Kontseiluak aurreko Lege-aurreproiektuaren testua berriro onartzea, aurreko legegintzaldiko termino berberetan, eta hura Eusko Legebiltzarrera igortzea, aurretik beste izapiderik egin gabe eta aurrekoan egindako prozedura-izapideak baliozkotzat emanda.

1. AURREKARIAK

2017ko martxoaren 9an, Kultura eta Hizkuntza Politikako Zerbitzu Zuzendaritzatik kontsulta hau jaso genuen Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzan: "Aztertzea juridikoki bideragarria ote den Gobernu Kontseiluak berriro onartzea aurreko Lege-aurreproiektuaren testua, Kiroleko dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzekoa, aurreko legegintzaldiko termino berberetan, eta hura Eusko Legebiltzarrera igortzea, aurretik beste izapiderik egin gabe eta aurrekoan egindako prozedura-izapideak baliozkotzat emanda".

Administrazio Publiko eta Justizia Sailari atxikitako Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak ematen du txosten hau, ekainaren 2ko 7/2016 Legeak (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa antolatzekoa) 5.2 artikuluan Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari ezartzen dizkion eginkizunak betez, Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena) 6.1.h) artikuluan ezarritakoarekin bat, eta, halaber, apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa) 14.1.a) artikuluan eta apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuan (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarena) gorago aipatutako zuzendaritzari ematen zaizkion eskumenetan oinarrituta.

2. PROZEDURA PARLAMENTARIOAREN IRAUNGIPENA, ETA ADMINISTRAZIOKO PROZEDURAREKIKO BEREIZKETA

Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren IX. kapituluak *Legebiltzarreko tramitazioen iraungipena* du izenburua, eta honako hau dio, arau orokor gisa, kapitulu horretako **130. artikuluak:**

> *«Eusko Legebiltzarra desegindakoan edo Legebiltzarraren agintaldia amaitutakoan, **iraungi egingo dira tramitazioan dauden gai guztiak**, salbu eta Diputazio Iraunkorrak aztertu eta erabaki beharrekoak edo legeak hala aginduta atzeratu beharrekoak».*

Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak ez duenez ezer aurreikusten lege-aginduz atzeratzeari buruz, tarteki hori Legegintzako herri-ekimena arautzen duen ekainaren 30eko 10/2016 Legearen 12. artikuluaz ari dela ulertu behar dugu:

> *«12. artikulua.– Proposamenak ez baliogabetzea Legebiltzarra desegiten bada*

Legebiltzarra desegiteko unean bere bideak egiten ari bada legegintzako herri-ekimena, ez da horregatik baliogabetuko. Legebiltzarra berriz osatutakoan, Mahaiak legegintza-bideei zer izapidetatik berrekingo zaien erabakiko du, eta ez da inola ere beharrezkoa izango ekimena berriz baliatzea».

Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 130. artikuluaren arabera, argi geratzen da Legebiltzarraren agintaldia desegiten bada edo denboraren poderioz iraungitzen bada orobat iraungita geratzen direla erakunde horretan izapidetzen ari diren gainerako ekimen guztiak, baita, beraz, Eusko Jaurlaritzak Jaurlaritzari buruzko Legearen 16. eta 18.a) artikuluek aitortzen dioten legegintza-ekimenerako ahala baliatuz bidalitako lege-aurreproiektu guztiak ere, salbu eta goian aipaturiko lege-proposamenak, legegintzako herri-ekimenaren ondoriozkoak.

Alabaina, komeni da ohartzea iraungipenak ez duela esan nahi ekimen horiek errepikatu ezin direnik; hau da, ekimenaren titularrak berak berriro aurkez ditzake ekimen horiek, aurreko aldiko termino berberetan. Jada sendotuta dagoen doktrinaren arabera, «*iraungi*» prozedurak iraungitzen dira eta «*preskribatu*» eskubideak preskribatzen dira, aldi bakanetan izan ezik. Hala, prozedura bat iraungita egoteagatik bertan behera geratzen denean, baliatu nahi izan den eskubidea berriro balia daiteke beste prozedura batean, eskubidea preskribatu gabe dagoen heinean.

Hala, Euskal Legebiltzarraz bestelako legebiltzar baten desegiteaz edo iraungipenaz diharduela, Eusko Legebiltzarraren aipatutako Erregelamenduak salbuespen bat jartzen du bere 131. artikuluan iraungipen-mandatu orokor horretarako, eta Legebiltzarrak Batzar Nagusietan aurkezturiko lege-proposamenetarako duen ekimen-eskubidea errebindikatzen du honako hau adierazten duenean:

«Eusko Legebiltzarrak aurkeztutako lege-proposamen baten tramitazioa Gorte Nagusietan iraungitzen bada, edo Eusko Legebiltzarraren legegintzaldia lege-proposamena defenditu aurretik amaitzen bada, ekimena besterik gabe berriro aurkeztea eta ekimenaren aldezpena egingo duten legebiltzarkideak izendatzea edo berrestea erabaki ahal izango du Osoko Bilkurak, gehiengo soilez, bi legebiltzar-taldek edo legebiltzarkideen bostenak proposatuta.

Artikulu hori, alabaina, erreferentziatzat har dezakegu, *mutatis mutandi*, Eusko Legebiltzarrean aurkezturiko ekimenen errepikapenaren onarpenari dagokionez; izan ere, nabarmena da aipatu dugun Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren artikulu hori ia literalki datorrela bat, adibidez, Bizkaiko Batzar Nagusien Erregelamenduaren 112. artikuluarekin. Hona zer dioen artikulu horrek:

«112. artikulua. Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako proposamenak iraungitea

Eusko Legebiltzarrak aurkeztutako lege-proposamen baten tramitazioa Gorte Nagusietan iraungitzen bada, edo Eusko Legebiltzarraren legegintzaldia lege-proposamena defenditu aurretik amaitzen bada, ekimena besterik gabe berriro aurkeztea eta ekimenaren aldezpena egingo duten legebiltzarkideak izendatzea edo berrestea erabaki ahal izango du Osoko Bilkurak, gehiengo soilez, bi legebiltzar-taldek edo legebiltzarkideen bostenak proposatuta».

Gipuzkoako eta Arabako Batzar Nagusien erregelamenduetan, berriz, ez da aurreikusi ekimena errepikatzeko aukera emango lukeen gehiengo murriztu bat gaitzea, baina ulertu behar da ezerk ez duela eragozten Euskal Legebiltzarrean iraungitako ekimena errepikatzea hauteskunde berrien ostean eratutako legebiltzar berrian aurretiko onarpenean eskatzen zen gehiengo berberarekin.

Eta era berean ondoriozta daiteke ezen, printzipioz, ez dagoela inongo zalantzarik, betiere eremu parlamentarioan, Eusko Jaurlaritza berriak gaitasun osoa duela, legegintzako

ekimenerako eskubidearen jabe denez, hauteskunde-prozesutik sortutako legebiltzar berriaren aurrean errepikatzeko aurreko Jaurlaritzak onartutako ekimenak, lehengo baldintza berberetan, ekimen bat iraungi arren ez baita iraungitzen Jaurlaritzak hura aurkezteko duen eskubidea.

Beraz, txosten honen helburua da aztertzea ea zer efektu izan lezaketen, Eusko Jaurlaritzak dena delako lege-aurreproiektuak aurkezteko abiarazitako administrazio-prozeduretan, Legebiltzarra desegiteak eta horren ondorioz prozedura parlamentarioak iraungitzeak; betiere kontuan izanik, zuzenbide parlamentarioaren ikuspuntutik egindako lehen hurbilketa honetan argi geratu denez, indarreko ordenamenduaren arabera argi dagoela Legebiltzarra desegiteak berekin dakarrela, beti eta kasu guztietan, aurretik aurkezturiko proiektuak iraungitzea eta, ondorioz, proiektuak berriro aurkeztu behar direla Gobernuaren legegintza-ekimenaren eskubidea berriro baliatuz. Alegia, Jaurlaritzako edo Administrazioko izapidetzeaz eta horren espedienteaz bakarrik arduratu behar du, alde batera utzita izapidetze parlamentarioa eta dagokion espedientea iraungi izana.

3. XEDAPENAK EGITEKO PROZEDURAREN IZAERA BEREZIA, PROZEDURA HORI LEGE-AURREPROIEKTUEI APLIKATZEN ZAIENEAN

Aurreko horretatik atera behar da ezen planteatu zaigun galderari erantzuna emateko abiapunturik egokiena dela Jaurlaritzaren barruan sortutako *"lege-aurreproiektu"* horien prozeduraren exegesia aztertzea, haiek onartu eta *"lege-proiektu"* eran Legebiltzarrera igorri aurreko prozedurarena alegia, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen babesean, batik bat (hemendik aurrera XOEPL). Azterketan, sartu behar dira 8.-11. bitarteko artikuluetan aipatutako nahitaezko izapide guztiak, zeinaren buruan Gobernu Kontseiluak aintzat hartzen baitu aurreproiektua, eta erabakitzen baitu azken onarpena ematea edo ez ematea, testu beraren 13. artikuluaren arabera. Eta horrela da, zioen azalpenean adierazten den bezala, «*legeak egiteko orduan, berez legegintza-ekimena denaren aurreko fasea baino ez delako sartzen administrazio-prozeduraren baitan; izan ere, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduak arautzen du berez legegintza-ekimena dena»*.

Hori gorabehera, amaitu edo iraungitako prozedura parlamentarioarekiko egiten ari garen bereizketa garbia dela-eta legezko eskakizunen azterketa honetan Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak sendo ezarritako doktrinari jarraitu behar diogu, zeren eta «*Batzordeak lege-aurreproiektuak egiteko prozedurak aztertzean, aldatu egiten baita haren langintza aztertutako araua legea edo erregelamendua denean, XOEPL berak adierazten duen moduan*» (129/2015 Irizpena, EAEko Sektore Publikoaren gardentasunerako, herritarren parte hartzerako eta gobernu onerako lege-aurreproiektuaren gainekoa; 55. paragrafoa). Erregelamenduak egiteko ekimenekiko diferentziak, ardura digun gaian, ezinbesteko malgutasuna eta izaera nabarmenki material eta antiformalista eransten dizkio lege-aurreproiektuak egiteko prozeduraren azterketari. Izan ere, «*Legebiltzarrean hedatzen da bere zabalean legegintza-prozedura, eta Konstituzioak (EK), Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuak (EAEE) edo, batzuetan, lege organikoek lege-proiektua onartzeko baldintzak ezartzen dituzten berariazko kasuetan izan ezik, lege-proiektuek bete behar duten baldintza bakarra da beharrezko aurrekariekin batera bidaltzea Legebiltzarrera, Legebiltzarrak bere iritzia eman eta erabakia hartu ahal izan dezan; gutxienez ere, memoria orokorra, finantzaketari buruzko eranskina eta kontrol ekonomikoko txostena (aurrekontuari karga dakarkioten proiektuetan), kontsulta-organo honen irizpena eta legeriaren arabera nahitaezko diren beste txostenak (Jaurlaritzaren Legearen 57. artikulua, eta Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 133.2. artikulua)».*Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren

Legearen aurreproiektua egitea (120/2014 Irizpena, EAEko Herri Administrazioaren Legearen aurreproiektuari buruzkoa; 85. paragrafoa).

Lege-aurreproiektuen izaera berezia dela-eta, agian nahitaezko txosten horiek ere ez lirateke beharrezkoak izango. Konstituzio Auzitegiak, uztailaren 29ko 108/1986 Epaian, Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzeko Lege Organikoaren proiektua Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren nahitaezko txostenik gabe aurkeztu zela-eta jarritako errekurtsoa ezetsi zuen, honako hau iritzita: "aurrekari jakin baten faltak garrantzia izango du baldin eta erabakia hartzeko behar duten judizio-elementuren bat ukatzen bazaie ganberei, baina kasu honetan, ondorioa, zeina seguru asko berehala ezagutuko baitzen, salatu egin behar zen ganberen aurrean, eta errekurtsogileek ez dute behin ere alegatu horrela gertatu zenik. Salaketarik izan ez denez, ondorioztatu behar da ganberek ez zutela uste izan txosten horren beharra zutenik beren erabakia hartzeko judizio-elementu gisa. Auzitegi honek ezin du esku hartu parlamentariek judizio-elementu bati eman zioten garrantziaren balorazioan". Geroago doktrina bera aplikatzen du, Gobernuak ez lege-proiektuaren zioen azalpenik ez azalpen-memoriarik Kongresura igorri ez izanari buruz. Aurrekari horiek igorri ziren, baina berandu, errekurtsogileen iritziz. Igorri zein ez, hau dio Goi Auzitegiak: "Aipatutako akatsak garrantzia izango luke baldin eta Kongresuko diputatuen edo talde parlamentarioen eskubideen kalterako izan balitz, baina, benetan akatsik izan bazen, haiek horren jakitun izan ziren erabat, eta ez zuten protestatu. Pentsatu behar da, beraz, ukitutakoek ez zutela beren eskubideen urratzerik sumatu, eta, akatsik izan bazen, Kongresuak berak baliozkotu zuela. Hori dela-eta, auzitegi honek ezin du aztertu akatsik izan ote zen, edota, izanez gero, garrantzizkoa izan ote zen". Beste hitz batzuetan esanda, Auzitegiak uste du Kongresuak berak beharrezkotzat jotzen duena bakarrik jo daitekeela halakotzat.

Egia da, ordea, gure antolamenduan, Legebiltzarraren Erregelamenduaren 133.2 artikuluak nahitaezko txostenak aipatzen dituela berariaz, eta horrek Legebiltzarrari bidea ematen diola txosten horiek eskatzeko, igortzen zaizkion lege-proiektuak onartzeko baldintza gisa. Ildo horretatik, berriro jo behar dugu Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legera eta beraren exegesira, betiere irakurketa malgua eta finalista bat eginez.

Berriz ere Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari jarraituz, "*lege-proiektuak egiteko prozedura aztertzeko —azterketa materiala da, eta funtsean, finalista—, XOEPLaren jarraibideak sistematizatu ditu Batzordeak, eta honako fase hauek bereizi: (i) hasierako fasea, ekimena proposatu duen organoaren barrukoa, helburu nagusitzat duena hasierako testua finkatzea, horri eusten dioten arrazoiak finkatzea, eta izapideak egiteko behar den dokumentazioa egitea kasu bakoitzean; (ii) prozedura irekitzeko fasea, arauak eragin diezaiekeen sektore eta administrazioak aintzat hartuta; (iii) txostenak —nahitaezkoak eta aukerakoak— egiteko fasea; eta (iv) amaierako fasea: ekimena bultzatu duen organoak, prozedura-iter guztia ebaluatuta, behin betiko testua finkatu, eta azken dokumentuak —justifikazio-memoria eta memoria ekonomikoa—*" (129/2015 Irizpena, EAEko Sektore Publikoaren gardentasunerako, herritarren parte hartzerako eta gobernu onerako lege-aurreproiektuaren gainekoa; 56. paragrafoa).

Bai Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak bai Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza honek berariaz iritzi izan diote (hori bai, erregelamenduzko arauak egiteko ekimenak izapidetzeari buruzko irizpenetan, gehienbat) legegintzaldi- eta gobernu-aldaketak berez ez dakarrela inondik inora arauak egiteko prozedurak iraungitzea, ezta prozedura horien barruan egindako izapideak baliogabetzea ere. Hain zuzen ere, ohiko jokabidea izan da, bai Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza honek bai Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak balidatua, aurreko sailburuak hasitako izapideak ontzat eman eta besterik gabe haiek sartzea hurrengo legegintzaldiko sailburuak Gobernu Kontseiluari onarpenerako aurkezten dion

espedientean. Hala, legegintzaldi batean hasitako izapidetzea hurrengo legegintzaldian egiten jarraitu izan da etenik gabe (gure aholku-organo gorenaren irizpen guztien adibide gisa honako hauek aipa ditzakegu: 203/2009 Irizpena, Euskal Autonomia Erkidegoko ardogileen alorrerako komunitateko laguntza-neurriak garatu eta aplikatzeko Dekretuaren proiektuari buruzkoa, 2. eta 37. paragrafoak; 217/2009 Irizpena, Fruta eta barazkien alorreko arautegi komunitarioa EAEn garatzeko eta aplikatzeko eta alor horren inguruko laguntzen erregimena arautzeko Dekretuaren proiektuari buruzkoa, 1. eta 30. paragrafoak; 64/2013 Irizpena, "Dekretu-proiektua, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoa", 2. eta 34. paragrafoak).

Bestela esanda, izapidetze-egintza horien baliozkotasun juridikoak ez du zerikusirik egintzok Legebiltzarra desegin edo Jaurlaritza berria eratu aurrekoak edo ostekoak izatearekin, zeren eta Administrazioa bat bakarra baita, eta nortasun juridiko bakarra baitu bere egitura osorako eta bere eginkizun guztietarako, Administrazioaren titularra den gobernua aldatu arren (Jaurlaritzari buruzko Legearen 53. artikulua, eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen —Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legea— 3.4 artikulua).

Hertsiki, ez dago aurreko legegintzaldian egindako izapideak «bihurtzeko», «mantentzeko» edo «baliozkotzeko» berariazko egintzen beharrik —figura horiek aurreikusten ditu urriaren 1eko 39/2015 Legeak (administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearenak), hurrenez hurren 50., 51. eta 52. artikuluetan, zenbait egintzaren akatsak zuzentzeko neurri gisa—, xedapenak egiteko prozeduraren barruko izapide horiek ez baitira inoiz deusez bihurtzen eta ez dutelako baliorik galtzen, nahiz eta legingintzaldia aldatu (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 47, 48 eta 49. artikuluak). Hori horrela da, nahiz eta figura horien azpian dagoen prozesu-ekonomiaren logika Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legean dagoena bera izan, lege horrek aintzat hartzen baitu aurretik egindako jarduketen baliozkotasunari eutsi behar zaiola ahal den neurrian (Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 4.2 artikulua).

Nolanahi ere, erregelamenduzko xedapenei dagokienez unean uneko sailburuordeari dagokio, soil-soilik, prozeduraren fase ezberdinak aurrera eramateko izapideak egitea, dela prozedurak jarrai dezala aginduz, dela Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legean eta Jaurlaritzari buruzko Legean markatutako prozedura-mugarrietan behar diren izapideak eginez (abiarazte-agindua, aurretiazko onarpena emateko agindua, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari irizpena eskatzeko agindua, arauaren behin betiko testua proposatzea Gobernu Kontseiluari…). Tramitazioa aurrera eramateko egintza horiek berez adierazten dute aurretik egindako izapideak onartzen direla eta horien eraginkortasun formala eta materiala baloratzen dela, ez bakarrik espedientearen betetze formalari lotuta, baizik eta haien benetako erabilgarritasuna ere kontuan hartuta, organo erabakitzaileak judizio-elementu egokiak izan ditzan araua unean uneko egoerari egokitzeko, bai erabakitzailea Jaurlaritza denean, erregelamenduzko arauen kasuan, bai Legebiltzarra denean, lege-proiektuen kasuan.

Horrenbestez, faktore zirkunstantzial guztiak hartu behar dira kontuan erabaki ahal izateko ea egokitzat jotzen den aurreko prozedura bat izapidetzen jarraitzea, prozedurari berriro hasieratik ekin beharrik ez izateko edo egindako izapide guztiak ontzat eman ahal izateko. Faktore horietako bat izan daiteke araua lehendik ere izapidetuta egotea eta eginda dauden jarduketak bikoiztu nahi ez izatea, prozedura bizkortze aldera; edo are, behar bezala egiaztatutako eta presako arrazoiengatik, egin gabe dagoen izapideren bat egin gabe utzi nahi izatea, non eta ez duen hura egiteko agintzen lege-mailako arauren batek (Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 129/2015 Irizpena, Euskal sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren Legearen aurreproiektuari buruzkoa, 55., 59.,

63. eta 85. paragrafoak), edo bien bitartean arau- edo gizarte-aldaketa garrantzitsuren bat gertatu ote den, behinola egindako izapideek gaurkotasuna edo informazio-balioa galtzea eragin duena. Bada, *«lege-aurreproiektuak eta -proiektuak»* aipatzen ditugunean —zeinek inplikatzen baitute Legebiltzarrera igortzea prestatzeko prozeduraren osteko fase erantsi gisa—, prozedura bultzatzeko egintzei dagokien balorazio hori egin behar dute bai sailburuak (prozedura bultzatzeko egintzen erantzukizuna izango du aurretiazko prozeduran zehar eta baita haiek Gobernu Kontseiluari aurkezteko erabakia hartzerakoan ere), bai Jaurlaritzak berak, legegintzako ekimenaren titularra baita Legebiltzarraren aurrean (balorazio hori berori egin beharko du hura onartzeko orduan eta nahitaezko agiriekin batera legegintzako organoari noiz igorri behar zaion erabakitzeko orduan).

Edozein kasutan, orain arte esandakoa aplikagarria da proiektua Legebiltzarrera igorri aurreko administrazio-prozedurako egintza guztietarako (abiarazte-agindutik hasi eta Gobernu Kontseiluaren onarpenerainoko egintza guztiak, bi horiek barne). Denetan, azken horretan ere bai, predikagarria da administrazio-egintzen baliozkotasun juridikoa mantentzearen printzipioa, eta haien indar materiala bakarrik baloratu behar da, aurreko paragrafoan esandakoaren ildotik.

Balorazio hori egiteko orduan, garrantzi handia izan behar du, halaber, administrazio-izapidetzea errazteak, prestatze-prozesuaren xede diren helburu materialak alde batera utzi gabe; izan ere, araua prestatzeko prozeduran ere aplika daitezke prozedura horren ondoriozko arauei aplika dakizkiekeen erregulazio onaren printzipioak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 129. artikuluan jasotako hauek: «Legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jokatu behar dute: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia».

4. AHOLKU BATZORDE JURIDIKOAREN IRIZPENA ETA KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAREN TXOSTENA, BERARIAZKO IZAPIDE GISA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen bigarren xedapen gehigarriak, arrazoi hertsiki historikoengatik (azaroaren 24ko 9/2004 Legea, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzkoa, promulgatu baino urtebete lehenago onartu zelako), erreferentzia gisa hartzen du apirilaren 13ko 187/1999 Dekretua, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoa sortu eta arautzen duena. Hala ere, izatez Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko Legea da (zehazki, beraren 3.1.a artikulua), Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legetik kanpo baina hark egindako erreferentziaz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenaren nahitaezkotasunaren gaia arautzen duena.

Aipatutako artikuluaren arabera, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari «*kontsultatu beharreko gaiak*» dira «*lege-aurreproiektuak, horien edukia eta helburua direnak direla ere*…» (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuei buruzkoak eta baliabideen banaketarako zein foru-aldundien ekarpenak zehazteko metodologia ezartzen dutenak izan ezik). Honaino, gainerako izapideei buruz orain arte esandakoa aholku-organo gorenaren irizpenari ere aplikatu ahalko litzaioke; irizpen horren baliozkotasun juridikoa ez da aldatzen gobernu-aldaketaren ondorioz edo Legebiltzarra desegin eta espediente parlamentarioak iraungitzearen ondorioz.

Hala ere, jurisprudentzia konstituzionalak berretsitako izaera berezia du irizpen horrek, eta horregatik gure txostenean tarte bat egin behar diogu beren-beregi. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak berak Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoaren Legearen aurreproiektuari buruz emandako 084/2003 Irizpenean (25. paragrafoa) azaldu zuenez, jurisprudentzia

konstituzionalak Espainiako Konstituzioaren 107. artikuluaz egin duen interpretazioan, «*Konstituzio Auzitegiaren iritziz, "aholku-funtzio gorena" da nolabait konstituzionalizatu dena, ez organoa (Estatu Kontseilua). Administrazio aktiboarentzako aholkularitza gorena da, beraz, artikulu horren bitartez konstituzio-mailako tresna bihurtzen dena, «interes orokorraren eta legezkotasun objektiboaren berme garrantzi handiko, eta, beraz, administrazio-prozedura batean alderdi direnen bidezko eskubide eta interesena ere».* Auzitegi horrek dioenez, *«…oso funtzio kualifikatua da, administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarrizko arauaren kategoriaren barruan edo administrazio-prozedura erkidearen barruan sar daitekeena" (Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua)»*.

Izapidearen berezitasun eta kualifikazio horiexek justifikatzen dute Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenak (Kontrol Ekonomikoko Bulegoak arauen kontrol ekonomikorako ematen duen aurretiazko txostenarekin batera) berariazko aipamena merezi izatea Legebiltzarraren Erregelamenduaren 133. artikuluan, Legebiltzarrera igortzen diren lege-proiektu guztiei erantsi beharreko dokumentuen artean. Eta haiei zor zaie, halaber, ekainaren 2ko 8/2016 Legeak (ekainaren 30eko 7/1981 Legea, Jaurlaritzari buruzkoa, aldatzen duena) Jaurlaritzari buruzko Legean aipamen bat erantsi izana, lege horren 56. eta 57. artikuluei honako testu hau ematean:

> *56. artikulua*
>
> *1. Jaurlaritzak, Aholku Batzorde Juridikoari igorri behar zaizkion lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak egiteko hasierako fasean, xedapenaren testua bakarrik igorriko dio Eusko Legebiltzarrari, behin prozedura hasteko agindua eman duen organoaren aldez aurreko onespena izanda.*
>
> *2. Era berean, Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaio, legebiltzar-taldeek dokumentazio hori ezagut dezaten.*
>
> *3. Jaurlaritzak erabaki beharreko lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak Jaurlaritzako Idazkariari bidaliko zaizkio, bana ditzan. Doazkien sailek Jaurlaritzak berak ezarritako moduan edukiarekin ados daudela adierazi ondoren, gai-zerrendan sartuko dira. Adostasunik ez badago edo adostasun hori baldintzatua bada, lehendakariari dagokio erabakitzea gaia Kontseiluaren eztabaidetan sartu ala ez.*
>
> *57. artikulua*
>
> *1. Eusko Legebiltzarrari aurkezten zaizkion lege-proiektuekin batera, Aholku Batzorde Juridikoaren txostena ere igorriko da eta, halakorik bada, txosten horretara egokitzeko oroitidazkia.*
>
> *2. Lege-proiektuek aurrekonturako kargarik badakarte, dagokion finantza-eranskina izango dute. Eranskin hori Legebiltzarraren Erregelamenduak lege-proiektuei buruz xedatutakoaren arabera eztabaidatu eta bozkatuko da.*

Galdetu liteke, beraz, ea, artikulu horien ondorioz, Legebiltzarrari jakinarazpena egiteko betebehar berezirik ba ote dagoen, aurreko legegintzaldietan sortutako lege-proiektuak izapidetzeari berriro ekin nahi zaionean. Lehenengo eta behin, bereizi egin behar da (i) lehendik hasita baina oraindik testuaren aurretiazko onarpenik gabe dagoen izapidetze bati jarraipena emateaz ari garen (hala izanez gero, Jaurlaritzari buruzko Legearen 56.1 artikuluan eskatzen den jakinarazpena egin beharko da), edo, bestela, prozedura horretan Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari irizpena eskatzeko izapidea oraindik bete gabe dagoen (hala izanez gero, Jaurlaritzari buruzko Legearen 56.2 artikuluan aipatutako guztia igorri beharko zaio Legebiltzarrari); edo, aldiz, (ii) dena delako aurreproiektua edo proiektua soil-soilik Gobernu Kontseiluaren onarpenaren zain dagoen, edo organo horrek Legebiltzarrera igortzea erabaki zain, dela lehenengo aldiz, dela aldez aurreko beste igortze-erabaki bat errepikatuta (hala izanez gero,

Jaurlaritzari buruzko 56.3 eta 57. artikuluetan eta Legebiltzarraren Erregelamenduaren 133. artikuluan aurreikusitako kasuetan egongo gara).

Halaber, dena delako aurreproiektuak edo proiektuak Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jaso badu, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko Legearen 29. artikuluan ezarritakoa ikusirik, galdetu liteke, baita ere, ea nahikoa den, aurreko kasuetan, lehengo legegintzaldi batean emandako irizpena eranstea, edo, aldiz, beste irizpen bat eskatu behar den.

Artikulu horrek honako hau dio: «Irizpena eman eta gero, irizpenaren aztergaian garrantzizko aldaketak egiten badira eta, ondorioz, batzordeak egindako iradokizun edo proposamenekin bat ez datozen edo horiek gainditzen dituzten eduki berriak jasotzen badira, aldaketa horiei buruzko kontsulta berria egin beharra dago». Arauaren testutik ondorioztatu daiteke, beraz, dagoen irizpena aurreko gobernu batentzat egina izan zein ez, **beste azterketa bat egitea bidezkoa izango dela baldin eta «funtsezko aldaketak» gertatu badira Gobernu Kontseiluari onarpenerako edo igorpenerako berriro aurkeztuko zaion lege-proiektuaren proposamenean**. Funtsezko aldaketen kontzeptu juridiko lausoa zehazteko, artikuluaren testuari jarraituz eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak berak adierazi izan duen bezala, aldaketa horiek aurreko irizpenarekin duten loturari erreparatu beharko zaio.

Horri dagokionez, garrantzizkoa da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren beraren doktrinara jotzea, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko Legearen 29. artikuluari eman behar zaion interpretazioa dela-eta. Ez onartzeko bere erabakietan eta irizpenetan Batzordeak irmo ezarritako doktrina da. Guztien adibide gisa, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak orain dela gutxi, 2017ko apirilaren 26ko osoko bilkuran, irizpen-eskaera bati ezetza emateko hartu duen 4/2017 Erabakian esandakoa ekarri dugu txosten honetara:

> *7. Edo, bestela esanda, 10/2000 Irizpenean adierazitakoaren ildotik, Batzordeak berriz aztertu beharko du gaia, baldin eta lantze berri horretatik ateratzen bada aurreko esku-hartzean aztertutako elementu edo alderdi substantiboez bestelakorik badela, eta duten garrantziagatik, beste azterketa bat eskatzen dutela: orduan bakarrik, eta ez bestela.*
>
> *8. Doktrina hori bat dator Auzitegi Gorenak Estatu Kontseiluari buruz ezarritakoarekin, eta, beraz, erabat aplikagarria da batzorde honek esku har dezakeen kasuetan.*
>
> *9. Doktrina horren arabera, laburbilduta, bidezkoa da beste kontsulta bat egitea baldin eta "...Estatu Kontseiluaren irizpenaren ondoren egindako berrikuntzak ez badira hark iradokiak, ez badute zerikusirik kontsultaren nondik-norakoekin, eta, gainera, funtsezko garrantzia badute" (Auzitegi Gorenaren 1993ko maiatzaren 27ko Epaia—RJ 1993\102040—).*
>
20. A nuestro juicio el *Proyecto de Ley de modificación de la Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el dopaje en el deporte,* que aprobó el Consejo de Gobierno el 26 de enero de 2016, no se ha visto afectado por normas aprobadas con posterioridad a su remisión. Aunque sólo ha transcurrido poco más de un año desde su aprobación por el Consejo de Gobierno y ha coincidido un periodo de inactividad legislativa como consecuencia de las sucesivas convocatorias de elecciones en el ámbito estatal y vasco, con fecha de 18 de febrero de 2017 se publicó en el Boletín Oficial del Estado, el *Real Decreto-ley 3/2017, de 17 de febrero, por el que se modifica la Ley Orgánica 3/2013, de 20 de junio, de protección de la salud del deportista y lucha contra el dopaje en la actividad deportiva, se adapta a las modificaciones introducidas por el Código Mundial Antidopaje de 2015*. Y con fecha de 18 de marzo de 2017 se publicó en el Boletín Oficial del Estado el Acuerdo de convalidación del citado Real Decreto-ley, adoptado por el Congreso de Diputados.

21. En la exposición de motivos del citado Real Decreto-ley se condensan los antecedentes y los objetivos de la modificación legislativa estatal, que son, básicamente, los que perseguía *el Proyecto de Ley de modificación de la Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el dopaje en el deporte,* es decir, acompasar la legislación vasca a la normativa internacional:

> *"Sin embargo, tales actualizaciones pronto se revelaron insuficientes para acompasar nuestra regulación a la cada vez más pujante y exigente legislación internacional. Esta situación provocará la aprobación de la Ley Orgánica 7/2006, de 21 de noviembre, de Protección de la Salud y de Lucha contra el Dopaje en el Deporte, cuya promulgación supuso un hito fundamental en la historia de la lucha contra el dopaje en nuestro ordenamiento jurídico. Aquella primera Ley contenía un completo sistema de disposiciones que conceptuaban el dopaje como una lacra que afectaba a diversos bienes jurídicos dignos de protección como eran la salud de los deportistas, el juego limpio en el deporte y la dimensión ética del mismo.*
>
> *Las sucesivas modificaciones que tuvieron lugar en el plano internacional, encontrarán un jalón en la ratificación, pocos meses después de la promulgación de la Ley, de la Convención Internacional contra el dopaje en el deporte de la*

Unesco, que incorporó los principios del Código Mundial, haciendo así posible la armonización de la normativa internacional sobre esta materia. Este texto impuso a los Estados signatarios una serie de obligaciones en materia de lucha contra el dopaje, entre ellas, la de obligar a los Estados miembros a garantizar la eficacia del Código Mundial Antidopaje.

La modificación del Código Mundial Antidopaje en enero de 2009 determino que dadas las incongruencias normativas que desde entonces afloraran entre el texto español y las nuevas disposiciones del Código, se considerase necesario dictar una nueva ley que sustituyera la anterior de 2006 y diera respuesta a las nuevas demandas y reglas de los textos internacionales. La obligada adaptación de la normativa española al Código Mundial Antidopaje derivó en la adopción de nuevas medidas de carácter legislativo que paliaran esta situación, y de esta suerte se aprobará la Ley Orgánica 3/2013, de 20 de junio, de protección de la salud del deportista y lucha contra el dopaje en la actividad deportiva.

Sin embargo, en 2015 entró en vigor una nueva redacción del Código Mundial Antidopaje que de nuevo vuelve a descolgar la regulación española del sistema armónico que propugna la Convención Internacional contra el dopaje en el deporte de la Unesco. Y ello pese a que la redacción de la Ley de 2013 ya se hizo tomando en consideración los distintos borradores con los que entonces se contaba del Código Mundial Antidopaje que se estaba gestando.

Las modificaciones habidas en el texto final del CMA respecto de los últimos borradores considerados por el legislador español de 2013 han determinado que nuestra normativa apenas mantuviera la deseada armonización y concierto durante un año y medio.

Aunque durante el prolongado periodo de Gobierno en funciones, a lo largo de 2016, la reforma legal necesaria no pudo remitirse a las Cortes Generales, con objeto de dar publicidad a las novedades del Código Mundial se publicó en el «Boletín Oficial del Estado» de 11 de marzo de 2016 la última versión actualizada y en vigor, desde el 1 de enero de 2015, del Código Mundial Antidopaje, en tanto que apéndice 1 de la Convención Internacional contra el Dopaje en el Deporte, hecho en París el 18 de noviembre de 2005.

En esta ocasión, y precisamente en aplicación de las nuevas reglas contenidas en la redacción del CMA de 2015, esta discrepancia ha tenido además como consecuencia la declaración formal por parte de la AMA de «incumplimiento del código», de acuerdo a lo previsto en su artículo 23. Ello hace necesaria nuevamente una modificación legal que permita dar cabida en el texto de 2013 a aquellos aspectos, pocos, que no pudiendo preverse en la redacción original y cuya estampa final en el Código Mundial ha determinado una situación de discordancia entre ambas legislaciones.

Así las cosas, la intervención normativa urgente y extraordinaria del Gobierno está absolutamente justificada por la trascendencia de los impactos derivados de la falta de incorporación de la nueva versión del Código Mundial Antidopaje a la normativa interna y que afectaría directamente a todos los niveles de la

organización, planificación y desarrollo de las políticas públicas deportivas pero también a la práctica profesional y amateur del deporte y al derecho a la salud de quienes lo practican. Así, esta intervención normativa evita los perjuicios inmediatos que la falta de incorporación del Código produciría en el interés general vinculado con el fomento del deporte y la salud de los deportistas, valores que la sociedad ha potenciado intensamente en los últimos años y a los que dedica medios cada vez mayores por su trascendencia individual y social"

22. Es decir, lo que el legislador estatal indica en esta exposición de motivos es que era necesaria nuevamente una modificación legal que permitiese dar cabida en el texto de la Ley Orgánica 3/2013 a aquellos aspectos, pocos, que se encontraban en una situación de discordancia con la normativa internacional, pues en 2015 entró en vigor una nueva redacción del Código Mundial Antidopaje que de nuevo volvía a descolgar la regulación española del sistema armónico que propugna la Convención Internacional contra el dopaje en el deporte de la UNESCO.

23. La modificación de la Ley Orgánica 3/2013 no afecta al *Proyecto de* Ley *de modificación de la Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el dopaje en el deporte,* que aprobó el Consejo de Gobierno en 2016, por diversas razones:

Primero.- Después de que el Parlamento Vasco aprobase la Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el dopaje en el deporte, el Estado aprobó la Ley Orgánica 3/2013, de 20 de junio, de protección de la salud del deportista y lucha contra el dopaje en la actividad deportiva, Ley Orgánica que invocaba la competencia del "*Estado para dictar aquellos preceptos relativos a su propia organización y los que se refieren a los intereses que afectan al deporte estatal federado en su conjunto*". La Ley vasca 12/2012 ni abordaba la organización estatal ni regulaba con afectación al deporte estatal federado. Por ello, tras la aprobación de Ley Orgánica 3/2013, a pesar del carácter orgánico de algunos preceptos citados en su disposición final segunda, se consideró que la Ley Orgánica no obligaba a adaptar la Ley 12/2012, del Parlamento Vasco; ambas leyes se proyectan sobre ámbitos objetivos y subjetivos diferenciados. De hecho, la Comisión Jurídica Asesora, en su Dictamen

5/2016, con relación al *Proyecto de Ley de modificación de la Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el dopaje en el deporte*, ya manifestaba que "*se trata de una reforma que básicamente responde a la obligación de adecuar la vigente LCD al citado código mundial, aprobado en la IV Conferencia Mundial Antidopaje, que se celebró en Johannesburgo, Sudáfrica*" y por ello "*el texto, en la medida que se limita a trascribir lo anteriormente reseñado, no presenta discrepancia alguna que le impida una integración adecuada en el ordenamiento vigente en la materia*".

Segundo.- Siendo cierto que la literatura que emplea el *Proyecto de modificación de la Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el dopaje en el deporte,* no coincide literalmente con la del Real Decreto-ley 3/2017, no es menos cierto que tampoco coincide la literatura de la vigente Ley vasca 12/2012 con la de la Ley Orgánica 3/2013, en la redacción anterior a la aprobación del Real Decreto-ley en 2017. Y tampoco el Proyecto de Ley aprobado por el Consejo de Gobierno en su sesión de 26 de enero de 2016, con el dictamen favorable de la Comisión Jurídica Asesora, coincidía con la anterior Ley Orgánica 3/2013, lo que avala la conclusión de que se trata de dos cuerpos normativos, el estatal y el autonómico, dictados bajo títulos competenciales diferentes, y con ámbitos subjetivos y objetivos también diferenciados.

Tercero.- Ambos textos legislativos, el Proyecto de Ley aprobado por Consejo de Gobierno el 26 de enero de 2016, y el Real Decreto-ley, de 17 de febrero, tratan de cumplir el mismo objetivo de armonización legislativa al marco internacional, concretamente al Código Mundial Antidopaje. Lo hacen con textos diferenciados, pero cada uno de los países signatarios también ha realizado adaptaciones con textos legislativos muy diferenciados.

24. Sin perjuicio de las consideraciones precedentes, hacemos nuestra la consideración realizada por la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo en el sentido de que "*incluso la importancia de una <u>eventual modificación sobrevenida del ordenamiento que afectara al proyecto</u> debe ser sopesado de una forma relativa*

puesto que el proyecto de ley, aún después de ser remitido a la cámara transformándose el procedimiento en parlamentario, ha de ser sometido a su tramitación en aquélla sede, durante al cuál, y previo a su aprobación final y convertirse en Ley, puede ser sujeto de enmienda por la Cámara de forma que también en ese momento se podrán realizar los ajustes que resulten pertinentes". Es decir, las propuestas de ajuste del Proyecto de Ley a una **eventual modificación sobrevenida del ordenamiento** también pueden ser tramitadas a través de enmiendas parlamentarias.

25. A tenor de todas las consideraciones precedentes cabe concluir también la vigencia de todos los trámites administrativos efectuados con ocasión de la aprobación del *Proyecto de Ley de modificación de la Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el dopaje en el deporte*, aprobado por el Consejo de Gobierno en su sesión de 26 de enero de 2016.

En Vitoria-Gasteiz,

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI	JON REDONDO LERTXUNDI
El Consejero de Cultura y Política Lingüística	Director de Actividad Fisica y Deportes

FIRMADO DIGITALMENTE POR:

Firmante: **BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI**
Fecha de la firma: **21/06/2017 13:16:29**
Validación de la firma: **Correcta**

Firmante: **JON REDONDO LERTXUNDI**
Fecha de la firma: **21/06/2017 11:51:08**
Validación de la firma: **Correcta**

KIROLEKO DOPINAREN AURKAKO EKAINAREN 21EKO 12/2012 LEGEA ALDATZEKO LEGEAREN PROIEKTUARI BURUZKO MEMORIA OSAGARRIA.

I.- AURREKARIAK.

1. Memoria hau egin da Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak gobernu-kontseiluaren 2016ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran onartutako testu artikulatua Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektu gisa gobernu-kontseilura berriz aurkez dezan.

2. Legearen proiektu hori Eusko Legebiltzarrera aurkeztu zuten eta Legebiltzarreko Mahaiak, 2016ko otsailaren 23ko bilkuran, Legearen proiektua izapidetzeko onartzea erabaki zuen; halaber, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordera igortzeko ere agindu zuen, baita Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko ere; 2016ko otsailaren 26an argitaratu zuten.

3. Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren IX. kapituluak legebiltzarreko izapideen iraungipena arautzen du eta, oro har, honakoa adierazten du 130. artikuluan:

> *«Eusko Legebiltzarra desegindakoan edo Legebiltzarraren agintaldia amaitutakoan,* ***iraungi egingo dira tramitazioan dauden gai guztiak****, salbu eta Diputazio Iraunkorrak aztertu eta erabaki beharrekoak edo legeak hala aginduta atzeratu beharrekoak».*

4. Aipatutako manu horretan xedatutakoarekin bat etorriz, eta 2016ko abuztuaren 2an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian abuztuaren 1eko 23/2016 Dekretua, Lehendakariarena, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deia egiten duena, argitaratu zenez, Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektua, gobernu-kontseiluak onartu eta ondoren Eusko Legebiltzarrera igorria, iraungi zen legebiltzarreko tramitazioan.

5. Aurrekari labur horietaz gain, memoria honek kontuan hartu beharreko hainbat inguruabarretan izateko arrazoia duela ere adierazi behar dugu. Lehenik, Gobernu Kontseiluak, 2017ko otsailaren 28ko bilkuran, XI. Legegintzaldirako Legegintza Programa onartu du. Programa horrek Euskal Ganberara 28 lege-proiektu igortzea jasotzen du. Eta Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrera igorri beharreko lege-proiektuen zerrendan Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektua dago; araugintza-ekimena, halaber, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari egotzi diote.

6. Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak, 2017ko maiatzaren 10ean, txosten juridiko bat egin du, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzaren eskariz, honako izenburu honekin: *«Gobernu Kontseiluak legearen aurreproiektu bera, aurreko legegintzaldian egindako modu berean, berriz onartzeko aukeraren bideragarritasun politikoa, ondoren legearen proiektu gisa Legebiltzarrera igortzeko, aurretiko izapiderik egin beharrik gabe eta aldez aurretik egindako prozedura-izapideak baliozkotzat onartuta».* Irizpen horrek honako ondorio hauek ditu, besteak beste:

Lehena.- Indarrean den ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, argi da Legebiltzarra desegiteak, beti eta kasu guztietan, aurretik aurkeztutako legegintzako proiektu guztiak iraungitzea dakarrela eta, ondorioz, Jaurlaritzaren legegintzako ekimenerako eskubidea berriz baliatuz errepikatu behar izatea. Oraingo eta indarrean den Gobernu Kontseiluak, ordea, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 16. eta 18.a artikuluek aitortzen dioten legegintzako ekimenerako ahalmena baliatuz, aldez aurretik onartutako Legearen proiektu bat onartzea eta Legebiltzarrera igortzea erabaki dezake, eskumena duen sailburuak dagokion proposamena hari aurkeztu ondoren. Era horretan, aurretik aurkeztutako Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektuaren legebiltzarreko tramitazioa iraungitzeak ez dakar legegintzako ekimen hori errepikatu, hau da, berriz aurkeztu ezin denik aurretik egindako modu berean. Irizpenak, amaitzeko, hau ere xedatzen du: «*Zalantzarik*

gabekoa da guztiz, legebiltzarrari dagokionez soilik, Eusko Jaurlaritza berriak, legegintzako ekimenerako eskubidea duen neurrian, hauteskunde-prozeduraren ondoriozko ganbera berriaren aurrean aurreko kabineteak onartutako ekimenak modu berean errepikatzeko gaitasun osoa duela, ekimenaren iraungipenak ez baitio eragiten Jaurlaritzak haiek aurkezteko duen eskubideari».

Bigarrena.- Bai Aholku Batzorde Juridikoak bai Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak berariaz xedatu dute legegintzaldia eta kabinetea aldatzeak ez dakarrela berez, inola ere ez, arauak egiteko administrazio-prozedurak iraungitzea, eta ez duela eragiten izapidetze parlamentarioaren aurretiko prozedura horien barruan eginiko administrazio-izapideak baliogabeak izatea. Hori horrela, ohikoa da, bi organo horiek hainbat irizpenetan baliozkotuta, aurreko Jaurlaritzak egindako izapideak ontzat jotzea eta izapide horiek, modu natural batez, hurrengo legegintzaldian Gobernu Kontseiluak onartzeko igortzen duten espedientearen zati izan daitezen. Era horretan, legegintzaldi batean hasitako izapideak guztiz baliozkoak eta erabilgarriak dira, bihurtzeko edo baliozkotzeko egintzaren beharrik gabe, Gobernu Kontseiluaren onespen berri bati begira. Eta hori aplikagarri zaie Legebiltzarrera igorri aurretiko administrazio-prozeduraren egintza guztiei –hasiera emateko agindutik hasita Gobernu Kontseiluak onartzeko egintzara arte, biak barne–; hala bada, administrazio-egintzen baliozkotasun juridikoari eustea zein egintzak kontserbatzeko printzipioa, horientzat guztientzat dira aldarrikatzekoak, azken horrentzat barne, eta haien indarraldi materiala baino ez da baloratu behar.

Hirugarrena.- Kiroleko Dopinaren Aurkako kainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektua Gobernu Kontseilura haren kide batek –oraingoan Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak– aurkez dezan, beharrezkoa da, proposamenaren egokitasunaren erabaki formala erakustea ez ezik –aipatutako Jaurlaritzari buruzko Legearen 26.8 artikuluan jasota–, arau-bideragarritasuna indarrean dagoela (aurretik igorri ondoren onartutako arauek eragin ez diotela, alegia) eta aurretik eginiko izapideak

indarrean daudela ere baieztatzea, baita nahi duen ordenamendu juridikoa berritzea egokia eta beharrezkoa dela baieztatzea ere, oraingo Jaurlaritzaren proiektu politikoan aurreikusitakoari jarraikiz.

7. *Ut supra* adierazitako ondorioak aintzat hartuta, ez dago zalantzarik Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Gobernu Kontseilura aurkez dezakeela Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektua, aurreko Gobernu Kontseiluan, 2016ko urtarrilaren 26ko bilkuran, onetsia. Hartarako, hau egin behar da:

   a) Aurreko legearen proiektuaren arau-bideragarritasuna baieztatu, hots, igorri ondoren onartutako arauek ez diotela eragin.
   b) Aurretik egindako izapideak indarrean daudela baieztatu.

8. Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak egindako irizpenak ondorioztatzen du, halaber, aurretik azaldu dugun bezala, dagokion sailburuak Gobernu Kontseiluari egindako proposamenak Legearen proiektua egokia eta beharrezkoa dela ere abalatu behar duela. Gure iritziz betekizun hori beteta dago nolabait, eta ez da beste txosten eta irizpen bat behar; izan ere, egungo Gobernu Kontseiluak, 2017ko otsailaren 28ko bilkuran, Legearen proiektu hori jaso du jada indarrean den XI. Legegintzaldirako Legegintzaldi Programan, eta arrazoizkoa da pentsatzea erabaki horren aurretik haren beharra eta egokitasuna behar bezala aztertu dela.

9. Hori guztia dela eta, memoria honek aurreko Legearen proiektuaren arau-bideragarritasunari helduko dio funtsean, hots, igorri ondoren onartutako arauek ez diotela eragin; horrez gain, aurretik egindako administrazio-izapideak indarrean dauden ere aztertuko da.

II.- LEGEAREN AURREKO PROIEKTUA ZELA ETA EGINDAKO ADMINISTRAZIO-IZAPIDEEI BURUZKO IRIZPIDE OROKORRAK

10. Aurretik ere adierazi dugu legegintzaldia eta Jaurlaritzan kabinetea aldatzeak berez ez dakarrela, inola ere ez, arauak egiteko prozedurak iraungitzea, eta ez duela eragiten, orobat, Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektua legebiltzarrean izapidetu aurretiko prozedura horien barruan egindako administrazio-izapideak baliogabeak izan daitezen; horrenbestez, ohikoa da aurreko sailburu batek edo aurreko Jaurlaritzak hasitako izapideak ontzat jotzea eta, modu natural batez, hurrengo legegintzaldian Gobernu Kontseiluan onar dadin igortzen duten Legearen proiektuaren espedientearen zati izan daitezen.

11. Era horretan, aurreko legegintzaldian Legearen proiektua onartzeko hasitako izapideak guztiz baliozkoak eta erabilgarriak dira, bihurtzeko edo baliozkotzeko egintzaren beharrik gabe, Gobernu Kontseiluaren onespen berri bati begira. Eta erabat logikoa da ondorio hori, administrazio-prozedura baten barruan aurreko legegintzaldi batean egindako izapide horiek ez baitira deusez bilakatzen eta ez baitute baliorik galtzen legegintzaldia aldatzeagatik. Gainera, Administrazio Publikoek, legegintzako ekimena baliatuz, «*printzipio hauen arabera jokatu behar dute: premia, efikazia...*» (urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 129. artikulua).

12. Eta hori aplikagarri zaie Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektua Legebiltzarrera igorri aurretiko administrazio-prozeduraren egintza guztiei –hasiera emateko agindutik hasita Gobernu Kontseiluak onartzeko egintzara arte, biak barne–; hala bada, administrazio-egintzen baliozkotasun juridikoari eustea zein egintzak kontserbatzeko printzipioa horientzat guztientzat dira aldarrikatzekoak, azken horrentzat barne, eta haien indarraldi materiala baino ez da baloratu behar.

13. Txosten honetan aipatu dugun Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren irizpenean Aholku Batzorde Juridikoak eta Kontrol

Ekonomikoko Bulegoak beste irizpen eta txosten bat ematea, hurrenez hurren, beharrezkoa den aztertu da, oro har. Irizpide orokor horiek hizpidera ekarri behar dira, ondoren, Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektuari dagokionez, aipatutako bi organo horien txostenak berriz egin behar diren edo ez aztertzeko.

14. Aholku Batzorde Juridikoaren nahitaezko esku-hartzeari buruz, eztabaidaezina da organo horri aholkularitza eskatu behar zaiola Legearen aurreproiektu guztiekin lotuta, haien gaia eta xedea edozein dela ere (azaroaren 24ko Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 9/2004 Legearen 3.1.a artikulua). Irmoak dira, halaber, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. eta 57. artikuluak, ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazketan:

«56. artikulua

1. Jaurlaritzak, Aholku Batzorde Juridikoari igorri behar zaizkion lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak egiteko hasierako fasean, xedapenaren testua bakarrik igorriko dio Eusko Legebiltzarrari, behin prozedura hasteko agindua eman duen organoaren aldez aurreko onespena izanda.

2. Era berean, Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaio, legebiltzar-taldeek dokumentazio hori ezagut dezaten.

3. Jaurlaritzak erabaki beharreko Lege-aurreproiektuak eta Dekretu-proiektuak Jaurlaritzako Idazkariari bidaliko zaizkio, banatu ditzan. Doazkien Sailek Jaurlaritzak berak ezarritako moduan idazkiek diotenarekiko onarpena adierazi dezatenean, Gai-zerrendan sartuko dira. Bat etorri ez edo baldintzaren batekin bat badatoz, Lehendakariari dagokio arazo hori Kontseiluak aztertzeko gaietan sartu edo ez sartu erabakitzea.

57. artikulua

1. Eusko Legebiltzarrari aurkezten zaizkion lege-proiektuekin batera, Aholku Batzorde Juridikoaren txostena ere igorriko da eta, halakorik bada, txosten horretara egokitzeko oroitidazkia.

2. Lege-proiektuek aurrekonturako kargaren bat badakarte dagokien finantzaketa-eranskin bat eraman beharko dute eta, hori, Legebiltzarraren erregelamenduak Legearen proiektuei buruz xedatutakoari jarraikiz eztabaidatuko eta bozkatuko da».

15. Gobernu Kontseilura aurkezten den legegintzako ekimen orok Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena ere eduki beharraren kontua ebatzita, zalantza dago horrek aurretik irizpena emandako testu berari buruz beste irizpen bat ematea beharrezkoa den edo amaitutako legegintzaldiaren aurreko araugintza-ekimenarekin emandako irizpena nahikoa den. Gai hori zioetan oinarrituz ebatzi da Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren txostenean, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 29. artikulua oinarri hartuta. Honakoa dio:

> *«Irizpena eman eta gero, irizpenaren aztergaian* ***garrantzizko aldaketak*** *egiten badira eta, ondorioz, batzordeak egindako iradokizun edo proposamenekin bat ez datozen edo horiek gainditzen dituzten eduki berriak jasotzen badira, aldaketa horiei buruzko kontsulta berria egin beharra dago».*

16. Xedapen horrek hitzez hitz adierazten duenetik ondorioztatu behar da, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak berariaz ohartarazten duen moduan, Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektua berriz ere aztertuko dela garrantzizko aldaketak baditu bakarrik, alde batera utzita Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena Jaurlaritzaren kabinete honekin edo aurreko kabinete batekin egin den. Eta ondorio hori abalatzeko, Aholku Batzorde Juridikoaren Osoko Bilkuraren 4/2017 erabakia dakar hizpidera, irizpen-eskaera bat atzera bota baitzuen 2017ko apirilaren 26ko bilkuran:

> *«7. Edo, beste hitz batzuekin, 10/2000 irizpenean adierazi bezala, Batzordeak gaia berriz ere aztertu beharko du, baldin eta aurretik aztertutakoak ez diren* ***funtsezko elementuak edo alderdiak*** *badaude eta haien* ***garrantzia*** *dela-eta beste azterketa bat egin beharra badago bakarrik.*
>
> *8. Doktrina hori bat dator Auzitegi Gorenak Estatu Kontseiluari dagokionez ezarritakoarekin eta, ondorioz, guztiz aplikagarri zaie Batzorde honek esku hartzeko kasuei.*
>
> *9. Doktrina horrekin bat etorriz, laburbilduz, kontsulta berri bat egokia da baldin eta "...Estatuko Kontseiluaren irizpenaren ostean egindako berrikuntzak ez baditu hark iradoki, kontsultarekin loturarik ez badute eta, gainera,* ***funtsezko garrantzia*** *badute" (AGE, 1993ko maiatzaren 27koa, RJ 1993\102040).*

10. Ondorengo erabakietan zehaztu dituzte kasu horiek; horrela bada, Auzitegi Gorenaren 2009ko martxoaren 10eko Epaiak (AGE – RJ\2009\5110) honako hau nabarmentzen du: "ez da beharrezkoa Estatuko Kontseiluari beste kontsulta bat egitea testua orrazten badute edo ***funtsezkoak ez diren aldaketak*** *egiten badituzte (...), ezta proiektuaren eta behin betiko testuaren arteko desadostasunak egiteko prozeduraren ondorio logikoak badira; horren barruan, izan ere, hainbat organok txostenak egiten dituzte eta aldaketak eragiten dituzte horiek azkenean onartzen den xedapenean. Gaineratu daiteke, orobat, Salaren doktrinak berak nabarmendu duela xedapen orokorrak egiteko ezarritako prozedurako bermeen interpretazio funtzional eta teleologikoa egiteko beharra . Horiek ez baitaude justifikatuta egitearen formalismo hutsagatik, duten xedeagatik baizik, eta haien balorazioan dena delako xedapen orokorraren berezitasunak hartu behar dira kontuan (...)".*

11. AGE horrek, 2009ko martxoaren 10ekoak, gogorarazten du, orobat, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia dela (AGE, 2006ko martxoaren 8koa) xedapen orokor baten behin betiko testuan erantsitako aldaketak ***funtsezkoak ez direnean*** *ez dela beharrezkoa beste entzunaldi bat egitea xedapenaren xedearekin harreman zuzena duten interes legitimoak ordezkatzen dituzten elkarte, korporazio edo erakundeei, ezta Estatuko Kontseiluaren txosten edo irizpen berri bat egitea ere; "besteak beste, haien iritzia loteslea ez delako, hortaz, aldaketa ikuspegi erlatibotik –txostena jasotako testuaren berrikuntzagatik– zein ikuspegi absolututik –berezko garrantziagatik– aztertu ondoren* ***funtsezko aldaketarik*** *ez badakar aldez aurretik entzunaldi-izapidetik igaro edo txostena jaso duen ordenamenduan, egindako aldaketari dagokionez horiek ez egiteak ez dakar haren deuseztasun erradikalik, xedapena behin betiko idazteko ahalmena duenak kontsultatutako erakundeen, korporazioen, elkarteen eta erakundeen irizpidea edo ilustrazioa izan baitu, eta hori da, funtsean, bilatutako xedea (...) erregelamenduak egiteko prozedura ezartzean (...)".*

12. Eta 2001eko urtarrilaren 31ko AGEak aldarrikatzen du, orobat, 1993ko maiatzaren 27ko epaiari erreferentzia eginda, han egindako aldaketak baloratuz, aldaketa horiek ez zutela Estatuko Kontseiluaren irizpen berririk behar, "bateragarri egin behar baitira irizpen horren izaera finala, aurretik azaldutako gai guztiak eta egindako txosten espezifiko guztiak laburbiltzen dituen judizio modura, eta Gobernuaren erregelamenduak egiteko ahala baliatzea (...); eta hori kenduko zitzaion irizpen horren behin betiko idazketara hitzez hitz egokitu behar izanez gero, irizpena emateko igorritako proiektuan jaso gabeko gaiak arautzen baziren edo haren antolaketa ***guztiz edo funtsean ezberdina*** *bazen –betiere horiek Estatuko Kontseiluak berak iradoki ez bazituen– baino ez zen alderdi horiei buruzko txosten berri bat eskatu behar, erregelamenduak egiteko ahalaren titularrak baitu Estatuko Kontseilura igorritako testuan azken idazketarako egoki deritzen erreformak gehitzeko ahalmena, adierazitakoa beste mugarik gabe (...)".*

13. Aurreko doktrina erabat indarrean dago, 2016ko abenduaren 22ko AGE irakurrita ondoriozta daitekeenez (RJ 2017/106).

14. Egokia da, horrenbestez, kontsultara aurkeztutako proiektuaren testua aztertzea berrikuntzen eta aurreko irizpenaren gogoeten arteko loturari buruzko irizpenari jarraikiz, hau da, Batzordearen irizpenaren iradokizunen ondorio diren edo, horrekin zerikusirik izan gabe, nahitaezko esku-hartze berri bat eskatzen duen ***funtsezko garrantzia*** *duten».*

17. Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenari dagokionez, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak ere ondorioztatzen du txosten hori nahitaezkoa dela Gobernu Kontseilura aurkeztu nahi den Legearen aurreproiektu orori dagokionez. Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 133. artikuluak berariaz aipatutako txostena da, eta Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 25.1 artikuluan ere badago, baita orain errepikatu behar ez ditugun legegintzako eta erregelamenduzko beste xedapen batzuetan ere.

18. Aurrekoa ezarrita, honako galdera hau egin behar dugu, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak egiten duen modu berean: Beharrezkoa al da Kontrol Ekonomikoko Bulegoak beste txosten bat egitea Gobemu Kontseiluak jada onartutako Legearen proiektu bati buruz? Edo aski izan liteke aldez aurretik egindako txostenarekin? Zuzendaritza horren irizpide juridikoa honako hau da:

Lehena.- Ekonomia- eta arau-kontrol horren gaineko araudiak ez du berariaz xedatzen gaiari berriz heldu beharra dagoenik. Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen (ekainaren 30eko 14/1994) 27.1 artikuluak *in fine* baino ez ditu aipatzen Aholku Batzorde Juridikoak irizpena eman behar duen kasuak, eta, organo hori irizpena ematen azkena denez, *«Kontrol Ekonomikoko Bulegoari jakinarazi beharko zaizkio organo aholku-emaile horren irizpenak jasotako iradokizun eta proposamenen ondorioz lege-aurreproiektuetan eta arau-proiektuetan egin daitezen aldaketak, onartu baino lehen».* Hau da, gehitutako aldaketa baino ez dute jakinarazi beharko, bestelako izapiderik gabe. Ez da irizpen berri bat formalizatu behar.

Bigarrena.- Aholku Batzorde Juridikoaren iritziz ez bada bidezkoa Gobernu Kontseiluak jada onartuta eta Legebiltzarrera igorrita dagoen Legearen proiektu bat berriz igortzeari buruzko irizpena ematea, bidezko ere ez dirudi Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin dezan. Eta Aholku Batzorde Juridikoak Legearen proiektu horri buruzko irizpena eman behar duela erabakiko balu ere, ez dirudi bidezkoa denik Kontrol Ekonomikoko Bulegoak irizpena ematea, haren irizpena edo iritzia, baita erantsitako aldaketak ere, halakorik balego, egoki diren legezko ondorioetarako jakinaraz diezazkioten alde batera utzi gabe.

III.- AURREKO LEGE-PROIEKTUAREN ARAU-BIDERAGARRITASUNA. AURREKO LEGE-PROIEKTUAREKIN EGINDAKO ADMINISTRAZIO-IZAPIDEEN INDARRALDIA

19. Adierazi dugu jada Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Gobernu Kontseilura aurkez dezakeela Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektua, aurreko Gobernu Kontseiluan, 2016ko urtarrilaren 26ko bilkuran, onetsi zena. Aurreko Legearen Proiektuaren arau-bideragarritasuna baieztatu behar du horretarako, hots, igorri ondoren onartutako arauek ez diotela eragin.

20. Gure iritziz, Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektuak, Gobernu Kontseiluak 2016ko urtarrilaren 26an onetsi zuenak, ez du eraginik izan igorri ondoren onartutako arauen aldetik. Gobernu Kontseiluak onartu zuenetik urtebete baino apur bat gehiago igaro da eta Estatuan eta EAEn deitutako hauteskundeen ondorioz lege-jarduerarik ez da izan aldi batez; hala eta guztiz ere, 2017ko otsailaren 18an, Estatuko Aldizkari Ofizialean honako hau argitaratu zen: otsailaren 17ko 3/2017 Errege Lege Dekretua, ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoa (kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzkoa) aldatzen duena, eta 2015eko Dopinaren aurkako Mundu Kodeak sartutako aldaketetara egokitzen dena. Eta 2017ko martxoaren 18an aipatutako Errege Lege Dekretua baliozkotzeko erabakia, Diputatuen Kongresuak hartua, argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

21. Aipatutako Errege Lege Dekretu horren zioen azalpenean Estatuko legeria-aldaketaren aurrekariak eta helburuak laburbiltzen dira, eta horiek dira, funtsean, Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektuak bilatzen zituenak; EAEko legeria nazioarteko araudira egokitzea, alegia:

«Eguneratze horiek, ordea, aurki motz gelditu ziren gure araudia gero eta indartsu eta zorrotzagoa den nazioarteko legeriara egokitzeko. Egoera horrek Osasuna Babesteko eta Kiroleko Dopinaren Aurkako Lege Organikoa (azaroaren 21eko 7/2006) onartzea ekarri zuen, eta hura aldarrikatzea dopinaren aurkako borrokaren historiaren funtsezko mugarri bat izan zen gure antolamendu juridikoan. Lehen arau hark xedapen-sistema oso bat jasotzen zuen, eta adierazten zuen dopina babestu beharreko hainbat ondasun juridikori eragiten zien gaitza zela; horien artean kirolarien osasuna, kiroleko joko garbia eta haren dimentsio etikoa zeuden, besteak beste.

Nazioartean segidan izan ziren aldaketek mugarria izan zuten, Legea aldarrikatu eta hilabete gutxi batzuetara, Unescoren kiroleko dopinaren aurkako Nazioarteko Hitzarmenaren berrespenean; Munduko Kodearen printzipioak jaso zituen horrek, eta gai horri buruzko nazioarteko araudia harmonizatzeko aukera eman zuen horrela. Dopinaren aurkako borrokan hainbat betebehar jarri zizkien testu horrek berau berretsi zuten Estatuei; besteak beste, Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen eraginkortasuna bermatu beharra zuten estatu kideek.

Dopinaren Mundu Kodea 2009ko urtarrilean aldatuta, ordutik Espainiako testuaren eta Kodearen xedapen berrien artean azaleratuko ziren arau-inkongruentziak zirela kausa, beharrezko jo zen lege berri bat aldarrikatzea, 2006ko aurrekoa ordez zezan eta nazioarteko testuen eskaera eta arau berriei erantzuna eman ziezaien. Espainiako Araudia Dopinaren Aurkako Munduko Kodera nahitaez egokitu beharrak egoera hori arinduko zuten lege-arloko neurri berriak hartzea ekarri zuen, eta, era horretan, ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoa (kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzkoa) onartu zen.

Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen idazketa berri bat jarri zen indarrean 2015ean, alabaina, eta aldendu egin zuen Espainiako araudia berriz ere Unescoren kiroleko dopinaren aurkako Nazioarteko Hitzarmenak aldarrikatzen duen sistema harmonikotik. Eta hori, nahiz eta, 2013ko Legea idazteko orduan, taxutzen ari ziren Dopinaren Aurkako Munduko Kodeari zegokionez orduan zeuden zirriborroak aintzat hartu zituzten.

Espainiako legegileek 2013an aintzat hartu zituzten azken zirriborroen aldean Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen azken testuan zeuden aldaketen ondorioz, urte eta erdian baino ez da atxiki irrikatutako harmonizazio eta kontzertu hura.

Jarduneko gobernuaren aldi luzean zehar –2016an– behar zen lege-erreforma Gorte Nagusietara igorri ezin izan bazen ere, Munduko Kodearen berritasunen berri ematearren, 2016ko martxoaren 11ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen azken bertsioa, eguneratuta eta, 2015eko urtarrilaren 1etik indarrean, Parisen 2005eko azaroaren 18an eginiko Kiroleko Dopinaren Aurkako Nazioarteko Hitzarmenaren 1. eranskina baitzen.

Oraingoan, 2015eko Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen idazketak barnean hartutako arau berriak aplikatuta, hain zuzen ere, desadostasun horrek, ondorio modura, Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak "kodea ez betetzea" formalki deklaratzea ere eragin du, haren 23. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Hori dela eta, legea aldatu beharra dago jatorrizko idazketan aurreikusi ezin izan ziren alderdiak, gutxi batzuk, 2013ko testuan jaso ahal izateko; horrelakoak Munduko Kodean azkenean sartzeak bi legerien arteko diskordantzia ekarri baitu.

Hori horrela, Gobernuak araudian premiaz eta ezohiko eran esku hartzea guztiz justifikatuta dago Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen bertsio berria barneko araudira ez gehitzeak izandako eraginen garrantziagatik, horrek, izan ere, zuzeneko eragina du kirolaren arloko politika publikoak antolatu, planifikatu eta garatzeko maila guztietan, baita kirolaren jardun profesional eta amateurrean zein kirolean aritzen direnen osasunerako eskubidean ere. Hortaz, araudian esku hartzeak saihestu egiten ditu Kodea ez eransteak kirola eta kirolarien osasuna sustatzeari lotutako interes orokorrean eragingo zituzkeen berehalako kalteak. Gizarteak, izan ere, biziki bultzatu ditu balio horiek azken urteotan, eta gero eta baliabide handiagoak bideratzen ditu horretara banako zein gizartearentzat duen garrantziagatik».

22. Hots, Estatuko legegileak zioen azalpen horretan adierazten du, hain zuzen ere, lege-aldaketa berri bat egin beharra zegoela 3/2013 Lege Organikoaren testuaren barruan nazioarteko araudiarekin bat ez zetozen alderdiak, gutxi batzuk, sartzeko; 2015ean Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen idazketa berri bat jarri baitzen indarrean, eta horrek berriz ere aldentzen zuen Espainiako araudia UNESCOren kiroleko dopinaren aurkako Nazioarteko Hitzarmenak aldarrikatzen duen sistema harmonikotik.

23. 3/2013 Lege Organikoa aldatzeak ez dio eragiten Gobernu Kontseiluak 2016an onetsi zuen Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektuari, hainbat arrazoirengatik:

Lehena.- Eusko Legebiltzarrak Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea onartu ondoren, Estatuak ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoa (kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzkoa) onartu zuen, zeinak «Estatuaren eskumena aldarrikatzen zuen bere antolaketari buruzko manuak emateko, bai eta Estatuko kirol federatuaren interesei dagozkienak emateko ere». EAEko 12/2012 Legeak ez zion Estatuko antolaketari heltzen, eta ez zuen Estatuko kirol federatuan eraginez arautzen. Horregatik, 3/2013 Lege Organikoa onartu ondoren, haren azken xedapenetatik bigarrenean aipatutako manu batzuen izaera organikoa gorabehera, Lege Organikoak Eusko Legebiltzarraren 12/2012 Legea egokitzera behartzen ez zuela jo zen; bi legeak eremu objektibo eta subjektibo bereizietan proiektatzen dira. Izan ere, Aholku Batzorde Juridikoak, 5/2016 Irizpena, Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektuari zegokienez, honako hau adierazi zuen: «Funtsean, indarreko Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aipatutako munduko kode berrira (Johannesburgon, Hegoafrikan, 2013ko azaroaren 12tik 15era egin zen Dopinaren aurkako Munduko IV. Konferentzian onartu zena eta 2015eko urtarrilaren 1ean sartu zena indarrean) egokitzeko betebeharrari erantzuten dion aldaketa bat da» eta horregatik «testuak, aurrez adierazitakoa transkribatzera mugatzen den neurrian, ez du hura gai horretan indarrean den ordenamenduan behar bezala txertatzea eragozten duen ezadostasunik».

Bigarrena.- Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektuak erabiltzen duen literatura 3/2017 Errege Lege Dekretuan erabilitakoarekin ez datorrela bat egia izanik ere, egia ere bada indarrean den EAEko 12/2012 Legearen literatura ere ez datorrela bat 3/2013 Lege Organikoarenarekin, Errege Lege Dekretua 2017an onartu aurreko idazketan. Eta Gobernu Kontseiluak, 2016ko urtarrilaren 26ko bilkuran, Aholku Batzorde Juridikoaren aldeko irizpenarekin, onartutako lege-proiektua ere ez zetorren bat aurreko 3/2013 Lege Organikoarekin, eta horrek baieztatzen du eskumen-titulu ezberdinekin emandako bi arau-

gorputz direla, Estatukoa eta autonomiakoa, eremu subjektibo eta objektibo bereiziak ere badituztenak.

Hirugarrena.- Legeria nazioarteko esparrura, Dopinaren Aurkako Munduko Kodera zehazki, harmonizatzeko helburua betetzen saiatzen dira bi legegintza-testuak, Gobernu Kontseiluak 2016ko urtarrilaren 26an onartutako lege-proiektua eta otsailaren 17ko Errege Lege Dekretua. Testu bereiziak erabili dituzte horretarako, baina sinatu duten herrialdeek ere egin dituzte egokitzapenak legegintza-testu oso bereiziekin.

24. Aurretik esandakoa alde batera utzi gabe, gure egiten dugu Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak adierazitakoa, hots: «*Antolamenduaren gainean ondoren egindako balizko aldaketa batek, proiektuari eragiten dionak, duen garrantzia ere erlatiboki aztertu behar da, lege-proiektua, prozedura parlamentario bilakatu eta ganberara igorri ondoren ere, izapidetu behar baitute egoitza horretan. Horien barruan, azken onespena eman eta Lege bihurtu aurretik, zuzenketak egin diezazkiokete Ganberan; eta, horrenbestez, une horretan ere egin ahal izango dira bidezkoak diren egokitzapenak».* Hau da, Legearen proiektua **antolamenduaren gainean gerora egindako balizko aldaketa** batera egokitzeko proposamenak ere izapidetu daitezke parlamentuko zuzenketen bitartez.

25. Aurretik esandako guztia gorabehera, ondorioztatu beharra dago indarrean direla Kiroleko Dopinaren Aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Legearen proiektua onartzeko orduan –Gobernu Kontseiluak 2016ko urtarrilaren 26ko bilkuran onetsita– egin ziren administrazio-izapide guztiak.

FIRMADO DIGITALMENTE POR:

Firmante: **JON REDONDO LERTXUNDI**
Fecha de la firma: **26/01/2016 9:32:31**
Validación de la firma: **Correcta**

MEMORIA DEL ANTEPROYECTO DE LEY DE MODIFICACIÓN DE LA LEY CONTRA EL DOPAJE EN EL DEPORTE

1.- OBJETIVO PERSEGUIDO CON LA REGULACIÓN PROPUESTA

Las prácticas de dopaje constituyen una vulneración de los principios fundamentales de la ética deportiva. Pero el fenómeno del dopaje, además de constituir un grave engaño deportivo, se ha convertido en un conjunto de prácticas que pueden ser muy peligrosas para la salud pública, y especialmente para la vida de los deportistas más jóvenes, que son los protagonistas habituales del deporte de rendimiento. El dopaje ha sobrepasado el marco exclusivo de la ética deportiva para convertirse en un auténtico problema de salud pública, tal y como reconocen todos los organismos internacionales, especialmente en la Unión Europea. El recurso a sustancias o métodos prohibidos contradice la finalidad misma del deporte y en la mayoría de las ocasiones atenta contra la propia salud. El dopaje simboliza la antinomia del deporte y de los valores y fundamentos que siempre se han predicado del mismo.

En este contexto, el Parlamento Vasco aprobó la Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el Dopaje en el Deporte, Este Parlamento Vasco aprobó la Ley 12/2012, de 21 de junio, que se basó en los principios comúnmente aceptados por los organismos internacionales más avanzados en la lucha de contra el dopaje en el deporte. La estructura piramidal del deporte de competición y la interrelación de las competiciones deportivas en sus distintos ámbitos y niveles territoriales exigía un marco jurídico común en la lucha contra el dopaje en el deporte.

Sin embargo, en la IV Conferencia Mundial Antidopaje que se celebró en Johannesburgo, Sudáfrica, los días 12 a 15 de noviembre de 2013, con asistencia de una representación del propio Gobierno Vasco, se aprobó un nuevo Código Mundial Antidopaje que entrará en vigor el 1 de enero de 2015. Por ello, el anteproyecto que se pretende elaborar responde a la obligación de adecuar la vigente Ley 12/2012, de 21 de junio, al citado nuevo Código Mundial.

La iniciativa normativa viene a garantizar el principio de seguridad jurídica en la medida que se desea crear en el ya complejo ámbito jurídico de la lucha contra el dopaje un entorno de certidumbre y evitar colisiones con el marco jurídico internacional, que demanda una armonización. Tras la aprobación, por la UNESCO, en su sesión de 19 de octubre de 2005, de la Convención Internacional contra el Dopaje en el Deporte, que fue ratificada por España y publicada en el Boletín Oficial del Estado, dicha Convención Internacional forma parte de nuestro ordenamiento jurídico interno, conforme a lo dispuesto en el artículo 96 de la Constitución. Aunque el texto del Código Mundial Antidopaje no forma parte integrante de la Convención, ésta establece expresamente, con miras a coordinar en el plano nacional e internacional las actividades de lucha contra el dopaje en el deporte, la obligación de las legislaciones nacionales de respetar los principios del Código.

Asimismo, debe señalarse que otro de los objetivos de la iniciativa normativa es aprovechar la modificación de la Ley 12/2012 para reconocer expresamente a la Agencia Vasca Antidopaje como el órgano especializado encargado de desarrollar las funciones atribuidas en el artículo 10 de la Ley 12/2012 a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, encarnando la representación de la organización antidopaje en el País Vasco. La Agencia Vasca Antidopaje ya figura expresamente reconocida en el Decreto 193/2013, de 9 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de este Departamento, como un servicio de la Dirección de Juventud y Deportes.

Por último, el texto incorpora el contenido del Acuerdo de la Comisión Bilateral de Cooperación Administración del Estado-Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en relación con la Ley del País Vasco 12/2012, de 21 de junio, contra el Dopaje en el Deporte.

2. - SECTORES SOCIALES QUE RESULTAN AFECTADOS

Las prácticas de dopaje constituyen una vulneración de los principios fundamentales de la ética deportiva. Pero el fenómeno del dopaje, además de constituir un grave engaño deportivo, se ha convertido en un conjunto de prácticas que pueden ser muy peligrosas para la salud pública, y especialmente para la vida de los deportistas más jóvenes, que son los protagonistas habituales del deporte de rendimiento. El dopaje ha sobrepasado el marco exclusivo de la ética deportiva para convertirse en un auténtico problema de salud pública, tal y como reconocen todos los organismos internacionales, especialmente en la Unión Europea. El recurso a sustancias o métodos prohibidos contradice la finalidad misma del deporte y en la mayoría de las

ocasiones atenta contra la propia salud. El dopaje simboliza la antinomia del deporte y de los valores y fundamentos que siempre se han predicado del mismo.

Tal y como se constata en el documento *Modelo de Deporte Europeo*, elaborado en el seno de la Comisión Europea, tanto en el deporte profesional como en el aficionado existe actualmente un extraordinario clima competitivo donde el creciente uso de sustancias y métodos prohibidos para aumentar el rendimiento de los deportistas se ha convertido en uno de sus principales problemas. El desarrollo progresivo que va experimentando el dopaje resulta inquietante tanto desde el punto de vista cualitativo como cuantitativo. Por un lado, los estudios revelan que es considerable el número de deportistas que recurren a métodos y sustancias prohibidas y, por otro lado, las prácticas de dopaje ya no son la expresión de un comportamiento individual de los deportistas, sino el resultado de acciones organizadas y de mercados.

En consecuencia, la regulación propuesta afecta a la sociedad en general y al sector deportivo, en particular.

3.- PRESUPUESTOS JURÍDICOS HABILITANTES DE LA NORMATIVA PROPUESTA

El Parlamento Vasco a través de la Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el dopaje en el deporte ya reguló esta materia en el ejercicio de su plena competencia tal y como se menciona en el apartado 4 de esta memoria.

Con el presente Anteproyecto se pretende la modificación del citado texto normativo como consecuencia de la obligatoria adaptación de la normativa antidopaje al marco jurídico internacional, concretamente al Código Mundial Antidopaje.

4.- FUNDAMENTO DE LA COMPETENCIA DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA PARA INICIAR LA TRAMITACIÓN DEL ANTEPROYECTO

Respecto a la primera cuestión, se atiende la sugerencia, y se modifica la redacción de algunos apartados posteriores a los tres primeros al objeto de evitar contradicciones o cualquier problema de interpretación. Los tres primeros apartados establecen las reglas generales de imposición de sanciones y los apartados posteriores establecen modulaciones o excepciones en base a circunstancias especiales. Respecto a la expresión "*cuando la infracción involucre una sustancia*" se procede a sustituir por "*cuando la infracción esté relacionada con una sustancia*".

El informe de la citada Dirección de Régimen Jurídico, en relación con el **artículo 24 bis**, propone la revisión del **apartado 2**, proponiendo una simplificación y especialmente del último inciso que, a su juicio, no es gramaticalmente correcto. La frase a corregir es la siguiente: "*En estos casos el periodo de suspensión será de ocho años hasta la suspensión a perpetuidad*".

No se formula objeción alguna a tal sugerencia y se redacta dicho apartado en los siguientes términos: "La existencia de una tercera infracción de las normas antidopaje siempre dará lugar a la suspensión a perpetuidad, salvo que la tercera infracción suponga una infracción del deber de localización y reúna las condiciones de anulación o reducción de sanciones. En estos casos el periodo de suspensión será, como mínimo, de ocho años".

También se sugiere revisar la redacción del **apartado 4**. Se acepta tal sugerencia y se incorpora la siguiente redacción: "*Una infracción de las normas antidopaje sólo se considerará segunda infracción si se acredita que la persona ha cometido la infracción tras haber recibido notificación de la primera infracción o después de que la organización antidopaje se haya esforzado razonablemente para presentar esa notificación*".

En el **artículo 29** de la Ley 12/2012 se han añadido a través del Anteproyecto los apartados 4 y 5. La Dirección de Régimen Jurídico y Servicios señala en su informe que no se entiende la redacción dada al **apartado 4**. Asimismo, se indica que en la Memoria se argumenta que no existe incidencia en los presupuestos de la Administración General de la Comunidad Autónoma, a pesar de que los nuevos tipos infractores va a suponer la interposición de las correspondientes sanciones y ello se va a traducir en ingresos para la Administración Pública.

El **apartado 4**, recogiendo literalmente lo establecido en el Código Mundial Antidopaje, dispone que *"solamente se podrán imponer sanciones económicas en los casos que el periodo máximo de suspensión ya se haya impuesto de otro modo*". Se sugiere suprimir el inciso final "*de otro modo*". Lo que pretende la Agencia Mundial Antidopaje es reservar la sanción pecuniaria a los supuestos en los que ya se haya impuesto el periodo máximo de suspensión.

Respecto a la repercusión de tres nuevos tipos de infracción con las consiguientes sanciones y la traducción en nuevos ingresos para la Administración Pública, hay que señalar que, no existe ningún dato o indicio de que los nuevos tipos infractores van a generar mayores ingresos del mismo modo que tampoco existen datos o indicios para concluir que la limitación de la posibilidad de imponer sanciones pecuniarias –sólo en los casos en que el periodo máximo de suspensión se haya impuesto- va a suponer un decremento de ingresos.

El artículo 30, apartado 1, dispone, en consonancia con el artículo 10.8 del Código Mundial Antidopaje, que las consecuencias sancionadoras se pueden modular "*por razones de equidad*". En el informe se recomienda la revisión de tal inciso por entender que no conviene dejar espacios abiertos a la indefinición jurídica.

En opinión de esta Dirección de Juventud y Deportes, el texto del Anteproyecto transcribe literalmente la dicción del Código, al que no debe sustraerse. Por otra parte, diversas leyes vigentes ya contemplan, en el apartado del régimen sancionador, tal invocación al principio de equidad. Un ejemplo de ello es el artículo 93 de la Ley 13/2003, de 17 de diciembre, de Defensa y Protección de los Consumidores y Usuarios de Andalucía, cuando se refiere a la condonación, que se podrá acordar cuando "*se den circunstancias que hagan que el cumplimiento de la sanción en sus propios términos <u>atente contra la equidad</u> o perjudique a los intereses generales*". En los mismos términos literales, por ejemplo, el artículo 98 de la Ley 24/1988, de 28 de julio, del Mercado de Valores, o la Ley 35/2003, de 4 de noviembre, de Instituciones de Inversión Colectiva. Tampoco se puede omitir que una consolidada doctrina del Tribunal Supremo viene aplicando, en materia de sanciones, el principio de equidad. Léase, *inter alia*, la Sentencia del Tribunal Supremo, Sala Tercera, de 26 de enero de 2015: " *(...) la sanción impuesta (...) aún cuando está comprendida dentro del rango que la propia norma establece, resulta desproporcionada en relación con las circunstancias concretas del caso, considerando esta Sala que la misma debe atemperarse aplicando el <u>principio de equidad</u> o mitigación del rigor de la norma*".

En relación al **artículo 31 bis**, que se refiere al estatus durante una suspensión de licencia, por parte del informe se propone clarificar si la referencia a las y los deportistas se circunscribe a deportistas con licencia o se refiere a cualquier deportista, con o sin licencia. Asimismo, se advierte una errata cuando el texto se refiere a "*el o la persona sancionada*".

La errata advertida por el citado informe debe corregirse y, asimismo, se modifica el texto dejando claro que la suspensión también debe afectar a las personas que no ostentan licencia. Se añade un apartado cuarto en el que se establece que las

previsiones contenidas en el artículo 31 bis también se aplicarán a las y los deportistas sin licencia que hayan sido sancionados con la imposibilidad temporal de obtención de licencia, pues esta sanción se encuentra contemplada expresamente en la Ley 12/2012.

En relación al **artículo 34** se propone corregir la referencia a "*otra persona*".

No se formula objeción a tal sugerencia pues resulta totalmente acertada. Se sustituye aquella expresión por "*una persona*".

Asimismo, el informe dice que el nuevo texto suprime el plazo de prescripción de sanciones.

Es acertada dicha observación pues el nuevo texto del Anteproyecto omite involuntariamente dos párrafos de la Ley 12/2012, que conviene mantener.

En relación al **artículo 37** del Anteproyecto, que regula la competencia en materia de procedimientos disciplinarios, la Dirección de Régimen Jurídico y Servicios considera que los nuevos textos incluidos se basan en el artículo 7.1 del Código Mundial Antidopaje. En consecuencia, considera que este artículo 7.1 no se refiere exclusivamente a aquellas entidades con potestad disciplinaria en relación con sus miembros, sino también a la potestad administrativa sancionadora.

Se acepta el argumento y por ello se añade un tercer apartado en el **artículo 36** –dedicado a la potestad administrativa sancionadora- con tal aclaración.

Respecto al **apartado 6** del **artículo 37** también es objeto de una observación por parte de dicha Dirección. Se revisa la redacción y se corrige alguna incorrección gramatical.

Igualmente considera que el **apartado 5** no se entiende.

El apartado 5, que no se modifica en el Anteproyecto, establece que el vencimiento del plazo de tramitación del procedimiento para la imposición de sanciones produce la caducidad del procedimiento. Y el plazo de seis meses para la tramitación incluye tanto la vía disciplinaria federativa como la administrativa posterior tras la avocación de la competencia si la federación correspondiente no ha resuelto en el plazo de dos meses (o tres con la prórroga).

La Asesoría Jurídica también formula una observación gramatical respecto al verbo "*retiran*", en el **apartado 10**, que debe ponerse en singular. Se acepta.

Los artículos 38 bis y 38 ter abordan la divulgación de sanciones y la revisión de resoluciones en materia de dopaje. Sobre tales preceptos el informe formula diversas observaciones.

Respecto al **artículo 38 bis** reseña que la Agencia Española de Protección de Datos ya ha analizado en varias ocasiones la posibilidad de divulgación de las sanciones impuestas a los deportistas por la comisión de infracciones en materia de dopaje. Tal Agencia ha ido señalando una serie de requisitos para tal difusión. Por ello, se propone que el texto del Anteproyecto haga mención a todos los requisitos.

Contrastando los citados requisitos con el texto propuesto en el Anteproyecto se constata que la mayoría de ellos se encuentran expresamente explicitados y sólo se añade la mención de que la persona sancionada sea informada acerca de la publicación así como la mención a que se adopten medidas para que la información publicada en Internet no pueda ser captada o indexada a través de motores de búsqueda. No obstante, aún cuando esta Dirección de Juventud y Deportes considera que tales menciones expresas no son preceptivas pues, por ejemplo, no tiene sentido que se le informe al deportista de una obligación legal de publicación de sanciones, no formula objeción para atender dichas recomendaciones.

Respecto al **apartado 3** se recomienda la revisión de la redacción del texto en relación a la conjunción copulativa "*y*".

Resulta acertada tal observación y se corrige.

Respecto al **artículo 38 ter** se indica que el texto no respeta el principio de prohibición de la *reformatio in peius* de tal modo que con ocasión de la revisión instada por el deportista sancionado no puede agravarse su situación inicial.

El Anteproyecto realmente recoge la dicción literal del Código Mundial Antidopaje, pero no hay inconveniente para que el texto se adapte al dicción del artículo 113.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

Respecto a las disposiciones transitorias, el informe formula dos observaciones, que son aceptadas. En la medida que el texto contiene dos disposiciones transitorias debería ponerse el título en plural.

La segunda observación es que la primera disposición establece que las infracciones que se hayan cometido antes de la entrada en vigor de la nueva Ley se regirán por lo dispuesto en la normativa anterior salvo que la persona interesada opte voluntariamente por la aplicación de la nueva Ley. Se sustituye el inciso final por la tradicional cláusula de "*salvo que la regulación prevista en la nueva norma sea más favorable para las y/o los expedientados*".

VI.- CONSIDERACIONES DEL CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO.

El CESV, en su conjunto, "valora positivamente la oportunidad y la inclusión en el texto de las principales modificaciones del Código Mundial Antidopaje".
Asimismo, el CESV "ha querido resaltar la perspectiva de género y la utilización no sexista del lenguaje en la redacción de este anteproyecto como ejemplo de buena práctica y de cumplimiento de la Ley de Igualdad". No obstante lo anterior, el CESV formula unas breves consideraciones sobre el articulado que procede examinar a continuación.

La primera sugerencia que formula el CESV consiste en completar el párrafo tercero de la exposición de motivos en los términos siguientes:
"En este marco de armonización, durante los días 12 a 15 de noviembre de 2013, se desarrolló en Johannesburgo, Sudáfrica, la IV Conferencia Mundial Antidopaje en la

que participaron representantes de las organizaciones deportivas y de estados y donde se aprobó el nuevo Código Mundial Antidopaje, tercera versión del mismo, que ha entrado en vigor el pasado 1 de enero de 2015".

A juicio del CESV parece razonable incorporar la mención de que el nuevo Código Mundial Antidopaje constituye la tercera versión del mismo. Por parte de esta Dirección no se formula ninguna objeción jurídica a tal aportación.

Solamente conviene añadir respecto a dicho párrafo que, a la vista de la tramitación administrativa del Anteproyecto, la referencia que en este párrafo se hace a que el nuevo Código "ha entrado en vigor el pasado 1 de enero de 2015" deberá sustituirse por el siguiente texto: "...entró en vigor el 1 de enero de 2015" pues, presumiblemente, la Ley no se va a aprobar antes del 1 de enero de 2016.

En relación con el artículo 21.1 del Anteproyecto, sobre potestad sancionadora administrativa, a juicio del CESV, si bien el concepto de "relaciones de especial sujeción" se mantiene en la redacción de ambos textos (el anterior y el de la propuesta de modificación), sugiere su eliminación. En su opinión, se trata de una expresión que plantea numerosos problemas porque no tiene una acepción unívoca, y ni la doctrina ni los Tribunales se ponen de acuerdo a la hora de definir qué tipo de personas se hallan en relaciones de este tipo. Además, no parece que añada nada pues considera que el contenido de la frase no varía si se suprime la citada expresión.

Sin embargo, esta Dirección considera que debe mantenerse tal matización por las siguientes razones:

Primera.- El artículo 21 del Anteproyecto –y de la vigente Ley 12/2012-, se refiere expresamente al ámbito del "régimen administrativo sancionador" que, a diferencia del régimen disciplinario, no requiere la existencia de un vínculo o relación de especial sujeción. La potestad sancionadora general de la Administración es consecuencia de un ordenamiento jurídico-administrativo que es necesario tutelar y es una potestad correctiva por incumplimiento de los deberes de todos los ciudadanos, teniendo su fundamento en la protección del orden social general (heterotutela), mientras que la potestad disciplinaria conlleva una potestad correctiva sobre personas especialmente sometidas a un vínculo o relación con la organización deportiva correspondiente (autotutela). El artículo 21 de la vigente Ley 12/2012 y del Anteproyecto no hace más que clarificar esa diferenciación de potestades, habida cuenta de las erróneas resoluciones judiciales pronunciadas en el País Vasco con ocasión de la imposición, por el Gobierno Vasco, de sanciones administrativas en materia de dopaje. Sirva de ejemplo la sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, 586/2009, de 9 de julio, que afirmaba que "el Gobierno Vasco carece de competencia a la hora de imponer a los deportistas sanciones administrativas en materia de dopaje" al considerar que la Administración no ostenta tal potestad por estar atribuida, por delegación a las federaciones deportivas, confundiendo de forma ostensible la potestad disciplinaria y la potestad administrativa general. En el mismo sentido, la sentencia del mismo Tribunal 488/2009, de veinte de julio.

Segunda.- La expresión “relaciones de especial sujeción” es comúnmente admitida en nuestro ordenamiento jurídico e, incluso, por el Tribunal Constitucional en numerosas sentencias. Aunque el concepto de relación especial de sujeción es de por si impreciso (STC 61/1990), como tantos otros conceptos jurídicos, no puede ponerse en duda su contenido o significado esencial.

Tercera.- La propia Asesoría Jurídica del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura, en su informe de junio de 2015, sobre este Anteproyecto, propone una redacción alternativa que incluye la mención expresa a las relaciones de especial sujeción.

Cuarta.- Esta propuesta normativa de la Ley 12/2012, y que se mantiene en el Anteproyecto, no fue cuestionada durante la tramitación de aquella Ley.

Respecto al artículo 22.bis, sobre la suspensión provisional, el CESV recomienda completar la redacción del párrafo tercero de este artículo como se indica:
“3. El tiempo de suspensión provisional no podrá exceder de seis meses salvo en el caso de paralización o dilación del procedimiento por causa imputable a la persona suspendida. En todo caso, el periodo de Suspensión Provisional del Deportista se deducirá del de la sanción que se le imponga o sea aceptada.”

La justificación de tal aportación es que el texto debe encontrarse en consonancia con el artículo 7.9.2 del Código Mundial Antidopaje, que dice textualmente que “*el periodo de Suspensión Provisional del Deportista se deducirá del de la sanción que se le imponga o sea aceptada definitivamente según el Artículo 10.11.3 o 10.11.4*”. De no computarse esta circunstancia, según el CESV puede ocurrir que al final la persona deportista sea sancionada doblemente, pues a la suspensión cautelar se suma otra posible suspensión definitiva.

A este respecto, esta Dirección no formula objeción a tal aportación, aunque es importante advertir que ya se encuentra vigente en nuestro ordenamiento jurídico, toda vez que el artículo 39.8 de la Ley Orgánica 3/2013, de 20 de junio, de protección de la salud del deportista y lucha contra el dopaje en la actividad deportiva, disposición de carácter básico a tenor de su Disposición Final Primera, establece que en caso de “*que se adopte la suspensión provisional prevista en el art. 38 de esta Ley, la duración de la misma se deducirá del plazo de suspensión finalmente expuesto, siempre y cuando se respete dicha suspensión*”.
Se sugiere incorporar, en el supuesto de que finalmente se considere necesario, esta redacción de la Ley Orgánica.

Por último, el CESV sugiere completar la redacción del nuevo apartado 1.m del artículo 23, sobre tipificación de infracciones, en los siguientes términos:
“m) La acción de asistir, alentar, ayudar, incitar, colaborar, conspirar, encubrir o cualquier otro tipo de complicidad intencional en relación con una infracción de las normas antidopaje o cualquier intento de infracción”

La justificación del CESV es que la redacción propuesta es más amplia, concreta y precisa, al añadirse el elemento de intencionalidad que el texto propuesto no contempla. Se recoge el tenor literal del artículo 2.9 del Código Mundial Antidopaje rubricado "Complicidad", que dice textualmente "asistir, alentar, ayudar, incitar, colaborar, conspirar, encubrir o cualquier otro tipo de complicidad intencional en relación con una infracción de las normas antidopaje o cualquier Intento de infracción de las normas antidopaje o infracción del Artículo 10.12.1 por otra persona". El artículo 10.2.3 del Código Mundial Antidopaje establece que "conforme se establece en los artículos 10.2 y 10.3, el término intencional se emplea para los deportistas que engañan".

Sin embargo, esta Dirección considera que tales acciones propuestas ya están contempladas en la vigente Ley. Por ejemplo, se propone añadir el verbo "colaborar" cuando la letra j ya se refiere a la "colaboración".

Asimismo, se propone añadir el verbo "incitar" cuando la letra i ya contempla la "incitación". Del mismo modo, se propone añadir "alentar" o "ayudar" cuando el artículo 23.1 se refiere a la "promoción", "instigación", "facilitación", etcétera. Es decir, incluso, el texto vigente ya emplea sinónimos o términos más omnicomprensivos. La inclusión de los verbos propuestos por el CESV resultaría redundante.

VII. CONSIDERACIONES DE LA COMISIÓN JURÍDICA ASESORA

Se han aceptado todas las consideraciones salvo la relativa a la modificación completa del artículo 24 dado que la premura de tiempo con la que se ha de tramitar el presente anteproyecto impide un estudio detallado de las propuestas realizadas por el órgano asesor. Estudio necesario para evitar contradicciones y la pérdida de sistematicidad.

Jon Redondo Lertxundi
Director de Juventud y Deportes

DOPINAREN AURKAKO LEGEA ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUARI EGINDAKO ALEGAZIOEN ETA TXOSTENEN BALORAZIOA

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak egindako aurreproiektua haren eraginpean egon daitezkeen erakundeei bidali zitzaien, entzunaldiko izapidea betetzeko.

Horrez gain, 2015eko otsailaren 18an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2015eko otsailaren 6ko Ebazpena argitaratu zen, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, dopinaren aurkako legedia Dopinaren aurkako Mundu Kodera egokitzeari buruzko Legearen aurreproiektua jendaurrean jartzen duena.

Entzunaldia amaituta, jarraian aztertuko ditugun alegazio hauek jaso dira:

I.- BIZKAIKO MEDIKU-ELKARGOAREN ALEGAZIOAK.

Bizkaiko Mediko Elkargoaren aholkularitza juridikoak txostena igorri zigun, 2015eko otsailaren 21ean, eta hartan adierazten denez, elkargoaren ikuspegitik ez dago inolako eragozpenik aurreproiektuari dagokionez. Txosten horretan ez da proposamenik egiten ez zerbait eransteko, ezta zerbait kentzeko edo aldatzeko ere, eta, beraz, ez dago ezer esan beharrik alderdi juridikotik.

II.- HERRI-ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN ALEGAZIOAK.

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak ekainaren 21eko 12/2012 Legean beste xedapen bat txertatzea proposatzen du, bermatzeko pertsona fisikoek zein pertsona juridikoen ordezkariek euskara eta gaztelera erabili ahal izango dutela, ahoz zein idatziz, eta hizkuntza horretan artatzeko eskubidea izango dutela bermatzeko. Eta 12/2012 Legearen 8. artikuluan beste paragrafo bat txertatzea proposatzen du, ezartzeko dopinaren aurkako kontroletan informazioa euskaraz edo gazteleraz jasotzeko eskubidea izango dutela, bai eta gogokoen duten hizkuntza ofiziala erabiltzekoa ere. Horrez gain, proposatzen du aholku-batzordeko kideek bileretan euskara eta gaztelania erabiltzeko aukera izatea, eta deialdiak, aztergaiak, aktak eta gainerako idatziak bi hizkuntzetan egitea. Azkenik, eta 12/2012 Legearen 42. artikuluari, kiroleko dopinari buruzko informazio-sistemari, dagokionez, proposatzen du xedapen bat sartzea, adierazteko informazioa euskaraz eta gazteleraz eskaini behar dela nahitaez.

Ekarpen horiei buruz, adierazi behar da gure iritziz proposatutako testuek ez dakartela ordenamendu juridikoaren berrikuntzarik; izan ere, 10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, 5. artikuluan jada ezartzen du

Euskal Herriko herritar guztiek dutela hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz. Eta, orobat, xedapen horretan ezartzen da Euskal Herriko herritarrek eskubidea dutela administrazioarekin edo Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitateekin harremanak euskaraz edo gaztelaniaz izateko, ahoz nahiz idatziz. Eta, azkenik, xedapen horrek ezartzen du herri-agintariek eskubide horiek erabiltzea bermatuko dutela autonomia-erkidegoko eremuan, eskubideak eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen. Bestalde, lege horren 6. artikuluak herritar guztiei aitortzen die, autonomia-erkidegoaren lurraldean, herri-administrazioarekiko harremanean euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartua izatekoa. Horretarako, lege horren xedapen horrek ezartzen du neurri egokiak hartuko direla eta beharrezko baliabideak bideratuko direla, eskubide hori arian-arian gauzatu dadin bermatzeko. Eta, antzera, 8. artikuluak xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko agintari publikoen esku-hartzea duten egintza guztiak, bai eta administrazio-jakinarazpen eta -komunikazio guztiak ere, ele bitan idatzi beharko direla, salbu eta interesdun partikularrek autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz aukeratzea erabakitzen badute.

IV.- DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ALEGAZIOAK.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak (aurrerantzean, DBEB) 2015eko martxoaren 9an egindako txostena aurkeztu zuen, bulegoko zuzendariak izenpetua.

DBEBk planteatzen duen lehen kontua da dopinaren kontrola eta dopina zigortzeko araubidearen **aplikazio-eremu subjektiboa**. Bulego horren iritziz, 12/2012 Legearen artikuluetatik —ez aurreproiektukoetatik— ondorioztatzen da legea hauei zaiela aplikagarri: kirolari federatuei, kirol-lehiaketa ez federatuetan parte hartzen duten kirolariei (eskola-lizentzia, unibertsitate-lizentzia edo inskripzioa dutenentzako lehiaketetan parte hartzen dutenei), bai eta lehiakoak ez diren kirol-jarduerak egiten dituztenei ere. Eta bulegoaren iritziz, Euskadin kirola egiten duten pertsona guztiei (haur zein heldu), hipotetikoki bederen, dopin-kontrola egiteko aukera ematen duen lege batek ez luke gainditukо kontrol-helburuaren eta pertsonen oinarrizko eskubide eta askatasunen arteko ezinbestekoa den proportzionalitate-printzipioa.

Horri dagokionez, adierazi behar da auzi hori ongi aztertu zela 12/2012 Legea egiteko eta izapidetzeko prozesuan. Legearen izapideetan, argi utzi zen legearen testuak lehiaketa-kirolarekin soilik lotzen zuela kirolaria eta dopina, izan lehiaketa ofiziala ala ez, federatua ala ez. Eta beste batetik, legeak berak ezartzen zuen erregelamendu bidezko garapenean zehaztuko zela federatuak ez diren zer lehiaketatan egin ahalko zaizkien dopin-kontrolak kirolariei. Etorkizuneko xedapen horiek, DBEBk ongi adierazten duten bezala, proportzionalitate-printzipioari jarraitu behar diote. 12/2012 Legearen zioen adierazpena atalean, oso ongi adierazten da aztergai dugun kontua: "*Legearen asmoa ez da dopin-kontrolak orokorrean aplikatzea kirola egiten duen edonori, eta, horregatik, ahalmena ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zerrenda bat presta dezan, beren mendeko kirolariei dopin-kontrolak*

egitea zilegi izango den federatu gabeko kirol lehiaketekin.Horren bitartez kontrol horren proportzionaltasuna zaindu nahi izan da, hau da, beren ezaugarri bereziengatik benetan kontrolatzekoak diren lehiaketetan baino ez egitea dopin-kontrola".

38 bis artikulu berriari dagokionez (zehapenak Interneten argitaratzeari buruzkoa da), DBEBk irizten du dopinaren aurkako zehapena Interneten argitaratzea zilegi egiten duela datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoaren 11.2 artikuluak, lege-mailako arau batek onartzen duelako. Dena den, DBEBk adierazten du 12/2012 Legeak ezartzen dituen zehapenak ohartarazpenetik hasi eta lizentzia betirako kentzea bitartekoak direla. Hona hemen ohartarazpena eragiten duen kasuetako bat: kirolariak, erabilera terapeutikoko baimena edukitzeko behar bezalako justifikazio medikoa izanik, ez badu eskatu, edo aurretik zuen baimenaren indarraldia iraungi egin bada. Eta bulegoak ez du ulertzen zer interes publiko dagoen ohartarazpena dakarren zehapen hori eta kirolariak erabili duen substantzia jendaurrean zabaltzeak, justifikazio medikoa badago. Horregatik, eta arrazoi gehiagorik ezean, bulegoak uste du informazio hori ematek ez lukeela gainditukо datuak babesteko legearen 4.1 artikuluan ezarritako proportzionaltasun-testa.

DBEBk arrazoia du esatean oinarrizko eskubideen mugak, lege-mailako arau batean ezarrita egoteaz gain, arrazoi objektiboa eta arrazoitua eduki behar duela, eta zorrotz-zorrotz bete behar duela proportzionaltasun-printzipioa. Baina aztergai dugun lege-aurreproiektuak dopinaren aurkako legea Dopinaren aurkako Mundu Kode berrira egokitzea du helburu, eta hartan ez da arau-hauste eta zehapen moten arteko bereizketarik egiten. Dena den, 3/2013 Lege Organikoak, ekainaren 20koak, kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzkoak, 39.9 artikuluan ezarritako irizpide berari jarraituko diogu. Hartan, honako hau ezartzen da: *arau-hauste oso larriak egiteagatik zehapenak ezartzen dituzten ebazpenak argitaratu egin beharko ditu horiek eman dituen organoak...".* Horrez gain, lege organikoaren 39.9 artikuluak adierazten duen ñabardura gehitzen da: *"Ez du erabilitako metodoari edo gaiari buruzko daturik jasoko, guztiz ezinbestekoa ez bada*".

Horrez gain, DBEBk datuak zenbat denboraz argitaratu daitezkeen ere aipatzen du. Horri dagokionez, **38 bis artikulu berriak**, **3. zenbakian**, honako hau ezartzen du: "*Horren guztiaren berri emango da, gutxienez, dopinaren aurkako erakundearen webgunean, eta hilabete batez egongo da ikusgai; etendura-epea hilabetetik gorakoa bada, epe horretan egongo da ikusgai*". Bulegoaren ustez, jada beteta dauden zehapenak ezin dira argitaratu. Datuen kalitate-printzipioari jarraituz, argitaratze-epeak ezin izango luke gainditu zehapena jaso duenak lizentzia etenda duen denbora.

Lege-aurreproiektuak hitzez hitz txertatzen du Dopinaren aurkako Mundu Kode berriko 14.3.4 artikuluko xedapena, baina, hala ere, ez dago eragozpenik DBEBk egindako alegazioa onartzeko, eta, horren ondorioz, 3/2013 Lege Organikoak, ekainaren 20koak, kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzkoak, 39.9 artikuluan ezarritako xedapena erantsi da: *"Argitalpena ez da mantenduko zehapenaren iraupen-epea amaitu ondoren".*

38 bis artikulu berriaren 3. zenbakiari dagokionez, adierazten da "*gutxienez*" dopinaren aurkako erakundearen webgunean egingo dela, baina DBEBk dio aurreproiektuak nolabaiteko mugarik gabeko gaikuntza ematen diola erakunde horri, hark erabaki dezan zenbat bidetatik hedatuko duen. Bulegoaren iritziz, legeak berak ezarri behar du, beharrezkoa irizten bada, hain informazio sentikorra zein beste bidetan argitara daitekeen.

Lege-aurreproiektuak jarraitzen dio ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoak, kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzkoak, 39.9 artikuluan ezarritako irizpide berari, hots: "*Lege honen 22. artikuluan xedatutako arau-hauste oso larriak egiteagatik zehapenak ezartzen dituzten ebazpenak argitaratu egin beharko ditu horiek eman dituen organoak. Bide telematikoak lehenetsiko dira horiek argitaratzeko orduan*". Lege horrek datuak babesteko legearen maila bera du, eta formula irekia erabiltzen du horrek ere: batetik, "*bide telematikoak*" aipatzen ditu, pluralean, eta, bestetik, ez da horietara mugatzen. Orobat, aurreproiektuak Dopinaren aurkako Mundu Kode berrian adierazitakoa berresaten du, hartara egokitu nahi du eta.

Halaber, DBEBk gomendatzen du Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak bere web-orrian ohartaraztea Internet ez dela jendearentzat eskuragarri den iturria, eta, horrenbestez, argitaratutako informazioa ezin dela gerora beste helburu batzuetarako erabiltzeko tratatu. Eta beste gauza bat ere gomendatzen du: dopinaren aurkako erakundeak dagozkion neurriak har ditzala argitaratutako datuak Interneteko bilatzaileek indexatu ez ditzaten. Halaber, DBEBk ohartarazten du ezinbestekoa dela interesdunei egiten zaien zehapen-ebazpenen jakinarazpenean behar bezala jakinaraztea, eta datuak babesteko legearen 5. artikuluak ezartzen dituen berme guztiekin, zehapena eta 38 bis artikuluan adierazitako gainerako datuak Interneten argitaratuko direla, zehapenak indarra duen unetik bertatik, eta zenbat denboraz argitaratuko diren. Azkenik, datuen segurtasunaren printzipioari dagokionez (datuak babesteko legearen 9. artikuluan araututa dago, bai eta hura garatzeko erregelamenduaren VIII. tituluan ere —abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak onartu zuen erregelamendua—), DBEBk dio lagin biologikoak aztertzen dituzten laborategiek beharrezko neurriak hartu beharko dituztela laginak galtzea eragozteko.

Egiaz, DBEBk ez dio alegaziorik egiten aurreproiektuari, eta legea aplikatzerakoan kontuan izan beharreko lege-betebehar batzuk gogorarazi eta gomendio batzuk ematen ditu soilik.

V.- HEZKUNTZA, HIZKUNTZA-POLITIKA ETA KULTURA SAILAREN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ZERBITZUEN ZUZENDARITZAREN KONTSIDERAZIOAK.

Zuzendaritza horren txosten juridikoak zenbait alderdi nabarmentzen ditu.

Zioen azalpena atalari dagokionez, testuaren gaztelerazko bertsioan zenbait zuzenketa proposatzen ditu. Hain zuzen, proposizio bat ("*de*") kendu eta "*que*" erlatibozko izenordaina jartzea proposatzen du.

Guztiz zuzenak irizten dira proposamen horiek eta, beraz, testua zuzendu egingo da.

Aurreproiektuaren **10. artikuluari** dagokionez, zenbait alderdi aipatzen dira (artikulu horren bidez Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia gaitzen da dopinaren aurkako Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde moduan). Batetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 11. artikuluan organo berriak sortzeko ezarritakoa aipatzen da. Orobat, adierazten da orain aldatzen den 12/2012 Legearen 10. artikuluko lehenengo atalean ezarritako zenbait eginkizun Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak betetzen dituela gaur egun, apirilaren 9ko 193/2013 Dekretua betez (dekretu horren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen da). Eta eransten du kontraesana dagoela aurreproiektuko testu artikulatuan adierazitakoaren (esaten du agentzia kirol-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailari atxikitako organoa dela) eta memoriaren artean (esaten du ez dela egitura berririk sortuko, haren eginkizunak Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak hartu baititu bere gain).

Baina zuzendaritza honen iritziz bi testuak bateragarriak dira eta ez dute kontraesanik eragiten, alderdi hauek kontuan hartuta: Egia da 10. artikuluko 1. zenbakiko funtzio batzuk —ez guztiak— Gazteria eta Kirol Zuzendaritzari esleitzen zaizkiola, berariaz, 193/2013 Dekretuan, baina egia da, halaber, dekretu horren bidez, dopinaren aurkako erakunde bat sortu zela haren barruan, "*Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia*" deritzon administrazio-egitura bat, administrazio-zerbitzua izaera juridikoa duela. Eta zerbitzu horrek gaurdaino funtzionatzen jarraitzen du, dopinaren aurkako erakunde moduan, 12/2012 Legearen 10.1 artikuluak ezarritako eginkizunak betetzen. Izan ere, aurreproiektuak egiten duen gauza bakarra egoera erregularizatzea da, dekretuak ez baitizkio eginkizun guztiak berariaz agentziari agintzen, nahiz eta argi eta garbi ondorioztatzen zen, dekretuak, 12/2012 Legearen 10. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoa betez, autonomia-erkidegoko administrazio orokorrari 1. zenbakiko eginkizunak betetzeko "*beharrezko administrazio-egiturak*" ematen baitizkio. Aurreproiektuko proposamenari jarraituz, egiten den gauza bakarra zera da: administrazio-egituraren —Dopinaren Aukako Euskal Agentzia—, administrazio-zerbitzuaren mailarekin sortuta eta funtzionatzen ari den egitura horren, izaera aldatzea eta organo bihurtzea.

Beste alde batetik, ez da ezer esaten arauaren izapidetzeari buruzko kontuez, Dopinaren Aukako Euskal Agentziarekin lotuta.

12.9 artikuluari dagokionez, txostenak zenbati zuzenketa proposatzen ditu, gaztelerazko bertsioan, eta bat genero-hizkuntza testuaren gainerakoarekin bat etorriz erabiltzeari buruzkoa da. Proposatzen da 12.9 artikuluko lehen paragrafoan hau jartzea gazteleraz: "*aquellos y aquellas deportistas*".

Gomendioa guztiz aproposa da eta zuzendu egingo da.

18. artikuluari dagokionez, proposatzen da aztertzea ea egokia den, Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren nazioarteko egiaztapena duten laborategiekin edo

agentzia horrek onartutakoekin batera, estatuko homologazioa dutenak ere sartzea, 3/2013 Lege Organikoak ezartzen duen bezala.

Gure iritziz, aurreproiektuak Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren irizpideei jarraitu die zorrotz, eta 3/2013 Lege Organikoak —kodeari egokitzeko prozesuan dago—, berriz, ez die jarraitzen. Kodeak bi aukera ematen ditu, eta ez estatuko homologazioena.

Aurreproiektuko **19. artikuluari dagokionez** (kirolean debekatuta dauden substantzia eta metodoen zerrendaren publizitateari buruzkoa da) gomendatzen da zehaztea zerrenda sailburuaren aginduz egin ahal izango dela.

Ez da gomendio hori ez onartzeko eragozpen juridikorik ikusten, eta testuan erantsiko da kirol-gaietan eskumena duen saileko titularrak argitaratze osagarria aginduko duela.

Txostenean, proposatzen da **21. artikuluko** lehengo zenbakiko azken tartekiaren testua hobetzeko, eta horretarako, beste idazketa modu bat proposatzen du, testuaren ordena aldatuta. Uste dugu proposamenak aurreproiektuko testua hobetzen duela, eta onartu egiten da haiek proposatutakoa.

22 bis artikuluari dagokionez (nahitaezko behin-behineko etetea deritzona arautzen du) Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak zenbait iradokizun egin ditu. Horietako batean, eskatzen dute argitzea testuak lizentzia-etetea dakarrela dioen edo pertsonei eragiten dien, lizentzia izan ala ez.

Iradokizun horri erantzunez, argitu egin da: etetea esaten denean, lizentzia eteteaz gain lizentzia lortzea edo lehiaketetan parte hartzea ezinezkoa ere izango da. Behin-behineko etete horrek lizentzia lortzeko ezintasuna ekarriko du, bai eta etendura-aldian kirol-lehiaketetan parte hartzeko debekua ere.

Horrez gain, iradokitzen da behin-behineko etetearen ebazpena arrazoitzeko beharra.

Gomendioa onartu egin da.

Halaber, txostenak ohartarazten du Euskadiko araudian bi prozedura daudenez — diziplinazkoa eta zehapen-prozedura administratiboa— argitu egin beharko litzatekeela behin-behineko etendura bi prozedurei dagokien.

Onartzen da nahitaezko behin-behineko etendura bi prozedurei dagokiela, eta, horrenbestez, argitu egin da.

Orobat, adierazten dute behin-behineko neurriari gehienezko iraupena jarri beharko litzaiokeela, konponezinak diren kalteak ez eragiteko.

Zuzendaritza honi zuzena iruditzen zaio proposamena eta sei hilabeteko gehieneko iraupena erantsi da, zehapena ezartzeko prozedura izapidetzeko gehieneko iraupenarekin bat.

Azkenik, txostenean akats ortografiko batez ohartarazten da. Gazteleraz, "*se ha producido*" hitzak bi aldiz agertzen dira, baina horietako batean gaizki idatzita dago.

Akats ortografikoa zuzendu egin behar da.

23. artikuluari dagokionez, **m) letra** ez eranstea proposatzen da, ulertzen baita portaera hori artikulu horretako i) eta j) letrek zehatzen dutela.

Aurreproiektuko testuak Dopinaren aurkako Mundu Kode berriaren testuari jarraitu badio ere, Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzak arrazoia du esaten duenean ekintza horiek, funtsean, i) eta j) letretan sartuta daudela. Baina guztiz berdina ez denez, funtsean aurrekoetan jasota dagoena kendu da eta gainerako ekintzak bere horretan utzi dira. Adibidez, estaltzea ekintza desberdina izan daiteke, dopin-ekintza gertatu ondorengoa izan daiteke eta. Eta, gainera, i) eta j) letretako ekintza gehienak debekatutako substantziei eta metodoei buruzkoak dira, eta m) letra ez da horretara mugatzen.

n) letrari dagokionez, txostenak esaten du ez dela ulertzen hartan aipatzen den jakinarazpenak nori egiten dion erreferentzia.

Dopinaren aurkako Mundu Kodeak adierazten du jakinarazpena kirolariari edo dopinaren aurkako erakundearen agintearen mende dagoen beste pertsona bati egin behar zaiola, eta bi alderdi jakinarazi behar zaizkiola: kirolariaren laguntza-pertsonaren (entrenatzailea, medikua...) zehapen-egoera eta laguntza-pertsona horrekin kirol-lotura izaten jarraituz gero kirolariak izan ditzakeen zehapenak.

Azkenik, aholkularitza juridikoak proposatzen du gaztelerazko akats ortografiko bat zuzentzea **n) letran**: "*notificado*" beharrean "*notificada*" jartzea.

Zuzena dela irizten da eta zuzendu egin da.

24. artikuluari dagokionez, txostenak proposatzen du argitzea hartan ezarritako xedapen batzuen artean egon daitezkeen kontraesanak, kasu batzuetan ezar daitezkeen zehapenei buruzkoak. Halaber, gaztelerazkoan "*involucre*" terminoa aldatzea proposatzen dute, nahasmena sortzen dela uste baitute.

Lehenengo alderdiari dagokionez, onartu egin da iradokizuna eta lehenengo hiru atalen ondorengo atal batzuk aldatu egin dira, kontraesanik edota interpretazio-arazorik ez izateko. Lehenengo hiru ataletan zehapenak ezartzeko arau orokorrak ezartzen dira, eta hurrengo atalean, modulazioak edo salbuespenak egiten dira, egoera bereziei erreparatuta. Gaztelerazko "*cuando la infracción involucre una sustancia*" esaldiari dagokionez, beste honek ordeztuko du: "*cuando la infracción esté relacionada con una sustancia*".

Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak, txostenean, **24 bis artikuluari dagokionez** proposatzen du **2. zenbakia** berrikustea. Izan ere, sinplifikatzea proposatzen du, eta, batez ere, azkenengo tartekia aldatzea gaztelerazkoan, ez baita gramatikalki zuzena, beren ustez. Hau da zuzendu beharreko esaldia: "*En estos casos el periodo de suspensión será de ocho años hasta la suspensión a perpetuidad.*"

Ez dago eragozpenik iradokizun hori onartzeko, eta honela idatzi da zenbaki hori: "Hirugarrenez urratzen badira dopinaren aurkako arauak, etendura betiko izango da, bi kasutan izan ezik: hirugarren arau-hauste horrek badakar aurkitzeko moduan egotearen betebeharra urratzea edo zehapenak baliogabetzeko edo murrizteko

baldintzak betetzen baditu. Kasu horietan, etendura-epea zortzi urtekoa izango da, gutxienez".

Halaber, **4. zenbakiko** idazketa aldatzea ere proposatzen da. Onartu egin da eta honela idatzita geratuko da: "*Dopinaren aurkako arau-hauste bat bigarren arau-haustetzat joko da bakarrik egiaztatzen bada arau-hausleak bigarrena egin orduko lehendabizikoaren berri jadanik jasoa zuela edo dopinaren aurkako erakundea behar bezala saiatu bada jakinarazpen hori egiten*.

12/2012 Legearen **29. artikuluan**, aurreproiektuaren bidez, 4. eta 5. zenbakiak erantsi dira. Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzak txostenean dio ez dela ulertzen **4. zenbakiko** testua. Horrez gain, adierazten da memorian argudiatzen dela aldaketak ez daukala eraginik Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean, nahiz eta arau-hauste berriek dagozkien zehapenak ezartzea ekarriko duten, eta horrekin, administrazio publikoak diru-sarrerak izatea.

4. zatiak, Dopinaren aurkako Mundu Kodeak ezarritakoa hitzez hitz jasota, hau ezartzen du *"Zehapen ekonomikoak jarriko dira bakarrik gehieneko etendura-epeak beste modu batez ezarri den kasuetan*". Proposatzen da "*beste modu batez*" kentzea. Dopinaren aurkako Mundu Agentziak nahi duena da diruzko zehapena gehieneko etendura-epea ezarrita dagoen kasuetarako gordetzea.

Hiru arau-hauste berrien eta haiek dakartzaten zehapenen ondorioei eta administrazio publikoari lekarzkiokeen diru-sarrera gehigarriei dagokienez, azpimarratu behar da ez dagoela arau-hauste berriek diru-sarrera handiagoak ekarriko dituela adierazten duen inolako daturik edo zantzurik, eta, antzera, ez dagoela inolako daturik edo zantzurik ondorioztatzeko diru-zehapenak jartzeko aukera mugatzeak —gehieneko etendura-epea ezarri den kasuetan soilik— diru-sarrerak txikitzea ekarriko dituela adierazten duenik.

30. artikuluko 1. zenbakian ezartzen da, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.8 artikuluarekin bat etorriz, zehapen-ondorioak modulatu egin ahal izango direla "*ekitate-arrazoiak direla eta*". Txostenean gomendatzen dute tarteki hori berrikustea, ez baitzaio lekurik utzi behar zehaztugabetasun juridikoari.

Gazteria eta Kirol Zuzendaritza honen ustez, aurreproiektuak hitzez hitz transkribatzen du kodean ezarritakoa, eta ezin du bestela egin. Beste alde batetik, indarrean dauden zenbait legek, zehapen-araubidearen atalean, ekitate-printzipioa aipatzen dute. Adibidez, abenduaren 17ko 13/2003 Legeak, Andaluziako kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babestekoak, 93. artikuluan barkatzeaz diharduenean esaten du barkatzea erabaki ahal izango dela zehapena bere horretan betetzea <u>ekitatearen aurkakoa bada</u> edo interes orokorraren kalterako bada". Gauza bera ezartzen du, hitzez hitz, uztailaren 28ko 24/1988 Legeak, Balore Merkatuari buruzkoak, 98. artikuluan, bai eta azaroaren 4ko 35/2003 Legeak, inbertsio kolektiboko erakundeei buruzkoak. Eta ezin da ahaztu Auzitegi Gorena, zehapenen arloan, ekitate-printzipioa aplikatzen ari dela, finkatutako doktrina batez. Irakurri, *inter alia*, zer dioen Auzitegi Goreneko hirugarren salako sententziak, 2015eko urtarrilaren 26koak: " (...) ezarritako zigorra (...) arauak berak ezarritako mailan egonda ere, kasu honetako egoera

jakinekiko desproportzionatua da, eta sala honen iritziz leundu egin behar da ekitate printzipioari jarraituz edo arauaren zorroztasuna arinduz".

31 bis artikuluari dagokionez (lizentzia eteten den bitarteko estatusari buruzkoa da), txostenean adierazten da argitu egin behar dela kirolarien aipamenak lizentzia duten kirolariak hartzen dituen barne edo edozein kirolari hartzen duen, lizentzia izan ala ez. Horrez gain, akats bat hauteman dute gaztelerazko testuan "*el o la persona sancionada*".

Txostenean aipatutako akatsa zuzendu egin behar da, eta, horrez gain, testua aldatu egingo da argi uzteko eteteak lizentziarik ez duen pertsonari ere eragingo diola. Laugarren zenbaki bat erantsi da, eta hartan ezartzen da 31 bis artikuluan xedatutakoa zehapen moduan lizentzia aldi batez lortzeko ezintasuna ezarri zaien pertsonei ere aplikatuko zaiela, zehapen hori espresuki agertzen baita 12/2012 Legean.

34. artikuluari dagokionez, "*beste pertsona baten*" aipamena zuzentzea proposatzen da.

Ez dago eragozpenik proposamena onartzeko, erabat zuzena baita. Haren ordez, "*pertsona baten*" jarriko da.

Halaber, txostenak esaten du zehapenen preskripzio-epea kentzen duela testu berriak.

Eta erabat zuzena da ohartarazpena, aurreproiektuko testu berrian nahigabe 12/2012 Legearen bi paragrafo sartu gabe utzi baitira, eta sartu egin beharko lirateke.

Aurreproiektuaren **37. artikuluari** dagokionez, (diziplina-prozeduren alorreko eskumena arautzen du) Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzak uste du Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 7.1 artikuluan oinarritzen direla. Horrenbestez, uste du 7.1 artikulua ez dela kideekiko diziplina-ahalmena duten erakundeei buruzkoa soilik, administrazioaren zehapen-ahalmenari buruzkoa ere badela.

Argudioa onartu egiten da, eta horregatik, **36. artikuluan** —administrazioaren zehatzeko ahalmenari buruzkoan— hirugarren paragrafo bat erantsiko da, hori argitzeko.

37. artikuluko 6. zenbakiari buruz ere iruzkin bat egin du zuzendaritza horrek. Testua berrikusi eta gramatikako akatsen bat zuzenduko da gaztelerakoan.

Eta, halaber, uste du **5. zenbakia** ez dela ulertzen.

5. zenbakia ez da aldatzen aurreproiektuan, eta ezartzen du zigorra ezartzeko prozedura izapidetzeko epemuga igarotzen bada prozedura iraungita geratuko dela. Eta sei hilabeteko epearen barruan sartzen da, bai federazioei dagokien diziplina-bidekoa, bai eta ondoren administrazioei dagokiena ere, eskumena bereganatzen badu dagokion federazioak bi hilabeteko epean ebatzi ez badu (edo hiru hilabetetan, luzapenaren ondoren),

Aholkularitza juridikoak **10. zenbakian** gaztelerazko bertsioan agertzen den "*retiran*" aditzari buruzko oharra egiten du, singularrean egon behar duela irizten baitu. Onartu da.

38 bis eta 38 ter artikuluak dopinaren arloko zehapenak argitaratzeari eta ebazpenak berrikusteari buruzkoak dira. Xedapen horiei dagokienez, txostenean zenbait ohartarazpen egin dira.

38 bis artikuluari dagokionez, adierazten du Datuak Babesteko Espainiako Agentziak zenbait aldiz aztertu duela kirolariek dopinarekin lotuta egin dituzten arau-hausteengatik haiei ezarri zaizkien zehapenak argitaratzeko aukera. Agentzia horrek zenbait baldintza jarri ditu horretarako. Horregatik, proposatzen da aurreproiektuak baldintza horiek guztiak aipatzea.

Baldintza horiek aurreproiektuan proposatutako testuarekin alderatuta, ikusten da gehienak modu esplizituan adierazita daudela eta bi aipamen soilik eransten direla: zehatutako pertsona argitaratzeaz informatua izatea, eta neurriak hartzea Interneten argitaratutako informazioa ezin izan dadin atzitu edo indexatu bilaketa-motorren bidez. Dena den, eta Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak uste duen arren berariazko aipamen horiek ez direla nahitaezkoak, ez duelako zentzurik, adibidez, kirolari jakinaraztea zehapena argitaratzeko lege-betebeharra, ez du eragozpenik gomendio horiek onartzeko.

3. zenbakiari dagokionez, gaztelerazko testua berrikustea gomendatzen da "*y*" juntagailu kopulatiboari dakionez.

Zuzena dela irizten da eta zuzendu egin da.

38 ter artikuluari dagokionez, adierazten da testuak ez duela betetzen *reformatio in peius* debeku-printzipioa, zehatutako kirolariak eskatutako berrikuspenak ezin baitu haren hasierako egoera okerrarazi.

Aurreproiektuak, berez, Dopinaren aurkako Mundu Kodeak ezarritakoa jasotzen du, hitzez hitz, baina ez dago eragozpenik azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 113.3 artikuluak adierazten duen moduan idazteari.

Aldi baterako xedapenei dagokienez, txostenak bi ohartarazpen egiten ditu, eta onartu egin dira. Testuak aldi baterako bi xedapen dituenez, titulua pluralean jarri behar da.

Bigarren ohartarazpenak dio aldi baterako lehenengo xedapenak ezartzen duela legea indarrean sartu aurretik dopinaren alorrean egin diren arau-hausteak aurreko araudiaren mende egongo direla, salbu eta interesdunak bere kabuz lege hori aplikatzea aukeratzen badu. Azken tartekia aldatu eta ohiko klausula hau sartu da: "*salbu eta arau berrian ezarritakoa espedientatua izan denarentzat onuragarriagoa bada*".

EUSKADIKO EKONOMIA- ETA GIZARTE-ARAZOETARAKO BATZORDEAK ADIERAZITAKOAK

EGABek, oro har, adierazi du modu positiboan baloratzen dutela eta egokia dela testuan Dopinaren aurkako Mundu Kode berriaren aldaketa nagusiak sartzea.

Halaber, EGABek azpimarratu nahi du aurreproiektuaren idazkuntzan lengoaiaren erabilera ez sexista egin dela generoaren ikuspegia aintzat hartuta, eta berdintasunaren legearen praktika onen eta betetzearen eredu dela. Dena de, EGABek artikulatuari buruzko iruzkin gutxi batzuk egiten ditu. Jarraian aztertuko ditugun hauek, hain zuzen:

> «Dopinaren aurkako Euskal Agentzia —kirolaren alorrean Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailari atxikia— aurreko paragrafoan Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoari esleitzen zaizkion funtzioak betetzeko organo espezializatua izango da eta, beraz, Euskadiko dopinaren aurkako erakundea bilakatuko da.»

Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 10.2 artikuluak EAEk administrazio-egitura bat izateko aukera aurreikusten zuen, dopinaren aurkako kontrolaren esparruan ikuskaritza-eginkizunak betetzeko. Aukera hori orduan indarrean zegoen azaroaren 21eko 7/2006 Lege Organikoaren 4.6 artikuluan aurreikusita zegoen, autonomia-erkidegoek dopinaren aurkako agentziak izateko aukera jasotzen baitzuen, eta geroago ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoaren 7.5 artikulura aldatu zen.

Orain, proposatutako aldaketaren bidez, Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia sortzen da, kirol-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikitako administrazio-organoa izan dadin.

Alde horretatik, esan daiteke ezen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 11. artikuluak aurreikusten duen bezala, honako hauek zehaztu beharko direla edozein administrazio-organo eratzeko:

- nola kokatuko den dagokion herri-administrazioan, eta zeinen mendean egongo den;
- zein egiteko eta eskumen izango dituen, eta
- abian jartzeko eta jarduteko beharko dituen diru-izendapenak.

Era berean, 11. artikulu horretako 3. idatzi-zatiak hau dio: "Ezin izango da organo berririk sortu, lehendik dagoenen bat bikoiztea dakarrenean, baldin eta, aldi berean, lehendik daudenei eskumena kendu edo behar bezala murrizten ez bazaie".

Gaur egun, ikuskaritza-eginkizunak eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen nahiz Euskadiko Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearen esparruan Eusko Jaurlaritzari dagozkion zehapen-espedienteen izapidetzea Gazteria eta Kirolak Zuzendaritzari esleituta daude, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa

eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 28.1.q) artikulua betez.

Hala ere, esan behar dugu kontraesana dagoela Lege Aurreproiektuan adierazitakoaren eta justifikazio-memorian azaldutakoaren artean. Aurreproiektuan argi eta garbi esaten da Dopinaren aurkako Euskal Agentzia kirol-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikitako organo bat izango dela. Hala ere, memorian esaten da ez dela egitura berririk sortuko, eta aditzera ematen da Kiroleko Dopinaren aurkako Legean jasotako eginkizunak Gazteria eta Kirolak Zuzendaritzak bere gain hartu zituela. Hala ere, sailaren egitura organiko eta funtzionala zehazten duen dekretua irakurrita, ondorioztatzen da Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 10.[2] artikuluko eginkizun batzuk baino ez zaizkiola esleitu Gazteria eta Kirolak Zuzendaritzari.

---

[2] Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 10.1. artikulua: «Hauek dira dopinaren aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak izango dituen eskumenak:
&&&&&&&&&&&&&&&
a) Dopatzeari buruzko legeria betetzen dela zaintzea.
b) Dopinaren arloan egindako eskaera, kontsulta, salaketa eta erreklamazioei erantzutea.
c) Dopinaren arloko eskubide eta betebeharrei dagokienez, pertsonei informazioa ematea.
d) Eskumena duten organismoei, haien antolaketa, araudia edo jarduera dopinaren arloko legeriara egokitzeko eskatzea, eta, hala badagokio, deuseztapena edo aldaketa agintzea, baldin eta legeria horretara egokitzen ez badira.
e) Zehatzeko ahala erabiltzea eta, era berean, dagozkion kautela-neurriak hartzea.
f) Kirola ikuskatzeko funtzioak betetzea, eta eginkizun hori betetzeko behar duen informazio guztia biltzea. Horretarako, edozein argibide eskatu ahalko die kirolariei eta haien inguruneko pertsonei, bai eta agiriak eta datuak erakusteko edo bidaltzeko ere, eta dokumentazio hori gordeta dagoen tokian bertan aztertu ahal izango du, eta, halaber, taldeak eta lokalak ikuskatu ahal izango ditu, betiere indarreko legediak ezarritako eran.
g) Dopin-kontrolen urteko programa bat egitea eta, hala badagokio, programa hori gauzatzea, finantzatzea eta zaintzea. Programa horren barruan, lehiaketan bertan eta lehiaketatik kanpo Agentziak berak eskatuta egindako kontrolak sartuko dira. Nolanahi ere, horiek gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde batzuek Euskadin beste kontrol batzuk egin ahal izango dituzte.
h) Dopinaren aurka modu eraginkorrean borroka egiteko beharrezko duen laguntza eta informazio guztia eskatzea dagokien organoei.
i) Urtero-urtero txosten bat egitea eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzea.
j) Dopinik gabeko kirolaren aldeko zabalkunde, prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak egitea; debekatuta dauden substantzien eta metodoen erabilerari buruzko informazioa eta horien kontrol-modalitateei buruzkoa jakinaraztea; dopinaren arrazoiei eta ondorioei buruzko txostenak eta azterketak egitea; prebentzio-ekintzak bultzatzea eta sustatzea. Eginkizun horiek betetzean, genero-ikuspegia integratu beharko du, dopinari eta dopinak gizon eta emakume kirolariengan dituen ondorio zehatzei buruzko ikerketa sustatzeko eta horren berri emateko.
k) Dopin-kontrolak zein lehiaketa eta probatan egin daitezkeen zehaztea.
l) Kontrola egiten zaien kirolarien errugabetasun-presuntzioa babestea.
m) Euskadiko kirol-federazioei eta lurraldeetakoei diziplina-espedienteak irekitzeko eskatzea, eta, hala badagokio, dagozkion errekurtsoak jartzea federazio horien diziplina-ebazpenen aurka.
n) Diziplina-espedienteak izapidetu eta ebaztea, baldin eta kirol-federazioek ez badituzte espediente horiek epearen barruan ebatzi.
ñ) Dopin-kontrolak egiteko kirolariak aurkitzeko moduan egoteari dagokionez, behar diren xedapen eta formularioak onartzea.
o) Eusko Jaurlaritzak izapidetutako arau-egitasmoei —dopinaren aurkako borrokari eragiten dietenei— buruzko nahitaezko txostena ematea, baita beste erakunde batzuen arau-ekimenei buruzko txostena ematea ere, erakunde horiek eskatzen diotenean.
&&&&&&&&&&&&&&
p) Parte hartzea dopinaren aurkako borrokarekin zuzenean loturiko bileretan, foroetan eta erakundeetan, estatu barrukoetan zein nazioartekoetan.

Horrenbestez, zerbitzu sustatzaileari gogorarazi behar diogu ez direla gauza bera administrazio-organo bat eta administrazio-organo bati, oraingo honetan Gazteria eta Kiroletako zuzendariari, esleitutako eginkizunen multzoa. Hartara, egungo aurreikuspena, zeina Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuan jasota batago, ez litzateke nahikoa izango Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 10. artikulurako proposatzen den behin betiko idazkeran jasotako lege-aurreikuspena betetzeko, proposatutako idazkeran argi eta garbi aipatzen delako Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 10.1 artikuluan aurreikusitako eginkizun guztiak betetzeko ardura duen administrazio-organo bat.

Horren ondorioz, aurreko oharra aztertzeko esaten dogu zerbitzu sustatzaileari, eta, era berean, gogorarazten dugu ezen, azkenean erabakitzen bada Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 10.1 artikuluko eginkizunak bere gain hartzeko organo espezializatu bat sortzea, aurreikuspen horrek ondoriozko garapena izan beharko lukeela memoria ekonomiko egokian.

Barne-egiturak sortzea edo aldatzea litzatekeenez gero, uste dugu txostena eskatu beharko litzaiokeela Funtzio Publikoko Zuzendaritzari (Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 16.c artikulua); izan ere, honako eginkizun hau esleituta dauka: «Saileko eta sailen arteko jarduna eta proiektuak landu, koordinatu eta ebaluatzea barne-egituraketaren eta langileen antolaketaren arloan, bat datozen Lanpostuen Zerrenden bidez. Ondoriozko lanpostuak baloratzea, Jaurlaritzak ezarritako giza baliabideen politikako jarraibideekin bat». Era beren, txostena eskatu beharko litzaioke Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzari, lehen aipatutako apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 18.c) artikulua oinarri hartuta, honako eginkizun hau esleitzen baitio: «Erakunde

---

q) Dopinaren aurkako beste administrazio batzuekin eta kirol-erakundeekin lankidetzan aritzea, erabilera terapeutikoko baimenei buruzko informazioari eta dokumentazioari dagokienean, bai eta, orokorrean, beste edozein eremutan ere, kiroleko dopinaren aurka eraginkortasunez borrokatzeko beharrezkoa denean.
r) Segurtasun indar eta kidegoekin behar diren lankidetza-harremanak izatea, kiroleko dopinaren aurka borrokatzeko.
s) Dopinaren arloan, ikerketa zientifiko eta teknikoa bultzatzea, baita garapena eta berrikuntza ere, proiektu zehatzak bultzatuz, bai zuzenean edo bai unibertsitateekin lankidetzan, ikerketako erakunde publikoekin lankidetzan eta ikerketa, garapena edo berrikuntza bultzatzen duten beste erakunde batzuekin lankidetzan.
t) Administrazioak berak antolatutako dopin-kontroletan edo, dagozkion hitzarmenen bidez, beste erakunde batzuek egindakoetan, laginak jaso eta garraiatzea.
u) Dopin-kontroletan laginak hartzeko langileen prestakuntza bultzatzea, gerora, zeregin horretarako gaitzeko langile horiek. Era berean, aintzat hartuko da genero-ikuspegia, laginak hartzeko taldean kirolariaren sexu bereko pertsona bat izan dadin, legeetan jasotzen denez.
v) Erabilera terapeutikoko baimenak ematea edo ukatzea, erabilera terapeutikoko baimenen euskal batzordearen (COVAUT) bidez.
Aipaturiko administrazioaren eskumenekoak izanik, dopinaren aurkako borrokaren arloetakoak diren gainontzeko eginkizunak, baldin eta berariaz beste organo edo erakunde batzuei esleituta ez badaude, baita beste lege eta araudi batzuen bidez esleitutako eginkizunak ere.
x) Euskal Autonomia Erkidegoko Mendetasunen Planean sartzea kiroleko dopinaren aurkako borrokari buruzko kapitulu bat.»

instituzionalen barne-egituraketaren, antolaketaren eta sorreraren arloko sailaren jarduerak, eta erakunde horiek ezartzen dituzten xedapen orokorrak aztertu eta ebaluatzea; eta, halaber, administrazioko sail eta erakundeei aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea antolaketaren eta prozeduren arloan.»

12. ARTIKULUA:

HAUXE DIO 12.9 ARTIKULUAK:

> «Kontrola egin ahal izango zaie estatuaren lizentzia edo nazioarteko lizentzia duten kirolariei, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako lehiaketa edo kirol-jardueretan parte hartzen badute edo, nahiz eta aldi baterako izan, bertan bizi badira. Legearen arabera eskumena duen erakundeak izapidetuko ditu kontrol horien ondorioz ireki litezkeen zehapen- edo diziplina-espediente administratiboak. Era berean, lehiaketatik kanpora kontrolak egin ahal izango dizkiete Euskal Autonomia Erkidegoan entrenatzen ari direnean, eskumena duen nazioarteko erakundeak edo federazioak eskatuta.
> Dena dela, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako dopin-kontroletako analisien emaitzak dagozkion kirol-erakundeetara —eskumena izan dezaketenetara— bidaliko dira.»

idatzi-zati hori honako testu honekin aldatzea proposatzen da:

> «Kontrola egin ahal izango zaie Euskal Autonomia Erkidegoan egindako kirol-lehiaketa edo -jardueretan parte hartzen duten kirolariei, salbu eta lehiaketa edo jarduera horiek estatu mailako lehiaketa ofizialak eta nazioarteko kirol-federazioek edo dagokion erakunde olinpiko edo paraolinpikoak antolaturiko nazioarteko kirol-lehiaketak badira.
>
> Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak kasu batean bakarrik egin ahal izango dizkie kontrolak, lehiaketatik kanpo, estatu mailako lizentzia, Euskadiz kanpoko beste erkidegoren bateko lizentzia edo nazioarteko lizentzia duten kirolariei: Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren eskariz edo erkidegoetako edo nazioarteko erakunde edo federazioen eskariz, eta aldez aurretik beraiekin hitzarmen bat sinatuta.»

idatzi-zati horretarako proposatutako idazkera berri horrek jaso egiten du Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetza Batzordearen Akordioan Euskadiko Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legeaz den bezainbatean eman zitzaion interpretazioa.

> «A) Euskal Autonomia Erkidegoaren 12/2012 Legeko 129 artikuluaren interpretazioa hitzartu dute parte biek, ondoren zehazten den legez:
> – «Euskal Autonomia Erkidegoan egindako lehiaketa edo kirol-jardueretan parte hartzen badute» espresioa honela interpretatu behar da: Legeko 1.4 artikuluarekin bat etorriz, haiek erkidegoko mailako lehiaketak dira, eta, betiere, kanpo geratzen direla honako hauek: Estatu mailako kirol-lehiaketa ofizialak, eta, halaber,

nazioarteko kirol-lehiaketak, nazioarteko kirol-federazioek edo erakunde olinpiko edo paraolinpikoek antolatutakoak direnak.
– Lizentzia estatala, Euskal Autonomia Erkidegokoaz beste lizentzia autonomiko edo nazioarteko lizentzia duten kirolariei dagokienez, lehiaketaz kanpoko kontrolak bakarrik egin ahal izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak; betiere eskabiderik bada eta ondokoen batekin aldez aurretiko hitzarmenik bada: Kirolean Osasuna Babesteko Agentzia Espainiarra; edo nazioarteko edo autonomietako erakunde edo federazio arduradunak.»

Proiektuan zehar, gaztelaniaz, bi generoak erabiltzea aukeratu da, hizkuntza ondo baliatzeko generoaren ikuspuntutik; horregatik, 12.9 artikuluko lehen lerrokadan hau jaso beharko litzateke: "aquellos y aquellas deportistas".

Bigarren lerrokadan letra larriz idatzi beharko litzateke "País Vasco".

13. ARTIKULUA:

13. artikuluan, hiru idatzi-zati berri gehitzen dira, 11.a, 12.a eta 13.a; horrenbestez, behin betiko idazkera hau izan beharko luke:

13. artikulua. «Kontrolen bermeak eta legezko ondorioak.
1.- Laginak hartzeko mediku batek egingo ditu, osasun-langileek lagunduta, aurreko artikuluan aipatutako kontrolak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak zeregin horretarako gaitutako langileen ardurapean.
2.- Dopinaren aurkako nazioarteko araudiarekin eta, batez ere, Dopinaren aurkako Mundu Kodearekin eta hori garatzeko arauekin bat etorriz, lehiaketatik kanpoko dopin-kontrolak eta osasun-kontrolak ezin izango dira erregelamendu bidez ezarritako ordutegi-tarte jakin batean egin, eta tarte horretan sartuko dira betiere gaueko atsedenerako erabiltzen ohi diren orduak. Ordu horietan ezin izango da dopin-kontrolik egin Euskal Autonomia Erkidegoan, eta berdin dio kontrol hori agintari administratiboak, kirol-federazioak edo estatuko edo nazioarteko erakundeak agindutakoa izan.
3.- Era berean, kirolari berari ezin izango zaio dopin-kontrol bat baino gehiago eginarazi proba batean. Ez da kontrol beretzat hartuko kirolariei eskatutako lagin-motak desberdinak badira. Erregelamenduz arautuko da eskubide horren noraino-koa.
4.- Gaueko atsedenaren barruan sartzen den ordutegi-tartean edo aurreko paragrafoan adierazitakoaren babesean dopin-kontrolak egiteari uko egiteak ez du inolako erantzukizunik eragingo.
5.- Euskal Autonomia Erkidegoan egindako dopin-kontrolak ordutegi-muga horiek errespetatuz egingo direla zainduko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, eta berdin dio kontrol horiek nork agintzen dituen.
6.- Kontrola egingo zaiela jakinarazten zaienean esango zaie kirolariei, eta, hala badagokio, lagina hartu baino lehen, kontrol hori dela-eta zein eskubide eta betebehar dituzten, eta prozeduraren funtsezko izapideen eta horien ondorio nagusien berri ere emango zaie, bai eta lege honek datuen tratamenduari eta datuak emateari buruz zer xedatzen duen. Horrez gain, jakinaraziko zaie, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera dutela. Azken horiek datu pertsonalen babeserako indarrean dagoen legerian ezarrita daude.

7.- Dituzten eskubideen artean kontrola ez egiteko eskubidea dago, artikulu honetan xedatutakoaren eta lege honen 23.1c artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.
8.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak informazio-eredu normalizatu bat ezarriko du euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, kontrolak jakinarazteko, dopin-kontroletan laginak hartzeko eta hartutako laginak dagokion laborategira bidaltzeko.
9.- Dopin arloko diziplina- edo zehapen-prozeduren ondorioetarako, bidezko arrazoirik gabe dopin-kontrolak egiteari uko egitea edo dopinaren aurkako erakundeek egindako informazio-eskaerei ez erantzutea, behar bezala dokumentatu ondoren, beharadinako froga izango da kirolariaren jokabidea zehatzeko. Kontrola ez egiteko bidezko arrazoitzat hartuko da kontrola egitera bertaratu ezin izatea egiaztatutako lesio baten ondorioz edo kontrola egiteak kirolariaren osasuna arriskuan jartzen duela egiaztatzen denean.
Ezintasun hori zuzenbidearen arabera ezarritako edozein bitartekoren bidez egiaztatu eta ziurtatu beharko du laginak hartzeko taldearen arduradunak.
10.- Aurreko paragrafoan adierazitako ezintasuna egiaztatzeko agiriari Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako egiazkotasun-presuntzioa aitortuko zaio.
11.- Emaitzak kudeatzeaz arduratzen den dopinaren aurkako erakundeak B lagina analizatzea erabaki dezake, bere irizpideetan oinarrituta, nahiz eta kirolariak ez eskatu lagin horren analisirik.
12.- Dopinaren aurkako arauak hautsi direla frogatzeko, nahikoa izango da:
a) Kirolariak B lagina analizatzeari uko egiten dionean —eta, beraz, analisi hori egiten ez denean—, A laginean debekaturiko substantzia bat edo haren metabolitoak edo markatzaileak agertzea.
b) Kirolariaren B lagina analizatu, eta berresten baldin bada A laginean agertutako substantzia debekatua edo haren metabolitoak edo markatzaileak agertzen direla.
c) Kirolariaren B lagina bi flaskotan banatzen denean eta bigarren flaskoko analisiak berresten baldin badu lehen flaskoan agertutako substantzia debekatua edo haren metaboltoak edo markatzaileak agertzen direla.
13.- Dopinaren aurkako erakundearen betebeharra izango da dopinaren aurkako araudia urratu dela frogatzea. Eginkizun horretan, baliozkotzat joko dira Dopinaren aurkako Mundu Agentziak onartutako metodo analitikoak edo erabakitzeko mugak, baldin eta kanpo-berrikusketa batek aztertzen baditu eta komunitate zientifikoaren irizpean jartzen badira.»

12. idatzi-zatian, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.1.2 artikulua kopiatzen da, proba-sistema taxutzeari eta dopinaren aurkako proben baliozkotasunaz zenbait presuntzio ezartzeari buruzko artikulua. Presuntzio horiek berak sartu ziren Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoaren 39.5.a) artikuluan. Era berean, 11. idatzi-zatian Dopinaren aurkako Mundu Kodean lehen aipatutako 2.1.2 artikulua, 12. idatzi-zatian ere jasoa, interpretatzeko moduari buruz egindako iruzkina jasotzen da.

Azkenik, eta ildo beretik, 13. idatzi-zatiak Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 3.1 artikulua jasotzen du, dopinaren aurkako arauen urraketen froga-zamaz den bezainbatean.

13. idatzi-zatiko bigarren tartekiak Dopinaren aurkako Mundu Agentziak onartutako metodo analitikoen edo erabakitzeko mugen balio zientifikoa aitortzen du, baldin eta kanpo-berrikusketa batek aztertzen baditu eta komunitate zientifikoaren irizpean jartzen badira.

16. ARTIKULUA:

16. artikuluko 3. idatzi-zatia aldatu egiten da. Artikulu hori hitzez hitz hau zen:

> 1.- Lege honen ondorioetarako, dopin-kontroltzat hartuko dira dopina eragiteko moduko debekatutako substantziarik dagoen egiaztatzeko edo arauz kanpoko metodorik erabili den egiaztatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak gaitutako erakunde eta pertsonek egindako jarduerak. Prozedura estandarren bidez hautematen dira halakoak, eta, horretarako, lagin bat ateratzen da. Dopin-kontroltzat hartuko dira, era berean, dopatzearen aurkako araudia bete den egiaztatzeko, eskumena duten dopinaren aurkako organoek egindako jardueraguztiak.
> 2.- Dena dela, dopin-kontrolen esparruan sartzen dira honako hauek: kontrolak berme guztiekin egiteko behar den plangintza, kontrolak zein kirolariri eta nola egingo zaizkion aukeratzea, laginak hartu eta erabiltzea, baita laborategiko analisiak eta lortutako emaitzak kudeatu eta gordetzea ere.
> 3.- Aurreko paragrafoan adierazitako laginak aire, gernu, odol edo beste edozein fluidotatik hartutakoak edo lagin txikiak izango dira, erregelamendu bidez zehaztutako moduan. Bertan adierazi ko da nola baliozkotzen diren, ondorio hauetarako, analisien prozedurak.
> 4.- Lege honen ondorioetarako, osasun-kontrol kontzeptuak jarduera-multzo hau hartzen du bere baitan: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, kirol-federazioek eta gainerako kirol-erakundeek, kirol-jarduerak beren kirolarien osasunari eragin diezazkiokeen kontrako ondorioak hobetzeko, kontrolatzeko eta prebenitzeko, egokitzat hartzen dituzten jarduerak, bai eta dopinaren eta osasunaren alorreko legetik eratorritako betebeharrak kirolariek bete ditzaten kontrolatzeko jarduerak ere. Osasun-kontroletako analisien emaitzek ez dute diziplina- edo administrazio-zehapenik ekarriko. Hala ere, kontrol horien ondoriz, kirol-erakunde horietan ezarritako kirol eta lan arloko neurriak ezarri ahal izango zaizkie kirolariei, eta dopin-kontrolen plangintza egiteko balio ahal izango dute.

Honako idazkera hau proposatzen da 3. idatzi-zatirako, eta kirolariari emaitza analitikoak jakinarazi baino lehen laginen analisi gehiago egiteko aukerari buruzko azken tartekia gehitzen zaio.

> «3.- Aurreko paragrafoan adierazitako laginak aire, gernu, odol edo beste edozein fluidotatik hartutakoak edo lagin txikiak izango dira, erregelamendu bidez zehaztutako moduan. Bertan adierazi ko da nola baliozkotzen diren, ondorio hauetarako, analisien prozedurak. Emaitzak kudeatzeaz arduratzen den dopinaren aurkako erakundeak kirolariari A eta B laginen analisien emaitzak jakinarazi baino lehen, lagin horien analisi osagarriak egin ahal izango dira.»

Aurreikuspen hau Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 65 idatzi-zatian aurreikusitako aukeraren erreprodukzioa da.

18. ARTIKULUA:

> 18. artikulua. «Kontrolak egiteko eskumena.
> 1.- Orokorrean, eta lege honetan adierazitako beste erakunde batzuen eskumenen kalterik gabe, Euskadiko kirol-federazioei eta lurraldeetakoei dagokie behar diren jarduerak egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak zehaztutako lehiaketa federatuetako kontrolak egiteko.
> 2.- Behar besteko baliabiderik ez dagoenean edo federazioaren beraren egiturak hala justifikatzen duenean, eginkizun hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak beteko du
> 3.- Kirolariei lege honen aplikazio-eremuan egindako dopin-kontroletan, laginen analisiak Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren nazioarteko egiaztapena duten laborategietan egin beharko dira.
> 4.- Dopinaren aurkako Mundu Kodean ezarritako irizpideekin bat etorriz, kirol-lehiaketa bakoitzean erakunde bakarra arduratuko da dopin-kontrolaz.
> 5.- Nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko asmoz Euskal Autonomia Erkidegoan dauden kirolariei lehiaketatik kanpoko kontrolak egiteko, lehentasuna izango dute nazioarteko kirol-erakundeek.
> 6.- Estatu mailako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko asmoz Euskal Autonomia Erkidegoan dauden kirolariei lehiaketatik kanpoko kontrolak egiteko, lehentasuna izango dute estatu mailako erakundeek.»

18. artikuluan, 3. idatzi-zatia aldatu da, eta honela idatzita utzi:

> «3.- Kirolariei lege honen aplikazio-eremuan egindako dopin-kontroletan, laginen analisiak Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren nazioarteko egiaztapena duten laborategietan edo Agentziaren onarpena dutenetan egin beharko dira.»

Zehazki, "edo Agentziaren onarpena dutenetan" tartekia gehitu da, eta, horrenbestez, Dopinaren aurkako Mundu Kodeko terminologia erabili:

> Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 6.1 artikulua:
> 6.1 Laborategi egiaztatuen eta onartuen erabilpena.
> 2.1 artikuluaren ondorioetarako, laginak Dopinaren aurkako Mundu Agentziak egiaztatutako edo, bestela, onartutako laborategiek baino ez dituzte aztertuko.
> Dopinaren aurkako Mundu Agentziak egiaztatutako edo onartutako laborategien artean laginak aztertu behar dituena aukeratzea emaitzen kudeaketaren ardura duen dopinaren aurkako erakundearen kontu esklusiboa izango da.

"Onartutako laborategiak" terminoa hobeto ulertzeko, zehatz daiteke ezen, Dopinaren aurkako Mundu Kodeak berak 6.1 artikuluan dioen bezala, kostuengatik eta sarbide geografikoagatik, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak egiaztatu gabeko laborategi espezifikoak onar ditzakeela agentziak berak analisi jakin batzuk egiteko; adibidez, odol-analisiak, epe jakin batean bidali behar badira odola hartzen den lekutik laborategiraino. Laborategi hori onartu baino lehen, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak

ziurtatu beharko du berak eskatzen dituen goi-mailako analisi- eta zaintza-estandarrak betetzen dituela laborategiak. Hartara, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.1[3] artikuluan aurreikusitako urraketak soil-soilik zehaztu ahal izango dira Dopinaren aurkako Mundu Agentziak egiaztatutako laborategi batek edo agentzia horrek berak berariaz onartutako laborategi batek egindako laginen azterketaren bidez; beste artikulu batzuen urraketak, berriz, beste laborategi batzuen emaitza analitikoak erabiliz zehaztu ahal izango dira, betiere emaitzak fidagarriak badira.

Hala ere, badirudi Kiroleko Dopinaren aurkako Legean zorrotzago jokatu nahi izan dela dopinaren aurkako analisiak egiten dituzten laborategiei eskatzen zaien kualifikazioari dagokionez, eta ez da egiten Dopinaren aurkako Mundu Kodeak arau-haustea nolakoa den kontuan hartuta egiten duen bereizketa, eta, betiere, eskatzen da laginen analisiak Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren nazioarteko egiaztapena duten edo agentzia horrek berak onartuta dauden laborategiek egiteko. Zorroztasun handiago hori kontu nagusiki teknikoa da, eta, horri dagokionez, ez zatekeen sobera egongo azalpen tekniko bat aurreproiektuari gehitutako justifikazio-memorian.

Nolanahi ere, gogoan hartu beharko litzateke Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan aurreikusitakoa, eta, horregatik, ekimenaren sustatzailea den zuzendaritzaren iritzi teknikoaren esku uzten dugu estatu-homologazioa duten laborategiek egindako analisien balioa onartzeko aukera.

> Ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoaren 20.2 artikulua: Lehiaketa barruan edo kanpoan kirolariei egindako dopin-kontroletan, kirolean debekaturik dauden gaiak eta metodoak hautemateko analisiak Dopinaren Aurkako Mundu Agentziaren nazioarteko egiaztapena duten laborategietan edo Estatuak homologatuetan egin beharko dira.

19. ARTIKULUA:

> 19. artikulua. Kirolean debekatuta dauden substantzia eta metodoen zerrendaren publizitatea.
> 1.- Nazioarteko erakundeek onartutako xedapenen esparruan, Eusko Jaurlaritzak kirolean debekatuta dauden substantzien eta metodoen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko eskatuko du. Gainera, zerrendan aldaketak egiten diren guztietan, berriro argitaratuko da zerrenda.
> 2.- Eusko Jaurlaritzak debekatuta dauden substantzien eta metodoen zerrendari buruz informatzeko eta kontsultak egiteko beste modu batzuk ezarriko ditu. Horretarako, erakundeen eta kirolarekin zerikusia duten organoen orri digitaletan erantsiko du zerrenda, eta, horrezaz gain, zerrendaren berri emateko, hedatzeko eta eskura izateko bestelako moduak eta bitartekoak ere ezarriko ditu.

1. idatzi-zatiaren ordez, honako testu hau jartzen da:

---

[3] 2.1 Kirolari baten *laginean substantzia debekatu* bat edo berorren *metabolitoak* edo *markatzaileak* egotea.

> «1.- Nazioarteko erakundeek onartutako xedapenen esparruan, Eusko Jaurlaritzak kirolean debekatuta dauden substantzien eta metodoen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko eskatuko du, Estatuaren Administrazio Orokorrak Estatuko Aldizkari Ofizialean agintzen duen argitaratzea eragotzi gabe. Gainera, zerrendan aldaketak egiten diren guztietan, berriro argitaratuko da zerrenda.»

Aldaketa hori Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetza Batzordean Euskadiko Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legeaz den bezainbatean hartutako erabakiaren ondorioz sartzen da. Batzorde horretan 19.1 artikuluaren interpretazio jakin bat proposatu zen, eta artikulua interpretazio horretara egokitu da:

> «B) Euskal Autonomia Erkidegoaren 12/2012 Legeko 19.1 artikuluaren interpretazioa hitzartu dute parte biek, ondoren zehazten den legez:
> "Estatuko Aldizkari Ofizialean", CSDak argitarazten duen zerrendaren publizitate gehigarritzat ulertu behar da honako eskumenen honetakoa: kiroletako metodo eta substantzia debekatuen zerrenda ofiziala argitara dadila agintzeko, Eusko Jaurlaritzak duena. Aldizkari horretako aipatu argitarapena honela egiten da: nazioarteko konpromiso eta obligazioen markoaren barruan, eta Osasuna Babesteko eta Kiroleko Dopinaren Aurkako azaroaren 21eko 7/2006 Lege Organikoko 12.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriaz.»

Nolanahi ere, komeniko litzateke erabakia ez aldatzea bere horretan EAEko Administrazio Orokorraren egitura funtzional eta organikora, baizik eta egokitzea. Hau da, proposatutako izapidea (EHAAn argitaratzea Estatuko Administrazio Orokorrak kirolerako agindutako substantzia eta metodo debekatuen zerrenda) gai-arloa dela eta eskumena duen sailburuaren Agindu bidez egin liteke, ez baita beharrezkoa, zerrenda hori EHAAn argitaratzeko, Gobernu Kontseiluak horretarako erabakia hartzea.

21. ARTIKULUA:

Aldatu nahi den artikuluak hau dio:

> 21. artikulua. Administrazio-zehapenen araubidearen aplikazio-eremua.
> 1.- Lege honetan dopinari buruz jasotzen den arau-hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko zaie, bidezko den heinean, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan gertatzen diren egiteei edo ez-egiteei, edozein kirol-lehiaketatan gertatzen direla ere, dela kirol-lehiaketa autonomia-erkidegoaren eremukoa, dela estatuaren eremukoa edo nazioartekoa, nazioarteko kirol-federazioek edo nazioarteko erakunde olinpikoek edo paraolinpikoek antolatua. Ez da beharko lotura bereziko harremanik egon dadin, eta egiteak edo ez-egiteak lehiaz kanpoko kirol-jardueretan ere gauza daitezke.
> 2.- Aurreko paragrafoan xedatutakoa lege honen 32. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe ulertzen da.

21. artikuluaren 1. idatzi-zatiak idazkera hau izango du:

> «1. Lege honetan dopinari buruz jasotzen den arau-hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko zaie, bidezko den heinean, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan gertatzen diren egiteei edo ez-egiteei, salbu eta nazioarteko kirol-federazioek edo nazioarteko erakunde olinpikoek edo paraolinpikoek antolaturiko estatu edo nazioarte mailako kirol-lehiaketa ofizialetan gertatzen direnei. Ez da beharko lotura bereziko harremanik egon dadin, eta egiteak edo ez-egiteak lehiaz kanpoko kirol-jardueretan ere gauza daitezke.»

Artikulu honen idazkera, halaber, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetza Batzordean Euskadiko Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legeaz den bezainbatean hartutako lehen aipatu erabakiaren ondorio da:

> «C) Zehapen-araubide administratiboaren aplikazio-eremua dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2012 Legeko 21.1 artikuluaren interpretazioa hitzartu dute bi parteek. Eta interpretazio horren arabera, zehapen-araubide administratibotik kanpo geratzen dira honako hauek: Estatu mailako kirol-lehiaketa ofizialetan jazotako ekintza eta omisioak, eta bai nazioarteko kirol-lehiaketetan, zehazki, nazioarteko kirol-federazioek edo erakunde olinpiko edo paraolinpikoek antolatutakoetan jazotakoak.»

Hala ere, proposatutako idatzi-zatiko azken tarteko hobeto idatzi beharko litzateke. "Ez da beharko lotura bereziko harremanik egon dadin, eta egiteak edo ez-egiteak lehiaz kanpoko kirol-jardueretan ere gauza daitezke". Idazkera hobetzeko, artikuluan ordena aldatzea proposatzen dugu, eta amaiera hasierara eramatea: "1. Lege honetan dopinari buruz jasotzen den arau-hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko zaie, bidezko den heinean, EAEko lurralde-eremuan edozein kirol-jardueratan, lehiazkoak izan zein ez, gertatzen diren egiteei edo ez-egiteei, lotura bereziko harremanik egotea beharrezkoa izan gabe. Hala ere, salbuetsita daude estatuko edo nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan gertatzen direnak, nazioarteko kirol-federazioek edo nazioarteko erakunde olinpikoek edo paraolinpikoek antolatuta badaude.

Hartara, artikuluaren idazkera hobetu egiten da, eta, era berean, gaztelaniaz, gerundioaren ("quedando excluidas") erabilera —ohikoa, baina ez horregatik zuzena— ere saihesten da.

22 BIS ARTIKULUA:

Artikulu berri bat gehitzen da; hitzez hitz:

> «22 bis artikulua.- Behin-behineko etendura.
> 1.- Baldin eta debekaturiko metodo batekin edo substantzia espezifiko bat ez den debekaturiko substantzia batekin loturiko aurkako emaitza analitikorik jasotzen bada, behin-behineko etendura ezarriko da berehala, behin egiaztatuz gero ez dela erabilera terapeutikoko baimenik eman eta ez dela emango, edota ez dela gertatu kontrol eta ikerketetarako nazioarteko estandarren itxurazko

desbideratzerik edo laborategietarako nazioarteko estandarren desbideratzerik.
2.- Ezingo da behin-behineko etendurarik ezarri, horren aurretik — edo ondoren, urgentziaz— kirolariari entzunaldiaren izapidea izateko aukerarik ematen ez bazaio.»

Artikulu hori X. tituluaren barruan kokatzen da, eta behin-behineko etendura gertatzeko aukera jasotzen du, emaitza analitikoa aurkakoa bada, eta betiere egiaztatzen bada ez dela eman eta ez dela emango erabilera terapeutikoko baimenik, edo ez dela desbideratzerik izan kontroletarako edo laborategietarako estandarretan. Era berean, prozeduran, behin-behineko etenduraren aurretik, entzunaldi-izapidea ezartzen da, edo, urgentzia izanez gero, etenduraren beraren ondoren. Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 7.9.1 artikuluko "nahitaezko behin-behineko etendura" delakoaren translazioa da; izan ere, etendura hori metodo debekatu edo substantzia espezifiko bat ez bezalako substantzia debekatu batengatik aurkako emaitza analitikoa gertatzen den kasuetarako aurreikusita dago.

Hala ere, zehapen-araubideari dagokionez, bereziki bermatzailea izan behar da, eta, horregatik, honako gomendio hauek egin behar ditugu artikulu horretaz:

- Euskadiko Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen espariu subjektiboaren zabaltasuna dela eta, ahalegina egin beharko litzateke zehazteko zer elementuri eragiten dion "behin-behineko etendurak". Kontuan hartzen badugu legearen hausle izan daitezkeen guztiak ez daudela lotuta lotura bereziko harremanei, behin-behineko etendura soil-soilik lizentziaren etendurari buruzkoa den zehaztu beharko litzateke.
- Kontuan hartuta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 134.3 artikuluak esaten duela ezin dela inola ere zehapenik ezarri, horretarako behar den prozedura izapidetu ez bada, eta lege bereko 136. artikuluak xedatzen duela erabaki arrazoitu bidez behin-behineko neurriak har daitezkeela azken ebazpenaren eragin kortasuna ziurtatzeko, zehatzeko prozeduren arauetan horrelakorik ezartzen bada, ulertzen dugu behin-behineko neurri bat hartzeak salbuespenezko eta behar bezala arrazoitutako zerbait izan beharko lukeela, eta arrazoitzeko betebehar hori berariaz jaso beharko litzatekeela 22 bis artikuluan.
- EAEko araudian dauden prozeduren dualtasuna dela eta, zehaztu beharko litzateke behin-behineko etenduraren aukera horrek bi prozedura-motei eragiten dien; hau da, diziplina-prozedurei ere eragiten dien.
- Era berean, behin-behineko neurriaren gehieneko iraupena zehaztu beharko litzateke, kirolariek prozedurak ebaztean atzeratzearen ondorioz kalte konponezinik izan ez dezaten.
- Azkenik, gaztelaniaz, akats ortografiko hau zuzendu beharko litzateke: "una vez que **sea producido** la confirmación".

Hitz batean, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 7.9.1 artikulua EAEko Legearen alderdi espezifikoetara egokituta idazteko gomendatzen dugu.

23. ARTIKULUA:

23. artikuluaren 1. idatzi-zatian, oso larri diren beste bi arau-hauste tipifikatzen dira: alde batetik "Dopinaren aurkako arauak urratzearekin edo urratzen saiatzearekin lotutako arau-hauste bat dela eta, hartan laguntzea, bultzatzea, esku ematea, akuilatzea, kolaboratzea, konspiratzea, estaltzea edo bestelako konplizitate mota" (m idatzi-zatia), eta, bestetik, "Kirolari batek edo dopinaren aurkako erakunde baten agintearen mendeko pertsona batek lotura profesionala edo kirol-mailako lotura izatea dopinaren alorreko arau-hauste batengatik zehapen penala, diziplinazko zehapena edo administrazio-zehapena jaso duen beraren inguruko pertsona batekin, betiere horren berri idatziz jakinarazi badu dagokion dopinaren aurkako erakundeak, Dopinaren aurkako Mundu Kodeak agintzen duen eran.» (n idatzi-zatia).

Bi agindu berri horiek Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.9[4] artikulua (konplizitatea) eta 2.10[5] artikulua (elkartze debekatua) jasotzearen ondorio dira.

---

[4] Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.9 artikulua: «Konplizitatea.
Beste pertsona batek dopinaren aurkako arauak urratzearekin edo urratzen saiatzearekin edo 10.12.1 artikulua urratzearekin lotutako arau-hauste bat dela eta, hartan laguntzea, bultzatzea, esku ematea, akuilatzea, kolaboratzea, konspiratzea, estaltzea edo bestelako nahitako konplizitate mota.»

[5] Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.10 artikulua: Elkartze debekatua.
Kirolari batek edo *Dopinaren aurkako erakunde* baten agintepeko *pertsona* batek, profesional moduan edo kirolarekin zerikusia duen beste zerbait izanda, *kirolariari laguntzeko* edozein *pertsonarekin* elkartzea:
2.10.1 *Dopinaren aurkako erakunde* baten aginpideari lotuta badago, *etendura*-aldi bat betetzen ari denean;
2.10.2 *Dopinaren aurkako erakunde* baten aginpideari lotuta ez badago, eta *Etendurari* ez bazaio heldu *Kodean* jasotako emaitzen kudeaketa-prozesu batean, kondenatu edo errudun jo dutenean zigor-, diziplina- edo lanbide-prozedura batean dopinaren aurkako arauak haustea diren jokabideak izategatik, *pertsona* horri *kodearen* araberako arauak aplikatuz gero. *Pertsona* horren deskalifikazio-estatusa indarrean egongo da sei urtez zigor-, lanbide- edo diziplina-erabakia hartzen denetik, edo zigor-, diziplina- edo lanbide-zehapena indarrean dagoen bitartean.
2.10.3 Pertsona hori 2.10.1 edo 2.10.2 artikuluan deskribatutako *pertsona* baten estaltzaile edo bitartekari gisa jokatzen ari bada. Xedapen hau aplikatzeko, beharrezkoa da *kirolariak* edo beste *pertsona* batek aurretik *kirolariaren* edo beste *pertsona* horren gaineko jurisdikzioa duen *dopinaren aurkako erakunde* baten edo *Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren* idatzizko jakinarazpena jaso izana *kirolariari laguntzeko pertsonaren* deskalifikazio-egoerari buruz, eta elkartze debekatuak izan dezakeen *ondorioari* buruz, eta *kirolariak* edo beste *pertsonak* zentzuz saihetsi ahal izatea elkartze hori. *Dopinaren aurkako erakundeak* ere zentzuz egin daitekeen guztia egingo du, zertarako eta *kirolariari* edo beste *pertsonari* igorritako jakinarazpenaren xede den *kirolariari laguntzeko pertsonari* jakinarazteko *kirolariari laguntzeko pertsona dopinaren aurkako erakundean* azal daitekeela 15 eguneko epean, 2.10.1 eta 2.10.2 artikuluetan deskribatutako irizpideak bere kasuan ez direla aplikagarriak adierazteko. (17. artikuluan xedatua baztertu gabe, *kirolariari laguntzeko pertsonaren* jokabide deskalifikatzailea 25. artikuluan indarrean jartzeko adierazitako egunaren aurretik gertatuta ere aplikatzen da artikulu hau).
Kirolariari edo beste *pertsonari* egokituko zaio frogatzea 2.10.1 edo 2.10.2 artikuluan deskribatutako *kirolariari laguntzeko pertsonarekiko* edozein elkartze ez dela profesionala, edo ez duela zerikusirik kirolarekin.
2.10.1, 2.10.2 edo 2.10.3 artikuluan deskribatutako irizpideak betetzen dituzten *kirolariei laguntzeko pertsonen* berri duten *dopinaren aurkako erakundeek Dopinaren aurkako Mundu Agentziari* helarazi beharko diote informazio hori.
[2.10 artikuluari buruzko iruzkina: Kirolariek eta beste pertsonek ez dute lan egin behar entrenatzaileekin, medikuekin edo kirolariei laguntzeko beste pertsonekin, baldin eta

m) idatzi-zatiari dagokionez, zerbitzu sustatzailearen esku uzten dugu esatea zer iruditzen zaion aipatu idatzi-zati hori jasotzeko beharrik eza, jokaera hori zehatuta dagoelako Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 23.1 artikuluko i) eta j) idatzi-zatien bidez. Nolanahi ere, gaztelaniaz, proposatutako m) idatzi-zatian, ez da ulertzen azken tartekia: "o cualquier intento de infracción".

n) idatzi-zatiari dagokionez, esan daiteke ez dela ulertzen nori buruzkoa den aipatzen den jakinarazpena.

Azkenik, n) idatzi-zatian, gaztelaniaz, "notificada" jarri beharko litzateke "notificado" dagoen lekuan.

24. ARTIKULUA:

Araubide zehatzailea aldatu eta honako aldaketa hauek egiten dira:

Artikulu honetan, aplika daitezkeen zehapenak tipifikatzen dira, eta, ondoren, kirolariaren erantzukizuna mailakatzeko arau batzuk jasotzen dira, izan duen jokaeran erakutsitako nahitasuna oinarri hartuta.

Artikuluaren bidez, Euskadiko Legearen zehapen-araubidea Dopinaren aurkako Mundu Kodera egokitzen ahalegintzen da. Hala ere, ez zen bere horretan sartu behar Dopinaren aurkako Mundu Kodearen testua 24. artikuluaren barruan; aitzitik, behar ziren aldaketak egin behar ziren, gure legea aurreikusitako zehapen-araubidera behar bezala egokitzeko. Hau da, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen testua (10.2[6], 10.3[7], 10.4[8], 10.5[9] eta 10.6[10] artikuluak) aurreproiektura eraman da, baina ez dira berraztertu gure legean aurreikusita zeuden zigorraldiak, eta, horregatik, 5. idatzi-zati berria irakurrita 24. artikuluko 1.-3. idatzi-zatiekin batera, nolabaiteko kontraesanak ondorioztatzen dira 5. idatzi-zatia Euskadiko Legean aurreikusitako urraketa-motei aplikatzean. Adibidez, 5. artikuluan esaten da espezifikoa ez den substantzia bat erabiltzea den oso arau-hauste larri bat lehenengoz gertatzen denean, arau-hauste hori bi urtekoa baino izango ez den zigorraldi batez zehatu ahal izango dela, kirolariak egiaztatzen badu arau-haustea ez zela nahitakoa izan. Hortaz, 23. artikuluko h) eta i) letretako arau-hausteetako baten kasuan, zigor aplikagarria artikulu horretako bertako bigarren idatzi-zatian aurreikusitako muga baino

---

zigortuta badaude dopinaren aurkako arauak urratzeagatik, edo zigor-kondena izan badute, edo diziplina-neurri profesionalak ezarri bazaizkie dopinari lotuta.
Hona hemen debekatuta dauden elkartze-motetako batzuk: aholkularitza lortzea prestakuntzaz, estrategiez, teknikez, nutrizioaz edo kontu medikuez; terapia, tratamendua edo errezetak lortzea; edozein produktu organiko ematea analisia egiteko; edo baimena ematea kirolariari laguntzeko pertsonari, agente edo ordezkari gisa aritzeko. Ez da beharrezkoa debekatutako elkartzeak inolako konpentsaziorik izatea.]

[6] Zigorrak substantzia debekatu bat edo metodo debekatu bat egoteagatik, erabiltzeagatik edo erabiltzen saiatzeagatik, edo edukitzeagatik.

[7] Zigorra dopinaren aurkako arauen beste urraketa batzuengatik.

[8] Zigorraldia kentzea errurik edo zabarkeriarik ez izateagatik.

[9] Zigorraldia murriztea erru edo zabarkeria aipagarririk ez izateagatik.

[10] Zigorraldia edo erruduntasuna ez bezalako beste arrazoi batzuen ondorioak kentzea, murriztea edo etetea.

txikiagoa litzateke (4-6 urte). Era berean, espezifikoa ez den substantzia bat dagoela hautematen bada, eta 23. artikuluko lehen idatzi-zatiko a), b), c), d), e), f), g), j) eta l) letren oso arau-hauste larriak baditugu, espezifikoa ez den substantzia horren presentziak zehapen-ondorioa larritzen du, eta 24.1 artikuluan aurreikusitako zigorraldi handiena ezartzen da (bi urtetik lau urtera arteko zigorraldi posiblea). Hala ere, 23.1 artikuluko h) eta i) letretan aurreikusitako kasuetan espezifikoa ez den substantzia bat egoteak leundu egiten du erantzukizuna, eta aldi laxoenarekin zigortzen da(litekeen aldia lau eta sei urte bitartekoa da).

Ildo beretik, espezifikotzat jotako substantzia bat eta nahitako jokabide bat baditugu, gauza bera gertatzen da; lehen kasuan (23.1 artikuluko a, b, c, d, e, f, g, j eta l idatzi-zatiak), zigorraldi handienarekin zehatzen da, baina zehapen-aldi txikiena aplikatzen da 23.1 artikuluko h) eta i) letretan tipifikatutako arau-hausteak badira, nahiz eta jokaera horrek, nahitakoa izanda, hasiera batean larriagoa dela eman, eta sei urtera arteko zigorra jarri ahal izan.

Horren guztiaren ondorioa da ezen lege-testua Dopinaren aurkako Mundu Kodera egokitzean, ez liratekeela hitzez hitz sartu behar Kodeko idatzi-zati jakin batzuk gure legearen testuan; aitzitik, behar bezala egokitu beharko lirateke Dopinaren aurkako Mundu Kodearen edukiak gure araura, eta hori kontraesanak oro saihesteko.

Hartara, halaber, kontraesanak aurkitzen dira 24. artikuluko 8. idatzi-zati berriaren eta 1. idatzi-zatiaren artean, hala nola 24. artikuluko 9. eta 2. idatzi-zatien artean.

Hortaz, 24. artikuluko 1.-3. idatzi-zatiak berraztertzeko gomendatzen zaio zuzendaritza sustatzaileari.

Azkenik, artikulu honi dagokionez, gaztelaniaz, termino egokiago bat jarri beharko litzateke "involucre" terminoaren ordez 5.b) idatzi-zatian. Era berean, c) idatzi-zatia oso nahasia da.

24 BIS ARTIKULUA:

Beste artikulu bat gehitzen da, arau-hauste anizkoitzengatiko zehapenak arautzeko:

> «24 bis artikulua.- Arau-hauste anizkoitzengatiko zehapenak.
> 1.- Bigarrenez urratzen badira dopinaren aurkako arauak, hauek izango dira etendura-epeak:
> a) Sei hilabete.
> b) Dopinaren aurkako lehenengo arau-haustean ezarritako etendura-epearen erdia.
> c) Bigarren arau-hausteari lehenengoa izango balitz aplikatu beharko litzaiokeen etendura-epea halako bi, inongo murrizketarik kontuan hartu gabe.
> Benetan aplikatuko den etendura-epea hiru horietatik luzeena izango da.
> 2.- Hirugarrenez urratzen badira dopinaren aurkako arauak, etendura betiko izango da, bi kasutan izan ezik: hirugarren arau-

hauste horrek badakar aurkitzeko moduan egotearen betebeharra urratzea edo hirugarren arau-hauste horrek zehapenak baliogabetzeko edo murrizteko baldintzak betetzen baditu. Kasu horietan, etendura-epea zortzi urtekoa izango da, gutxienez, eta betiko etendura gehienez.
3.- Dopinaren aurkako arau-haustearen kasu batean kirolariak frogatzen badu ez duela errurik edo zabarkeriarik izan, kontaketari dagokionez ez da aurreko arau-haustetzat joko.
4.- Dopinaren aurkako arau-hauste bat bigarren arau-haustetzat joko da bakarrik egiaztatzen bada arau-hausleak bigarrena egin orduko lehendabizikoaren berri jadanik jasoa zuela edo dopinaren aurkako erakundea behar bezala saiatu bada jakinarazpen hori egiten.
Dopinaren aurkako erakundeak hori frogatzen ez badu, arau-hausteak arau-hauste bakar bat —lehendabizikoa— balira bezala joko da, eta hari ezarri beharreko zehapenak zehapenik larriena dakarren arau-haustea izango du oinarri.
5.- Lehenengo arau-haustea ebatzi ondoren dopinaren aurkako erakunde batek aurkitzen baditu lehenengo arau-hauste hori jakinarazi baino lehenago egindako dopinaren aurkako arauen urraketa batekin loturiko gertakariak, zehapen gehigarri bat jarriko du, arau-hauste biak batera gertatu izan balira jarriko zitzaiokeena, alegia.
6.- Arau-hausteak anizkoitzat jotzeko, nahitaezkoa izango da hamar urteko epean gertatzea.»

Artikulu horrek berekin dakar Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.7 artikulua Euskadiko Kiroleko Dopinaren aurkako Legean sartzea.

Hala ere, berraztertu beharko litzateke 2. idatzi-zatiaren idazkera, eta sinplifikatzen eta zehazten ahalegindu. Era berean, idatzi-zati horretako azken tartekia ez da zuzena gramatikaren ikuspuntutik.

Horregatik, esan behar dugu 24 bis artikulu horretako 4. idatzi-zatiaren idazkera berraztertu beharko litzatekeela, ulertezina baita.

29. ARTIKULUA.

29. artikulua. «Isunak ezartzea.
1.- Pertsonari zehapen gisa ezartzen zaizkion isunak, kirolarien kasuan, diru-sarrerak izaten dituztenean baino ezingo dira ezarri, betiere diru-sarrera horiek kirol-jarduerarekin zerikusia badute.
2- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak ezarritako isunak ordaindu ezean, nahitaez ordainaraziko dira, aplikatzekoa den administrazio-legerian ezarritako moduan.
3.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako prozeduraren bidez bildutako isunen emaitza zuzenbide publikoko diru-sarrera izango da, eta 10. artikuluan adierazitako ikerketa-helburuetarako balatuko da. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak jarduera horretarako behar diren kredituak sortu ahal izango ditu, eta kreditu horiek lege honetan ezarritakoari jarraituz gauzatuko dira.»

29. artikuluan beste bi idatzi-zati berri gehitzen dira:

«4.- Zehapen ekonomikoak gehieneko etendura-epea beste modu batez ezarri den kasuetan bakarrik jarri ahal izango dira.»

> 5.- Dopinaren aurkako erakundeek dopinaren aurkakoarau-hausteek eragindako gastuen errekuperazioa jaso ahal izango dute beren araudi propioan.»

Artikulu horri dagokionez, esan daiteke Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.10 artikulua jasotzen duela; hala ere, ez da ulertzen 4. idatzi-zatiari emandako idazkera. Lehenago esan bezala, saihestu beharko litzateke hitzez hitz jasotzea Dopinaren aurkako Mundu Kodearen itzulpena, eta ahalegina egin beharko litzateke Dopinaren aurkako Mundu Kodearen testua argitzeko eta Euskadiko Kiroleko Dopinaren aurkako Legera egokitzeko.

Memorian argudiatzen da ez dagoela eraginik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuetan, ez eta legearen xede den jarduera-sektorean ere, baina artikulu hori irakurrita kontrako ondorioa atera behar da. Arau-hauste mota berriak jasotzearen ondorioz, dagozkien zehapenak jarriko dira, eta, jakina, horiek diru-sarrerak ekarriko dituzte Administrazio Publikoarentzat.

Alde horretatik, gogorarazi behar diogu zerbitzu sustatzaileari ekonomia- eta araudi-kontrolari lotutako xedapenek gehituta izan behar dutela, oinarrizko dokumentu gisa, besteak beste honako hauek jasoko dituen memoria bat (Euskal Autonomia Elkarteko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42.1 artikulua):

- Hori indarrean jartzeak ekarri ditzan aurrekontu-gastu eta diru-sarreren kuantifikazioa, ohikoak direnak eta kapital-eragiketetatik datozenak berezitu egin beharko direla eta gastu edo diru-sarrera horien destinoa identifikatu egin beharko dela.
- Aurrekontu gastuen finantzaketa, eraginpean dauden baliabideak eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrez aparte ematen diren finantzaketa-iturriak aipatuz.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiak berezko dituen gaietan eta aurrekontu-araubidean eragina duen xedapeneko aldeak identifikatzea, xedapenaren aurrekariak deskribatzea eta horren beharrak justifikatzea.

Horrenbestez, 10.2 artikulurako proposatutako idazkera berria eta 29. artikulu hau irakurrita, ondorioztatu behar dugu aurreproiektuak eragin ekonomiko zuzena duela, eta, beraz, eta memoria ekonomiko egokiaren xede izan beharko lukeela. Azterketa hori ezin atzera daiteke —memorian esaten den bezala— geroagoko erregelamenduzko garapenaren unera arte, eta Administrazio honetako Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin beharreko ekonomia- eta araudi-kontrola baino lehen egin behar da.

> Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena den abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikulua: «Era berean, espedienteak memoria ekonomiko bat edukiko du, eta, hor, egiteko a den arauaren kostuaren zenbatespena azalduko da: gastu eta diru-sarrerak zenbatuta agertuko dira, eta, orobat, herri-administrazioaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturri eta -erak nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauek zehaztutako beste alderdi batzuk.

Egitekoa den arau horren aplikazioak beste administrazio publiko batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du».

30. ARTIKULUA:

«1.- Banakako kirol-jardueretan, atal honetan aurrikusitako arau-hausteak eginez gero, kirolariari kendu egingo zaizkio dena delako kirol-lehiaketako sariak edo dominak, baliogabetu egingo zaizkio emaitzak eta erabateko deskalifikazioa ezarriko zaio dena delako lehiaketa edo proba horretan, edo dena delako lehiaketa edo proba hori sartuta dagoen txapelketetan.
2.- Diziplina-organoek aurreko edo ondoko egunetan egindako proba, lehiaketa edo txapelketei, handik geroago egindakoei edo kirolariaren laginak hartu diren egunean edo arau-haustea egin den egunean egin direnei ere aplikatu ahal izango dizkiete neurri horiek.
3.- Talde-kiroletan, lege honetako 26. artikuluan xedatutakoaren ondorioz dagozkiokeen zehapenak gorabehera, diziplina-organoek adierazi beharko dute ea beren iritziz egokia ote den partiden, proben, lehiaketen edo txapelketen emaitza aldatzea.
Horretarako, egoeraren inguruabarrak haztatuko dituzte, eta orobat, dopina dela-eta atal honetan tipifikatutako arau-hausteak egin dituztenek partidaren, probaren edo lehiaketaren emaitzan izandako parte hartzea erabakiorra izan ote den, eta zer parte hartze izan duten adingabeek jokabide horietan.
4.- Arau-haustearen izaera dela-eta posible denean, ezarritako zehapenekin batera, kirolean dopina eragin duten edo eragin dezaketen gai eta tresna guztiak konfiskatu egingo dira. Zehapena ezartzeko ebazpena dela-eta behin betiko konfiskatu diren gaiak eta tresnak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari esleituko zaizkio harik eta, erregelamendu bidez, haien behin betiko norakoa ezartzen den arte. Nolanahi ere, hori guztia lege honetako 40. artikuluan kautelazko neurri gisa ezartzekoa den konfiskazioari buruz xedatutakoaren kalterik gabe izango da.»

30. artikuluan, 2. idatzi-zatia aldatu egiten da, eta beste 5. idatzi-zati bat gehitzen da; honela idatzita gelditzen dira:

«2.- Analisiaren emaitza aurkakoa gertatu den lehiaketako kirol-emaitzak automatikoki baliogabetzeaz gainera, baliogabetu egingo dira halaber lagina jaso den egunetik edo dopinaren aurkako beste arau-hauste bat egiten denetik harako gainerako kirol-emaitza guztiak, horrek dakartzan ondorio guztiekin —baita dominak, puntuak eta sariak kentzea ere—, ekitate-arrazoiengatik salbu.»

«5.- Aurretik esandakoak ez zu ezertan eragozten hirugarren kaltedunek beren eskubideak baliatzea eta erantzukizun-akzioak egikaritzea, izandako kalte-galerak konpontzeari begira.»

Proposamen honek Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.8 artikulua lege-testura aldatzea dakar. Hala ere, 30.2 artikuluan ondorio zehatzaile bat ezartzen da, baina modulatu egiten da, edo, are gehiago, salbuetsi "ekitate-arrazoiengatik". Ez dakigu zer ekitate-arrazoik eragin dezaketen zehapena ez ezartzea behin arau-haustea egiaztatu eta zehapen-prozedura egokia bideratu ondoren. Horregatik, agindu hau berraztertzeko gomendatu behar dugu, bereziki "ekitate-arrazoiengatik salbu" zatia, eta zerbitzu

sustatzaileari gogorarazi behar diogu zehapen-zuzenbidean jokaera bereziki bermatzailea izan behar dela, eta ahalegindu behar dela argi eta garbi zehazten zer egitate diren arau-haustea, eta zein haien zehapenak, zehaztugabetasun juridikoari tarte irekirik ez uzten ahaleginduta.

31 BIS ARTIKULUA:

Beste artikulu bat eransten da:

> «31 bis artikulua.- Lizentzia eteten den bitarteko estatusa.
> 1.- Lizentzia etenda duen bitartean, ez kirolariak ez beste inork ezingo du parte hartu, inola ere, Dopinaren aurkako Mundu Kodea sinatu duten entitateek edo sinatzaile horietako baten erakunde batek antolatutako ezein lehiaketa edo jardueratan. Debeku horretatik kanpo gelditzen da heziketa-programetan edo errehabilitazio-programetan parte hartzea.
> Debeku horren ondorioz, lizentzia etenda duen pertsonak ezingo du parte hartu entrenamenduetan, erakustaldietan edo antzeko jardueretan, ezta karguak bete edo erantzukizunak izan edo funtzio administratiboak burutu kirol-erakundeetan edo dopinaren aurkako erakundeetan.
> 2.- Lau urtetik gorako etendura-epea ezartzen zaion kirolariak edo pertsonak eskubidea izango du, lau urte igaro eta gero, lehiaz kanpoko kirol-ekitaldietan edo tokiko kirol-ekitaldietan parte hartzeko, baldin eta kirol-modalitate hori arau-haustea egin zuena ez beste bat bada edo harekin erlaziorik ez badu. Parte-hartze hori udal- edo eskualde-mailakoa izango da, ez hortik gorakoa, eta ezin dio zehapena jaso duen **pertsonari** aukerarik eman zuzenean edo zeharka lurralde-esparru handiago bateko txapelketa baterako sailkatzeko; ezin dio aukerarik eman, halaber, kirdari adingabeekin lanean jarduteko.
> 3.- Etendura ezarri zaion kirolariak etendura-epearen azken bi hiletan eskubidea izango du talde batekin berriz ere entrenatzeko edo klub edo kirol-erakunde baten instalazioak erabiltzeko; etendura-epea bi hiletik beherakoa bada, eskubide hori epearen azken laurdenean baliatu ahal izango du.

Artikulu honetan Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.12 artikulua jasotzen da, eta bertan kirolari baten lizentzia etetea dakarren zehapena ezartzearen ondorio jakin batzuk zehazten dira.

Artikulu honi emandako idazkerari dagokionez, zalantza bat sortzen da: Dopinaren aurkako Mundu Kodeak "eteten den bitarteko estatusa" aipatzen du, baina ez du zehazten federazio-lizentzia baten etena izan behar duen ala ez; horregatik, Dopinaren aurkako Mundu Kodea kirolariez eta "beste pertsona" batzuez ari da:

> "Etenaldian zehar, **ezein kirolarik edo beste pertsonak** ezingo du inola ere parte hartu ezein lehiaketa edo jardueratan (...)".

Hala ere, Lege Aurreproiektuan "Lizentzia eteten den bitarteko estatusa" aipatzen da, eta, geroago, "kirolariak" aipatzen dira (uste dugu lizentzia dutenez ari dela), hala nola "beste pertsona" batzuk. Hitz batean, ez dago argi 31 bis artikuluan —"Lizentzia eteten den bitarteko estatusa" du izenburu— lizentzia etenda dagoen bitarteko estatusa soilik aipatzen den,

edo, bestela, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen kopia izanda, hasierako asmoa ote zen kirolari bati ezarritako edozein zigorren estatusa arautzea. Hori Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen esparru subjektiboarekin erlazionatu beharko litzateke, barruan hartzen baititu bai lotura bereziko harreman bati lotutako kirolariak, baina loturarik ez dutenak:

> Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 1.5. artikulua: Legearen aplikazio-eremu subjektibo orokorrak euskal federazio-lizentzia duten kirolari guztiak hartzen ditu bere baitan, unibertsitatekoa zein eskolakoa izan, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan antolatzen diren kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko baimena ematen duen federazio-lizentzia dutenak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan lehiatzen diren kirolari guztiak ere. Era berean, kirola Euskadin egiten duten pertsona fisiko eta juridiko guztiei ere ezarriko zaie legea, nahiz eta kirol-jarduera hori aldi batez baino ez egin, eta baita kirol-jardueretan parte hartzen duten animalien jabeei ere. Aplikazio-eremu subjektiboa esandakoa izanik ere, kirolari horiek estatuko edo nazioarteko kirol-jardueretan parte hartzen dutenean edo eremu horretako lizentziak ere izateagatik, estatuko eta nazioarteko xedapenak bete beharko dituzte.

Berriz ere esan behar da ez direla beren horretan aldatu behar Dopinaren aurkako Mundu Kodearen zatiak, eta EAEko legearen ezaugarrietara egokitu behar direla.

Azkenik, honako hau zuzendu beharko litzateke 2. idatzi-zatian, gaztelaniaz: "se desarrolla a un nivel en el que **el o la persona sancionada**"; horren ordez, hau jarri beharko litzateke: "se desarrolla a un nivel en el que **la persona sancionada**".

34. ARTIKULUA:

Arau-hausteen eta zehapenen preskribatze-araubidea aldatu egiten da:

> 34. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak preskribatzea.
> 1.- Arau-hauste oso larriak hiru urteren buruan preskribatuko dira, eta larriak bi urteren buruan. Falta oso larriengatik ezarritako zehapenak hiru urteren buruan preskribatuko dira, eta falta larriengatik ezarritakoak bi urteren buruan.
> 2.- Baldin eta, pertsona edo erakunde interesdunaren jakinaren gainean, diziplina- edo zehapen-prozedurari ekiten bazaio, eten egingo da arau-hausteen preskripzioa; nolanahi ere, espedientea, ustezko erantzuleari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, hilabete baino luzaroago geldirik egoten bada, preskripzio-epea zenbatzen jarraituko da. Aurreko hori gorabehera, preskripzioaren etendurak bere horretan jarraituko du, lege honen 32. artikuluan aurreikusitako kausaren batengatik eten bada; nolanahi ere, preskripzio-epea zenbatzen jarraituko da, legez prozedurari berrekin ahal zaionetik hilabete igaro denean.
> 3.- Era berean, lagundu izanagatik zehapenaren azkentzea eragiten duen prozedura hasten bada, zehapenen preskripzio-epea eten egingo da; nolanahi ere, epea zenbatzen jarraituko da prozedura azkentzerik gabe amaitu eta ebatzi denetik hilabete igaro denean.

Hala, 34. artikulua honela idatzita geratu da:

«34. artikulua.- Arau-hausteak eta zehapenak preskribatzea.
1.- Ezin da dopinaren aurkako arauak hausteagatik prozesurik hasi lege honen mendean dagoen **beste** pertsona baten aurka, prozesua ez bada hasten arau-haustea egiten den egunetik hamar urte igaro baino lehen.
2.- Era berean, laguntzeagatik zehapenaren azkentzea eragiten duen prozedura hasten bada, zehapenen preskripzio-epea eten egingo da; nolanahi ere, epea zenbatzen jarraituko da prozedura azkentzerik gabe amaitu eta ebatzi denetik hilabetea igaro denean.»

34. artikuluan, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 17. artikulua Kiroleko Dopinaren aurkako Legera aldatzen saiatzen da; artikulu horrek hau dio hitzez hitz:

Ezingo da prozesurik hasi dopinaren aurkako arauak urratzeagatik kirolari edo beste pertsona baten aurka, baldin eta azken horri ez bazaio jakinarazi dopinaren aurkako arauen urraketa 7. artikuluan xedatuaren arabera, edo zentzuzko moduan ahalegindu bada hari jakinarazten aipatutako urraketa egin eta hurrengo hamar urteko epearen barruan.

34. artikuluak preskripzio-epe bakarra ezarri nahi du, arau-haustea edonolakoa izanda ere (oso astuna, astuna edo arina).

Zuzendu egin beharko litzateke 1. idatzi-zatiaren idazkera; izan ere, "kirolari baten aurka" zatia kendu denez, "beste" hori arraroa da, eta 34.1 artikulua ulertzea zailtzen du.

Bestalde, zehapenak preskribatzeko epea kentzen da, baina ez da beste eperik ezartzen. Alde horretatik, esan behar dugu gauza bat dela arau-hausteak preskribatzeko epea, eta beste bat zehapenak preskribatzeko epea. Hortaz, zuzendu egin behar da idatzi-zati hori. Zehapenei dagokienez preskripzio-eperik ezarri ezean, ulertuko genuke ordezko aplikazioa izango luketela Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean jasotakoek.

37. ARTIKULUA:

Bost idatzi-zati berri (6.etik 10.era bitartekoak) gehitzen dira diziplina-prozeduren alorreko eskumenari buruzko artikuluan, 37.ean.

37. artikulua. Diziplina-prozeduren alorreko eskumena.
1.- Dopinaren alorreko diziplinazko ahala Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioei dagokie, bai eta, erkidego horretan egiten diren kirol-lehiaketetan izaten den parte-hartzea dela-eta lotura bereziko harremana duten gainerako erakundeei ere.
2.- Diziplina-espedienteak izapidetzea eta ebaztea, hasiera batean, arestian aipatutako erakundeetako diziplina-organoei dagokie, haien estatutu eta erregelamenduetan aurreikusitako baldintzetan.
3.- Espedienteak, betiere, bi hileko gehienezko epean ebatzi beharko dituzte kirol-federazioetako diziplina-organoek eta lotura bereziko harremana duten gainerako erakundeek. Laborategiak diziplina-organoari lortutako azken emaitzari buruz ematen dion jakinarazpen fede-emailetik kontatuko da epe hori.

Dena dela, epe hori espedientea ebatzi gabe igarotzen bada, espediente hori edozein izapidetan egonda ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak hartuko du bere gain eskumena, eta hark jarraituko ditu aurreikusitako izapideak, espedientea amaitu eta ebatzi arte. Aurrekoa gorabehera eta espediente jakin batean agertzen diren inguruabarrak direla eta, aurreko paragrafoan aipatzen den epea luzatu ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, baldin eta epea iraungi aurretik inork berariaz eskatzen badu.

4.- Lege honetako aginduak ez betetzea dela-eta egin beharreko diziplina-espedienteak izapidetzea eta ebaztea, baldin eta kirol-federazioetako eta antzeko eginkizunak dituzten erakundeetako zuzendari-karguei eragiten badiete, berriz, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ardura izango da administrazio-auzialdi bakarrean. Prozedura hori bideratuko da kirol-arloan Euskadin indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezarritako arauen arabera eta garapeneko araudiaren arabera.

5.- Dopinaren alorreko diziplina-prozedura, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esku-hartze fasea barne dela, gehienez ere sei hileko epean amaitu beharko da, prozedurari hasiera emateko erabakia hartzen denetik kontatzen hasita. Paragrafo honetan ezarritako epemuga igaro eta ebazpen adierazirik jakinarazi ez bada, prozedura iraungita geratuko da.

6.- Dopin-kontrolen emaitzak kudeatzeko ardura, hasiera batean, laginak biltzeko lana hasi edo burutu duen dopinaren aurkako erakundearena izango da. Laginik biltzen ez bada, kudeaketa horren ardura izango da arau-hausleari dopinaren aurkako arauak urratu dituela lehendabizikoz jakinarazten dion eta gero arau-haustea arduraz pertsegituko duen dopinaren aurkako erakundearena.

7.- Dopinaren aurkako erakundeen artean gatazkarik sortzen bada, emaitzak kudeatzeko ardura nork duen, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak ebatziko du arazoa.»

8.- Laginak biltzeko lana hasi eta burutzen duen dopinaren aurkako erakunde batek beste entitate baten esku uzten badu emaitzak kudeatzeko lana, egiaztatu beharko du eskuordetza jaso duen entitate horren arauak bat datozela Dopinaren aurkako Mundu Kodearekin.»

9.- Kirolariak lokalizatzeko betebeharrak urratzetik eratortzen diren emaitzak kudeatzeko eskumena kirolariak lokalizazio-datuak bidali behar zituen dopinaren aurkako erakundearena izango da.»

10.- Emaitzak kudeatzeko prozedura batean kirolariak atzera egiten badu, prozedura daraman dopinaren aurkako erakundeak eskumena izango du prozedura bururaino eramateko.»

Gehitutako idatzi-zatien edukiak —dopinaren aurkako kontrolen emaitzen kudeaketari eta dopinaren aurkako erakundeen jarduera tik sor daitezkeen gatazkei buruzkoa— ez du lotura zuzenik diziplina-prozedurarekin; izan ere, azken hori 37. artikuluan garatzen da, eta, horregatik, berriz aztertu beharko litzateke artikulu horretan jasotzea. Idatzi-zati hauen bidez, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 7.1 artikulua jasotzen ahalegintzen da:

7.1 Emaitzak kudeatzeko eskumena.

Hurrengo 7.1.1 eta 7.1.2 artikuluetan xedatuaren arabera izan ezik, emaitzen kudeaketan eta entzunaldiak egiteko prozeduran lagina jasotzeari ekin eta jasotze hori gauzatu duen dopinaren aurkako

erakundearen arauak aplikatuko dira (edo laginik jaso ez bada, dopinaren aurkako arauaren urraketa kirolariari edo beste pertsona bati lehenengoz jakinarazi dion eta gero dopinaren aurkako arauen urraketa arduraz pertsegitzen duen erakundearenak). Emaitzak kudeatzen dituen edo entzunaldiak egiten dituen erakundea edozein izanda ere, artikulu honetan eta 8. artikuluan jasotako printzipioak bete egingo dira, eta kontuan hartuko dira 23.2.2 artikuluan identifikatutako arauak, hitzez hitz jaso behar baitira.
Dopinaren aurkako erakundeen artean gatazkarik sortzen bada, emaitzak kudeatzeko ardura nork duen, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak ebatziko du arazoa. Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren erabakiaren aurkako errekurtsoa jarri ahal izango du gatazkan nahasitako dopinaren aurkako edozein erakundek Kiroleko Administrazio Auzitegian, erabakia jakinarazi eta zazpi eguneko epean. Kiroleko Administrazio Auzitegiak trabarik gabe aztertuko du errekurtsoa, eta arbitro bakar batek entzungo du.

Gure ustez, artikulu hau ez da bakarrik beren kideez den bezainbatean diziplina-ahalmena duten erakundeei buruzkoa, bai eta zehatzeko administrazio-ahalmena erabiltzeko eskumena duten dopinaren aurkako erakundeei buruzkoa ere.

Gaztelaniaz, akats gramatikal hau zuzendu beharko litzateke: "que notifique primero al infractor **de** la vulneración". Hala ere, esaldia berriz aztertzeko eta idazkera honela hobetzeko gomendatzen dugu: "Laginik biltzen ez bada, kudeaketa horren ardura izango da arau-hausleari dopinaren aurkako arauak urratu dituela **lehendabizikoz** jakinarazten dion eta gero arau-haustea arduraz pertsegitzen duen dopinaren aurkako erakundearena.»

Bestalde, esan daiteke ezen, aldatzen den legea eta legean araututako prozedurak ikusita, ez dela ulertzen 5. idatzi-zatia.

37.10 artikuluan, gaztelaniaz, aditza zuzendu egin beharko da ("se retiran"), pluralean baitago, eta singularrean jarri, subjektua singularra delako.

38 BIS ETA 38 TER ARTIKULUAK:

Azkenik, bi artikulu berri gehitzen dira: "Zehapenak zabaltzea" eta "Dopinaren alorreko ebazpenak berrikustea":

«38 bis artikulua.- Zehapenak zabaltzea.
1.- Dopinaren aurkako araurik urratzearen ondorioz kirolari batek edo beste pertsonaren batek zehapenik jasotzen badu, arau-hauslearen identitatearen jendaurreko zabalkundea egin beharko du emaitzak kudeatzeko lanaren ardura duen dopinaren aurkako erakundeak, hogei eguneko epean zehapena irmoa den egunetik zenbatuta.
2.- Dopinaren aurkako erakundeak arau-haustea nolakoa den jakinarazi behar du, zer kirol-modalitatetan gertatu den, dopinaren aurkako zer araudi urratu den, zein den zehapena jaso duen pertsonaren izena, zer substantzia edo metodo debekatu erabili den eta zer zehapen jarri diren.
3.- Horren guztiaren berri emango da, gutxienez, dopinaren aurkako erakundearen webgunean, eta hilabete batez egongo da ikusgai;

etendura-epea hilabetetik gorakoa bada, epe horretan egongo da ikusgai.
4.- Arau-hauslea adingabea denean ez da egingo artikulu honetan azaldutako zabalkundea.»

38 bis artikuluan jasotako aukera zenbaitetan aztertu du Datuak Babesteko Espainiako Agentziak (455/2010 Txostena, besteak beste), eta ondorioztatu du egingarria dela dopinaren arloan egindako urraketengatik kirolariei jarritako zigorrak Interneten argitaratzea, betiere ere argitaratze hori Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren araberakoa bada. Horretarako, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, aipatu txosten horretan, zabalkunde horretarako baldintza batzuk aipatzen zituen:

- Kirol-federazioen estatutuak aldatu beharko lirateke, aipatu zehapenak Interneten argitaratzea berariaz jasoko duen artikulu bat haietan sartzeko.
- Interesdunari beti jakinarazi beharko zaio aipatu argitaratze hori, 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan adierazitako moduan.
- Kirol Kontseilu Gorenak gauzatu beharko luke argitaratze hori, txosten honetako VIII. atalean adierazitakoaren arabera.
- Administrazio-bidean irmoak diren zehapenak soilik argitaratu ahal izango dira, eta argitaratze hori ezingo da lehenago egin.
- Argitaratutakoak arau-hausleari buruzko datuak, kirol-espezialitatea, urratutako agindua, ezarritako zehapena eta, soil-soilik guztiz ezinbestekoa bada, kontsumitutako substantzia edo erabilitako metodoa baino ez ditu jasoko.
- Prozedurak ezarri beharko dira bermatzeko Interneten argitaratutako informazioa ezin dela atzitu edo indexatu bilaketa-tresnen bidez.
- Datuak argitaratu ahal izateko gehieneko epea ezingo da inoiz izan federazio-lizentzia etenda edo kenduta egongo den denbora baino handiagoa.
- Nolanahi ere, 15/1999 Lege Organikoaren aurkakoa da zehapen-arloan eskumena duen administrazio publikoa ez den edozeinek argitaratutako datuen geroagoko tratamendua.

Hortaz, neurri horiek proposatutako artikuluari aplikatuta, zehapena argitaratzeko organo eskuduna zehaztu beharko litzateke. Hartara, lege-mailako agindu batean argitaratzeko aukera berariaz aurreikusita, Datuak Babesteko Lege Organikoaren 11.2 artikuluko salbuespena bete egingo litzateke (lege mailako arau batek babestutako lagapena). Ondorioz, aukera hori berariaz zehazten bada, ez litzateke sartu behar izango federazioen edo kirolarien gainean diziplina-ahalmena duten gainerako kirol-erakundeen estatutuetan, kasu horretarako legezko gaikuntza legokeelako. Gainerako baldintzei dagokienez, gure ustez guztiz aplikagarriak dira, eta komeniko litzateke haiek berariaz aipatzea 38 bis artikulu horretan.

Gainera, proposatutako aginduaren idazkerari dagokionez, berriz aztertu beharko litzateke 3. idatzi-zatiaren idazkera; zehazki, gaztelaniaz, "y" juntagailua, atzetik "dejándola expuesta" gerundioa duela.

Gehitu nahi den beste manua honako hau da:

> «38 ter artikulua.- Dopinaren alorreko ebazpenak berrikustea.
> Dopinaren alorrean ematen diren ebazpenak jurisdikziotik kanpoko bidean berrikusteko eremuak auzian garrantzia duten alderdi guztiak hartuko ditu barnean; alegia, beheragoko instantzian eztabaidatu diren auzietara mugatu gabe.»

38 ter artikulua garrantzi gutxikoa da, manu hori aplikazio orokorreko araua delako Espainiako ordenamendu juridikoan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 113.3[11] artikuluari jarraikiz. Gainera, proposatutako 38 ter artikuluak ez du betetzen *reformatio in peius* debekatzeko printzipioa, zeina aurreikusita agertzen baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen aipatu artikuluan. Printzipio hori zigor-prozesuko defentsa-eskubidearen ondoriozko prozesu-berme bat da —zehapen-prozeduran ere aplikagarria—, eta, gure ustez, araututako gai-alor honetan ere garrantzitsua da. Hala ere, berriz esan behar da ez dela beharrezkoa jasotzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 113.3 artikulu osoagoa aplikagarria izateagatik.

- **XEDAPEN IRAGANKORRAK.**

idatzi-zatiaren izena zuzendu beharko litzateke, eta "Xedapen iragankorrak" jarri, bi xedapen aurreikusten direlako, aldekoak ez diren xedapen zehatzaileen atzeraeraginik ezari buruz. Zehazki, aurreikusten da aurreko araudia Legea indarrean jarri aurretik dopinaren alorrean egindako arau-hausteei aplikatuko zaiela, hala nola indarrean jartze hori baino lehen dopinaren errepresioaren alorrean hasitako diziplina-prozedurei. Gainera, erantsitako tarteki batean irekita uzten zaio espedientepean dagoenari, hala nahi badu, arau berriaren edo aurrekoaren aplikazioaz iritzia emateko aukera. Jakina, administratuak aldekoen duen arauaaplikatzeko esango du, baina, gure ustez, tarteki hori ez dator guztiz bat aldekoak ez diren zehapen-xedapenen atzeraeraginik ezaren printzipioarekin (EK-ren 9.3 artikulua); horregatik, idatzi-zati hori bestela adierazi beharko litzateke, ohiko klausula hau erabiliz: "arau berrian xedatua espedientepean daudenentzat aldekoagoa izan ezean" (edo antzeko zerbait).

- **AZKEN XEDAPENA.**

Azkenik, Lege-aurreproiektuak Legea indarrean jartzeari buruzko azken xedapen bat jasotzen du: Legea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

III- LEGE-AURREPROIEKTUA IZAPIDETZEA.

---

[11] Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 113.3 artikulua: «Errekurtsoa ebatziko duen organoak prozedurako arazo guztiak argituko ditu, bai formazkoak bai edukizkoak, interesdunek alegatutakoak izan ala ez. Interesdunek alegatu ez dituzten arazoen gainean ebazpena eman baino lehen, interesdunen iritzia jasoko da. Nolanahi ere, errekurtso-egileak eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena. Ebazpenak ezin du inola ere interesdunaren aurreko egoera okerragotu.»

Lege-aurreproiektua tramitatzeko prozedura Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak ezarritakoa izango da.

Arau horrek esaten du, aurreproiektua idatzi eta abiatze-agindua eman duen organoaren oniritzia eskuratu ondoren, egin beharrekoak izango direla negoziazioko, entzunaldiko eta kontsultako tramiteak. Ondorio horietarako, esan behar da 2015eko otsailaren 18ko EHAAn argitaratu zen Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuaren 2015eko otsailaren 6ko Ebazpen bidez, lege-aurreproiektuaren jendaurreko informazio-izapidea egin zela.

Entzunaldiaren barruan, erakunde hauei igorri zaie aurreproiektua: Euskal Kirol Federazioen Batasunari, Arabako Kirol Federazioen Elkarteari, Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarteari, Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkarteari, Arabako Foru Aldundiari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, Euskadiko Kirol Medikuntza Elkarte-Ekimeri, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan Lizentziatutakoen Elkarte Ofizialari, Medikuen Elkargo Ofizialari (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), Farmazialarien Elkargo Ofizialari (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), Albaitarien Elkargo Ofizialari (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), Osasun Publikoko Zuzendaritzari, Datuen Babeserako Euskal Agentziari, Dopinaren Aurkako Estatuko Agentziari eta Eusko Jaurlaritzako sail guztiei. Era berean, eta posta elektronikoa erabiliz, Lege-aurreproiektua EAEko kirol-federazioei helarazi zaie. Hori guztia egin da abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikuluak betetzeko.

Aurreproiektua egiteko prozeduran, organo edo erakunde hauen nahitaezko txostenak ere eskatu dira:

- Emakunderen txostena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluaren arabera, bai eta Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean hartutako Erabakiaren bigarren irizpidearen arabera ere (erabakia genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoa izan zen).

Proposamenak emakumeen eta gizonen egoeran izan dezakeen eraginari buruzko ebaluazioari dagokionez, honako ohartarazpen hau egin behar da:

Aurreproiektuari gehitutako azalpen-memorian esaten da geroagoko une batean egingo dela litekeen eraginaren ebaluazioa eta, testu artikulatua egin ondoren, azterketa monografiko egokia gauzatuko dela. Era berean, zerbitzu sustatzailek honako hau aurreratzen du: "Ez da aurreikusteko modukoa eragin aipagarririk izatea generoagatik, eta ez da pentsatzen aldaketak egoera diskriminatzaileak bultzatuko dituenik, edo funtsezko eragin desberdina izan dezakeenik gizonen eta emakumeen kolektiboan".

Generoaren araberako eraginaren aurretiko ebaluazioa egiteari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak gehitzeari buruzko jarraibideetako lehenengoaren 2.1.d) idatzi-zatian aurreikusitako kasuaren barruan sartuko litzateke aztertutako testua. idatzi-zati horren arabera, indarrean dauden arauak

aldatzea xede duten lege-proiektuek ez dute generoaren araberako eragin-txostenik izan behar, aldaketa funtsezkoa izan ezean emakumeen eta gizonen egoeraz den bezainbatean.

Hala ere, uste dugu aldaketak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean eragina duen ala ez, eta, hala egoktuz gero, generoaren araberako eragin-txosten egokia egin behar den ala ez, aztertuta egon beharko zukeela izapidetutako testua aurretiaz onartu baino lehen. Azalpen-memorian ez zatekeen atzeratu behar ebaluazio hori, baizik eta, beharrezkoa izatera, egina egon beharko zuketen generoaren araberako eragin-txostena, hori osatu edo aldatu egin baitaiteke araua egiteko prozesuan aurrera egin ahala.

Hortaz, ulertuz gero ez dela beharrezkoa txostena egiteko beharraren salbuespenetako bat izateagatik lehen aipatu lehendabiziko jarraibidearen 2.1.d) idatzi-zatian oinarrituta, memorian zehaztu beharko zen zergatik pentsatzen den aurreproiektuan proposatutako aldaketa ez dela funtsezkoa emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez. Osterantzean, hau da, emakumeen eta gizonen egoerari eragiten dion aldaketa bat balitz, generoaren araberako eragin-txostena egiteko unea, lehentasunez, araua prestatzeko prozeduraren hasierakoa da, eta aurretiazko onarpena baino lehen amaituta egon beharko luke:

> Lehenengo jarraibidea, 5. idatzi-zatia.– «Egiteko prozedura.
> 1) Lehentasunez, etorkizuneko arauaren eta/edo egintzaren (gaia, zertarakoa, esku-hartzeko esparrua, helburu eta neurri nagusiak) zehaztuta daudenean eta testua oraindik idatzi gabe dagoenean (osorik behintzat) hasi beharko da generoaren araberako eraginari buruzko txostena egiten, eta araua edo egintza egiteko prozesuan aurrera egin ahala osatu edo, hala egokituz gero, aldatuz joan beharko da testua. **&&&&&&&&&&&&&&&&**
> 2) Arau juridikoen kasuan, generoaren araberako eraginari buruzko txostena 8/2003 Lege, abenduaren 22ko, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzkoan, hartako 7. artikuluan aurrekusitako **«aurretiazko onarpena» baino lehentxeago amaituko da idazten**; hau da, informaziorako edo jendaurreko faseei hasiera eman eta nahitaezkoak diren txostenak eta irizpenak egin aurretik.»
>
> Hirugarren jarraibidea: «Azalpen Memoria eta Administrazio Arauaren edo Egintzaren Onarpena.
> 1.– Administrazio-araua edo -egintza onartzeko egindako espedientean, 4/2005 Legeko 19. artikulutik 22ra bitarteko artikuluek ezarritakoa betetzeari dagokionez, egindako izapideen memoria edo azalpen zehatza eta horien emaitzak jaso beharko dira. Azalpen-memoria, aparteko dokumentua izan badaiteke ere, dokumentu gehiegi egon ez dadin, gomendatzen da araua edo egintza egiteko prozeduraren barruan, indarrean dagoen araudiaren arabera, egingo diren memoria orokorretan sartzea.»

- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (233/2012 Dekretua, azaroaren 6koa, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskara-erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena).

- Kirol Justiziako Euskal Batzordea (Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortu eta arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.e artikulua).

Aurreko kontsultak eta txostenak gauzatu ondoren, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10. artikuluak arautzen duena betetzeko, prozedura osoaren memoria labur bat eta memoria ekonomiko bat jaso beharko dira espedientean. Horretarako, esan behar dugu ezen, aurkezten den proiektuaren justifikazio-lanaren barruan, memoria ekonomikoa funtsezko agiria dela. Hala berretsi izan dute Estatuko Kontseiluak eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak. Alde horretatik, komeni da gogoraraztea zer esan zuen azken horrek 43/1999 Irizpenean:

> "Komeni da hemen adieraztea zer-nolako garrantzi handia eman dion Estatu kontseiluak izapide horri, erregelamenduak egiteko administrazio-prozeduraren baitan Estatuko organo horrek esan du izapide hori funtsezkoa dela arau-ahalmena arbitrariotasunik gabe beteko dela bermatzeko, eta, horrez gain, adierazi du Espainiako Konstituzioko 31.2 artikulua betetzeko bideetako bat dela, azken horrek agintzen baitu gastu publikoak ekitatezko modu batean banatu behar dituela baliabide publikoak, eta gastu horiek programatu eta betetzeko moduak eraginkorrak eta ekonomikoak izan behar dutela".

Aurreko horren antzera, memoria ekonomikoaren garrantzia berretsita, Estatu Kontseiluaren doktrina da honako hau (Irizpena, 1996ko abenduaren 5ekoa, 4.078/96 espedientea):

> "Konstituzioaren 31.2. artikuluak arautzen du gastu publikoak ekonomiaren eta efikaziaren printzipioak bete behar dituela, eta, ondorioz, ez du aukerarik ematen erregelamendu bat onartzeko, baldin eta ez badira behar bezala finkatzen hura beteko dela bermatzeko bitarteko ekonomikoak; halakorik egiten ez bada, Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikuluak debekatzen duen jarduera arbitrario bat egingo litzateke, funts juridikorik gabea, eta, ondorioz, kapritxozkoa bailitzateke erregelamendu bat onartzea, baldin eta ezingo bada egiaz aplikatu, nahikoa bitarteko ekonomikorik ez dagoelako arauko xedapenak betetzeko".

Bi irizpen horiek erregelamenduak egiteko prozesuari buruzkoak dira, baina berdin-berdin aplika daitezke legeak egiteko prozesuari. Izan ere, hori arautzen du abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 10. artikuluak, eta hori ondorioztatzen da legeen onarpeneko logikari eta garrantziari erreparatuta, beharrezkoa baita haiek aplikatzeko beharrezkoak diren bitarteko ekonomikoak jarri direla egiaztatuko duten agiriak eta azterketak eranstea legeak onartzeko prozesuan. Legea betetzeko behar diren baliabide ekonomikoak jarri direla justifikatzea funtsezkoa da araua bera efikaza eta efektiboa izan dadin.

Espedientea memoria horiekin osatzen denean, organo hauen derrigorrezko txostenak eta irizpenak jaso behar dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 26.1 eta 27.1. artikuluek arautzen dutena betetzeko, derrigorrezko kontrol-txostenen bidez fiskalizatu behar dira lege-aurreproiektuak.

Jaurlaritzako Kontseiluak haiek aztertu baino lehenago bete behar da kontrol hori.

- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluak arautzen duena aintzat hartuta, ezinbestekoa da batzorde horren irizpena jasotzea, arau horrek hau esaten baitu berariaz: "... lege-aurreproiektuak, horien edukia eta helburua direnak direla ere. Badira batzuk, hala ere, ogasuneko eskumena duen saileko titularrak eskatuz gero baino ez dutenak beharko batzordearen txostena; alegia:

  – Baliabideen banaketarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuak finantzatzeko foru-aldundien ekarpenak zehazteko metodologia ezartzen dutenak.
  – Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak onartzeari, kreditu gehigarriak emateari, konpromiso-kredituen baldintzak aldatzeari eta Aurrekontuak likidatzeari buruzkoak.

Ondoren, aurreproiektua organo eskudunak onartuko du, eta Eusko Jaurlaritzari helaraziko zaio, azter dezan, eta bilera berean behin betiko onartzea ala ez onartzea erabaki dezan, edo, bestela, zehatz dezan zer irizpide hartu behar diren kontuan behin-betiko idazkeran, eta, hala egokituz gero, zer jarduketa egin behar diren aipatu onarpena gertatu arteko izapidetzean. Azkenik, onartu ondoren, Legebiltzarrera bidaliko da, bidera dezan.

Txosten hau idatzi da, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste baten mende jarri.

AHOLKULARITZA JURIDIKOA
Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza

VIII

INFORME DE EVALUACIÓN DE IMPACTO EN LA EMPRESA
EMPRESAREN INGURUKO ERAGIN TXOSTENA

PROYECTO DE LEY DE MODIFICACIÓN DE LA LEY CONTRA EL DOPAJE EN EL DEPORTE.
KIROLEKO DOPINAREN AURKAKOA LEGEA ALDATZEN DUENA LEGE PROIEKTUA

FIRMADO DIGITALMENTE POR:

Firmante: **AMAIA HERRAN FERNANDEZ**
Fecha de la firma: **05/06/2015 13:24:14**
Validación de la firma: **Correcta**

Firmante: **JOSE ANTONIO CAYERO BILBAO**
Fecha de la firma: **10/06/2015 14:13:06**
Validación de la firma: **Correcta**

INFORME DE IMPACTO EN LA EMPRESA RELATIVO AL ANTEPROYECTO DE LEY SOBRE ADECUACIÓN DE LA LEGISLACIÓN ANTIDOPAJE AL CÓDIGO MUNCIAL ANTIDOPAJE.

Es objeto de este Informe el Anteproyecto de Ley sobre adecuación de la legislación antidopaje al Código Mundial Antidopaje, el cual se emite en virtud de las atribuciones que el artículo 12.1, e) del Decreto 193/2013, de 9 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura, atribuye a la Asesoría Jurídica de dicho Departamento, en relación con los artículos 7 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de carácter General y 6 de la Ley 16/2012, de 28 de junio, de Apoyo a las Personas Emprendedoras y a la Pequeña Empresa del País Vasco.

Dispone el artículo 6 de la Ley 16/2012 anteriormente citada, relativo al informe de impacto de empresa, que con carácter previo a cualquier nueva regulación o norma promovida por la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Gobierno Vasco, a través de sus servicios jurídicos, realizará un informe de evaluación del impacto en la constitución, puesta en marcha y funcionamiento de las empresas, cuya emisión será preceptiva en el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general, y deberá remitirse, en todo caso, al Parlamento con los proyectos de ley.

A estos efectos, conviene traer a colación el artículo 1 de la propia Ley que al fijar el objeto de la misma señala que

> «1.– La presente Ley tiene por objeto la promoción y el fomento de la actividad emprendedora en el ámbito de competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, dentro del marco de la libertad de empresa y de establecimiento y el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio, y sin perjuicio del cumplimiento de las obligaciones que, por razones imperiosas de interés general, pueda establecer la normativa vigente.
>
> 2.– Para el cumplimiento de este objetivo, la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco evitará todas aquellas regulaciones que impongan innecesarios costes burocráticos a las personas emprendedoras, así como legislaciones complejas que supongan barreras que desincentiven la actividad económica.»

Por su parte, el artículo 2 define qué se entiende por actividad emprendedora y por personas emprendedoras que, en términos de su Exposición de Motivos, constituyen el foco principal de la Ley y los actores clave para el desarrollo económico y social de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

> «1.– A los efectos de la presente ley, se entiende por actividad emprendedora el proceso mediante el cual una persona física, una nueva empresa o una empresa ya existente en el mercado inicia una nueva actividad productiva.
>
> 2.– Son personas emprendedoras, a los efectos de esta ley, aquellas personas físicas que, dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco, están realizando los trámites previos para poder desarrollar una actividad económica, con independencia de su forma jurídica, o bien ejerzan alguna actividad como autónomos o autónomas, cooperativistas, socios o socias de microempresas, pequeñas y medianas empresas, sociedades laborales o a través de cualquiera otra fórmula mercantil, y tengan su domicilio fiscal en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
>
> Asimismo, son emprendedoras a los efectos de esta ley aquellas personas que mantienen y desarrollan un compromiso ético permanente en su actuación, reflejado, entre otros aspectos, en la vinculación al territorio y en el compromiso de mantenimiento de la actividad.
>
> 3.– En lo que se refiere a las microempresas, se considerarán tales las así definidas en la Recomendación 2003/361/CE.»

Según la citada Recomendación, «En la categoría de las PYME, se define a una microempresa como una empresa que ocupa a menos de 10 personas y cuyo volumen de negocios anual o cuyo balance general anual no supera los 2 millones de euros».

Pues bien, el Anteproyecto de Ley analizado no tiene incidencia alguna en la constitución, puesta en marcha y funcionamiento de las empresas, ya que su objeto es modificar la Ley 12/20102, de 21 de junio, contra el dopaje en el deporte (en adelante, Ley contra el Dopaje), para adaptarla a los nuevos estándares internacionales del Código Mundial Antidopaje que entraron en vigor el pasado 1 de enero de 2015. En concreto, el Anteproyecto de Ley analizado trata de satisfacer los siguientes objetivos fundamentales:

- Trata de incorporar a la Ley vasca los requerimientos derivados de los cambios habidos en el Código Mundial Antidopaje, vigente desde el 1 de enero de 2015, que por mandato de la Convención Internacional contra el Dopaje en el Deporte deben formar parte del haber jurídico de nuestro Ordenamiento.

- Se pretende reconocer a la Agencia Vasca Antidopaje como el órgano especializado encargado de desarrollar las funciones atribuidas en el artículo 10 de la Ley contra el Dopaje en el Deporte a la Administración Pública del País Vasco.

- Asimismo, pretende también incorporarse a la Ley contra el Dopaje en el Deporte el contenido del Acuerdo de la Comisión Bilateral de Cooperación Administración del Estado-Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en relación con la Ley del País Vasco 12/2012, de 21 de junio, contra el Dopaje en el Deporte (BOE nº 99, de 25 de abril de 2013).

El bien jurídico protegido que subyace tanto en la Ley contra el Dopaje como en el ahora Anteproyecto de Ley para su modificación, es el derecho a la protección de la salud (artículo 43 de la CE):

"1. Se reconoce el derecho a la protección de la salud.

2. Compete a los poderes públicos organizar y tutelar la salud pública a través de medidas preventivas y de las prestaciones y servicios necesarios. La ley establecerá los derechos y deberes de todos al respecto.

3. Los poderes públicos fomentarán la educación sanitaria, la educación física y el deporte. Asimismo facilitarán la adecuada utilización del ocio."

Por tanto, en la Ley contra el Dopaje se diseña todo un sistema y se articulan mecanismos de diversa índole dirigidos a proteger la salud de quienes participan en las actividades deportivas que constituyen el ámbito objetivo de la Ley contra el Dopaje. Asimismo, el Anteproyecto de Ley ahora tramitado se limita a introducir algunas modificaciones en aquella para la consecución de los objetivos antes mencionados. En definitiva, analizadas las modificaciones previstas en el Anteproyecto de Ley sobre adecuación de la legislación antidopaje al Código Mundial Antidopaje, cabe concluir que no tiene incidencia alguna en la constitución, puesta en marcha y funcionamiento de las empresas.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de junio de 2015.

Asesoría Jurídica

ENPRESAREN GAINEKO ERAGIN-TXOSTENA, DOPINAREN AURKAKO LEGEDIA DOPINAREN AURKAKO MUNDU KODERA EGOKITZEARI BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUARI DAGOKIONA.

Txosten honen xedea dopinaren aurkako legedia Dopinaren aurkako Mundu Kodera egokitzeari buruzko Lege Aurreproiektua da, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 12.1 e) artikuluak sail horretako Aholkularitza Juridikoari, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7. artikuluaz eta Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluaz den bezainbatean, esleitutako eskumenak betez ematen da.

Lehen aipatu 16/2012 Legearen 6. artikuluak, zeina enpresaren gaineko eragin-txostenari buruzkoa baita, esaten du ezen Eusko Jaurlaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berriren aurretik, eta bere zerbitzu juridikoak erabiliz, enpresen eraketa, abiarazte eta funtzionamenduan izandako eraginaren ebaluazio-txostena egingo duela; hori egitea nahitaezkoa izango da xedapen orokorrak egiteko prozeduran, eta betiere Legebiltzarrera igorri beharko da lege-proiektuekin.

Ondorio horietarako, komeni da hizpidera ekartzea lege beraren 1. artikulua, legearen xedea zehaztean hau baitio:

> «1.– Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan ekintzailetza-jarduera bultzatzea eta sustatzea, enpresa- eta kokatze-askatasunaren eta zerbitzu-jardueretara eta jarduera horiek gauzatzera askatasunez iristeko esparruaren barruan, eta indarrean dauden arauek, interes orokorreko arrazoi bazterrezinengatik, ezartzen dituzten betebeharrak betetzea eragotzi gabe.
>
> 2.– Helburu hori bete dadin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak saihestu egingo ditu ekintzaileei behargabeko kostu burokratikoak eragingo dizkieten arauketa guztiak, bai eta jarduera ekonomikoaren sustagarri izan ordez hartarako oztopo diren legeria konplexuak ere.»

Bestalde, 2. artikuluak esaten du zer den ekintzailetza-jarduera, eta zein diren ekintzaileak, zeinak baitira, zioen azalpenaren arabera, legearen oinarri nagusia eta Euskal Autonomia Erkidegoko garapen ekonomiko eta sozialerako eragile nagusiak.

> «1.– Lege honen ondorioetarako, ekintzailetza-jarduera da prozesu bat zeinaren bidez pertsona fisiko batek, enpresa berri batek edo merkatuan lehendik dagoen enpresa batek produkzio-jarduera berri bat hasten baitu.
>
> 2.– Lege honen ondorioetarako, ekintzaileak dira Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan jarduera ekonomiko bat garatu ahal izateko aurretiazko tramiteak egiten ari diren pertsona fisikoak, forma juridikoa edozein izanda ere, edo jardueraren bat betetzen dutenak autonomo gisa, kooperatibista gisa edo mikroenpresetako nahiz enpresa txiki eta ertainetako edo lan-sozietateetako bazkide gisa edo bestelako merkataritza-formula baten bidez, beren helbide fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan dutela.

En todo caso, **se deberá advertir en la página web** de la Agencia Vasca Antidopaje, **que internet no es una fuente accesible al público, y que la información publicada no podrá ser tratada posteriormente para fines distintos.**

Sería también **aconsejable que la organización antidopaje adoptase las medidas oportunas para evitar la indexación de los datos publicados por los buscadores de internet,** al objeto de que la afectación al derecho fundamental sea la mínima posible.

En otro orden de cosas, y vinculado con el derecho de información en la recogida de los datos (artículo 5 LOPD), sería necesario que **en la notificación a los interesados de las resoluciones sancionadoras por dopaje, se les informe debidamente,** y con todas las

garantías exigidas por el artículo 5 de la LOPD, **que la sanción y el resto de datos** personales que contempla el artículo 38 bis, **una vez que la misma adquiera firmeza, va a ser difundida en internet y por cuanto tiempo.**

Finalmente, y en relación con el principio de seguridad de los datos, regulado en el artículo 9 de la LOPD, y en el Título VIII de su reglamento de desarrollo, aprobado por Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, **resulta obligado que todos los laboratorios** que analicen las muestras biológicas **cumplan con las medidas de seguridad necesarias** para evitar cualquier pérdida o extravío de las mismas. En todo caso, quienes realicen tratamientos de datos por cuenta de tercero, deberán adoptar las mismas medidas de seguridad que las impuestas al responsable del fichero, tal y como se desprende de lo previsto en los artículos 9 y 12.2 de la LOPD.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de marzo de 2015

Iñaki Pariente de Prada
Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos

Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

IL15-001

DOPINAREN AURKAKO LEGEDIA DOPINAREN AURKAKO MUNDUKO KODERA EGOKITZEKO LEGE AURREPROIEKTUAREN ZIRRIBORROAREN GAINEAN DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAK EGINDAKO TXOSTENA.

AURREKARIAK

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatu da goiburuan adierazitako lege aurreproiekturako.

Irizpen hau emateko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura organikoa garatzeko Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren 2005eko azaroaren 28ko Ebazpenaren bosgarren artikuluko 3 b) puntuan esleitutako eskumenez baliatu gara. Horren arabera, Bulegoaren Lege Aholkularitza eta Ikuskaritza Atalari dagokio irizpena ematea:

> *"Txostena eskatu den datu pertsonalak babestearekin zerikusia duten xedapen-egitasmo guztien berri ematea".*

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Proiektatutako arauaren xedea da Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea egokitzea Dopinaren Aurkako Munduko Kodera.

Horrez gain, proiektatutako legearen zioen adierazpenak dio Legearen xedea dela Dopinaren Euskal Agentzia izendatzea Legearen 10. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari esleitzen zaizkion funtzioak gauzatzeko organo espezializatu, hau da, Agentzia izatea Euskadiko dopinaren aurkako erakundea. Eta legearen beste helburu bat da Euskadiko Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legean jasotzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetza Batzordearen Akordioaren edukia.

Proiektatutako legeak artikulu bakarra du, 12/2012 Legea aldatzen duena; eta xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat.

II

Txosten honek lege-aurreproiektuaren zirriborroa aztertuko du, baina Agentziari dagokion ikuspuntutik, hau da, aztertuko du ea ondo ezkontzen den datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin, eta ez da sartuko datu babesarekin zer ikusirik ez duten bestelako legezkotasun kontuetan.

Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarrizko eskubidearen gaineko araudia honako arauetan dago nagusiki: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legean (aurrerantzean DBLO) eta 15/1999 Legea garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan. EAEn beste arau bat ere badugu, horrez gain: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea, eta legea garatzen duen araudia.

Beraz, orain egingo duguna da aztertu ea legearen aurreproiektua ondo ezkontzen den datu pertsonalak babesteari buruzko oinarrizko eskubidearen printzipioekin eta bermeekin. Edozelan ere, beste ezeren aurretik, eskubide honen izaera konstituzionala azalduko dugu eta osasunari buruzko datuez ere arituko gara, garrantzi handia dutelako legean; eta osasun datuei ezarri beharreko lege erregimenaz ere arituko gara.

III

Informazio-autodeterminaziorako oinarrizko eskubidearen konfigurazio konstituzionala

1978ko Konstituzioak oinarrizko hainbat eskubide aitortzen ditu I. Tituluan, eraginkortasun juridikoa ematen die eta horietako bakoitzarentzat bermeak ere ezartzen ditu, izaera eta helmen desberdinetako hainbat erakunde eta tresnaren bidez. Konstituzioko oinarrizko eskubideen artean ez da ageri berariaz datu pertsonalak babesteko eskubidea; baina, 18.4 artikuluak honako hau xedatzen du: "*Legeak informatikaren erabilera mugatuko du, herritarren ohorea, eta norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribatua, eta horien guztien eskubideen egikaritza osoa bermatzeko*".

Konstituzioaren agindu hori da datu pertsonalak babesteko eskubidearen edo autodeterminazio informatiborako eskubidearen jatorria, eta jurisprudentzia konstituzionalak (guztiaren ordez: azaroaren 30eko 292/2000 KAE) oinarrizko eskubide eta eskubide autonomo izaera aitortu dizkio. Gainera, doktrina batzuk XXI. mendeko oinarrizko eskubide berria dela ere esan dute.

Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarrizko eskubidearen kontzeptuaren esparrua zabalagoa da intimitaterako eskubidearen kontzeptuak harrapatzen duena baino. Konstituzio Auzitegiak ere horixe adierazi zuen 292/2000 KAEn.

> "D*atu babeserako oinarrizko eskubidea ez da bakar-bakarrik pertsonaren datu intimoetara mugatzen, edozein motatako datu pertsonalak hartzen baititu, intimoak izan ala ez, kontuan izanik, hirugarrenek horien berri izanez gero edo horiek erabiliz gero, datuen jabearen eskubideei kalte egin diezaieketela, eskubide horiek oinarrizko eskubideak izan ala ez, bere helburua ez delako bakar-bakarrik norbanakoaren intimitatea, norbanakoen intimitatea babesteko Konstituzioaren 18.1 artikulua baitago, baizik eta datu pertsonalen babesa. Ondorioz, datu pertsonal publikoak ere harrapatzen ditu; izan ere, edonork eskuratzeko modukoak badira ere, ukituak baino ez du haietaz baliatzeko ahalmena, ukituak datu babeserako duen eskubideak horrela izan dadin bermatzen duelako. Horregatik (…), pertsona identifikatzen duten edo identifikagarri egiten duten datu guztiak daude babestuta, hau da, pertsonaren arraza, profil ideologikoa, sexuala, ekonomikoa edo beste edozein profil osatzeko balio duten datuak edo egoera jakin batzuetan norbanakoentzat kaltegarriak izan daitezkeen bestelako helburuetarako erabilgarriak izan daitezkeen datuak (6. O. J.)".*

Berretsi behar da datuen babeserako eskubidea ez dela informatikaren erabilera okerragatik beste eskubide batzuk bermatzeko tresna hutsa. Aitzitik, datuen babeserako eskubideak berezko izatea du eta erabat autonomoa da beste eskubideekiko. Pertsona orori aitortzen dio berari buruzko informazio fluxuaren gaineko erabateko kontrola izatea, datuen tratamendu automatizatu desegokiek pertsonaren duintasunari eta askatasunei ekar diezazkiekeen balizko erasoetatik babesteko eskubidea, eta horrelako gertakarien aurrean erreakzionatzeko eskubidea. Hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiak honakoa esan du besteak beste: *"intimitate eta ohore eskubideak bermatzeaz gain, herritarrek gainontzeko eskubideez ere erabat gozatu daitezen bermatzen duen estatutu izaera duela, eta aldi berean oinarrizko eskubide bat edo askatasun bat ere badela, hau da, tratamendu mekanizatuek pertsonen askatasunaren edo duintasunaren aurka egin ditzaketen erasoen aurrean pertsonok dugun askatasunerako eskubidea ere badela"* (254/1993 KAE, 6. O. J. eta 11/1998 KAE, 4. O. J.; eta oraintsu 290/2000 KAE, 7. O. J.).

Beraz, eskubide hau ez da nahastu behar intimitaterako eskubidearekin, autodeterminazio informatiborako eskubide berriak ez dituelako besteak dituen mugak, adibidez, legeak lagunduta egin behar izatea aurre arrotzek (zentzu negatiboan) pertsonen bizitza intimoan egin ditzaketen esku hartzeei eta erasoei; aitzitik, orain eskubideak beste dimentsio bat bereganatzen du, berria (zentzu positiboa), eta da pertsona guztiei aitortzen zaiela bakoitzak bere datu pertsonalak (habeas data) atzitzeko, tratatzeko eta mugiarazteko agintea eta askatasuna, datuak intimoak izan ala ez.

Hona Konstituzio Auzitegiak adierazitakoa 292/2000 epaian (6. O. J.):

> *"... datu babeserako eskubideak esan nahi duela pertsonei aitortzen zaiela euren datuen gaineko boterea izatea eta datu horiek nola erabili eta zertarako erabili erabakitzeko ere bai, datuen trafiko bidegaberik eta ukituaren duintasunerako kaltegarririk egon ez dadin. ... Datuak babesteko eskubideak bermatu egiten du norbanakoek datu horiek erabiltzeko boterea izatea". Berme horrek, alde batetik, debekatu egiten die botere publikoei datu horien iturri izatea, baldin eta horretarako nahikoa berme ez badute, eta bestetik, derrigortu egiten ditu arriskuei aurrea hartzera, gerta daitekeelako informazio hori behar ez bezala erabiltzeagatik informazioa bidegabe atzitzea edo zabaltzea. Baina norbera norbere datu pertsonalez baliatu ahal izateko boterea edukitzea alferrik da, ukituak ez baldin badaki zeintzuk datu dauzkaten hirugarrenek, nork dauzkan eta zertarako.*
>
> *Horrexegatik da hain berezia datuak babesteko eskubidea; batetik, intimitaterako eskubideak baino xede-objektu zabalagoa duelako; eta, bestetik, Konstituzioaren 18.1 artikuluaren babes eremuan dagoen intimitaterako eskubideaz gain, Konstituzio Auzitegiak modu zabalagoan definitu duen bizitza pribatuaren eremukoak diren nortasunaren ondasunen esparruko beste eskubide batzuk ere, duintasun pertsonalaren errespetuari hertsiki lotutakoak, estaltzen dituelako bere bermeak (urriaren 30eko 170/1987 KAE , 4. oinarri juridikoa), adibidez, ohorerako eskubidea. Eskubide hori Konstituzioaren 18.4 artikuluan dago jasota; eta artikulu hori ahalik eta modurik zabalean interpretatuz gero, pertsonaren eskubide guztiak baliatzeko eskubidea ere bada. Datu babeserako oinarrizko eskubidearen konstituzio bermea zabaldu egiten da eta pertsonen edozein eskubide baliatzeko orduan garrantzia duten edo eragina duten datuak ere hartzen ditu bere baitan, eskubideak konstituzionalak izan ala ez edo ohoreari, ideologiari, norberaren nahiz senitartekoen intimitateari edo konstituzioak babestutako beste edozein ondasun izan".*

Epai horrek berak datu babeserako oinarrizko eskubidea nola eratzen duen ikusita, gogora ekarri behar dugu esaten duela eskubideak baduela "beste berezitasun bat" eta zera dela:

> *".... hainbat botere juridikoz osatutako halako ahal multzo bat; eta ahal multzo horretaz baliatzeak intimitaterako oinarrizko eskubideak ez dituen hainbat betebehar juridiko agintzen dizkie hirugarrenei, oinarrizko eskubide horrek duen aparteko eginkizunerako baliagarri direnak: eskubide horri esker, norbanakoak bere datu pertsonalak kontrolatzeko boterea izatea bermatzen da, eta hori eraginkortasunez egiteko modu bakarra hirugarrenei betebehar hori jartzea da. Hau da, titularrari aitortzen dizkio bere datuak bildu eta erabili ahal izateko adostasuna adierazteko eskubidea, eta datu horien destinoa zein den eta zertarako erabiliko diren jakiteko eta informazioa jasotzeko eskubidea, eta datuok atzitu, zuzendu eta ezerezteko eskubidea. Azken finean, pertsonek datu pertsonalen gaineko boterea izatea (254/1993 KAE, 7. oinarri juridikoa)".*

290/2000 KAEn oinarrizko eskubide honen edukia ere zehaztu du Konstituzio Auzitegiak, hau da, datuak babesteko eskubideak...

> *"... datuen gaineko boterea edukitzea dakar, eta datu horien gainean erabakiak hartzeko gaitasuna, eta gaitasun horrek ahalmena ematen dio pertsonari honakoak erabakitzeko: ea datu horietatik zeintzuk eman nahi dizkion hirugarren bati, dela Estatua dela partikular bat, eta ea hirugarren horrek datu horietatik zeintzuk bildu ditzakeen; horrez gain, ahalmena ematen dio jakiteko ea datu pertsonal horiek nork dauzkan eta zertarako, eta bere datu pertsonalak inork edukitzearen edo inork erabiltzearen aurka agertzeko ahalmena ere ematen dio. Norberaren datu pertsonalak kontrolatzeko eta horien gaineko erabakiak hartzeko boterea datu babeserako oinarrizko zuzenbidearen edukiaren zati bat da eta botere hori honako gaitasun hauek gauzatzen dute juridikoki: datu pertsonalak biltzeko, eskuratzeko eta atzitzeko adostasuna adierazteko gaitasunak, geroago datu horiekin egiten diren biltegiratzeen eta tratamenduen gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak eta hirugarren batek, dela Estatuak dela partikular batek, datu horiekin egin dezakeen edo ditzakeen erabileraren edo erabileren gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak. Beraz, ukituak berari buruzko datuak bildu eta erabiltzeko adostasuna emateko eta datu horien berri izateko eskubideak ditu, eta badirudi eskubide horiek datu babeserako oinarrizko eskubidearen berezko osagaiak direla. (…)" (7. oinarri juridikoa).*

Baina, beste ikuspegi batetik ere aztertu behar da auzia. Esate baterako, doktrina konstituzionalak dio zein ezaugarri izan behar dituen oinarrizko eskubide batean eragina duen legeak (lege arruntak); izan ere, Konstituzio Auzitegiak baitio legeak oinarrizko eskubidea urra dezakeela, baldin eta oinarrizko eskubideen edukia osatzen duen ahal multzoa arautzean (edo ukitzean) kontuan ez badu hartzen legeak izan behar dituen gutxieneko zehaztasunak edo bermeak, lege horrek arautzen duen oinarrizko eskubideari zor zaion errespetuari dagokionez.

Hona, horrekin lotuta azaroaren 30eko 292/2000 KAEk dioena:

> *"(...) Oinarrizko eskubideek amore eman behar dute konstituzioaren arabera garrantzi handiko ondasunak edo interesak badaude tartean, baldin eta eskubideari egiten zaion murrizketa beharrezkoa bada aurreikusitako helburua erdiesteko, proportzionala bada, eta murrizten den oinarrizko eskubidearen funtsezko edukia errespetatu behar du behintzat (otsailaren 28ko 57/1994 KAE , 6. oinarria; otsailaren 22ko 18/1999, 2. oinarria). Era berean, lege batek oinarrizko eskubide bati ezarritako mugak Konstituzioan oinarrituta badaude ere eta proportzionalak badira ere,(178/1985 KAE), gerta daiteke Konstituzioa bera urratzea mugak behar bezain*

zehatzak ez badira eta aplikatzeko baino lausoagoak badira... Horretaz gain, dena delako lege horrek Konstituzioa urratuko du, baldin eta eskubidea baliatzea ezinezkoa egiteko moduan finkatzen baditu mugak edo Konstituzioaren bermea baliogabetzeko moduan".

Konstituzio Auzitegiak berak esaten du zein diren mugak ezarri behar dituen legeak bete behar dituen ezaugarriak.

Hona, horren haritik 70/2009 Epaiak dioena:

"Berretsitako doktrina konstituzionalaren arabera, legeak zehaztu beharko ditu murrizketak, eta murrizketa-irizpide lausoak eta zehaztu gabeak alde batera utzi beharko ditu; izan ere, intimitate pertsonalerako eskubidea urratzen baita legeak eskubidea baliatzea ezinezkoa egiteko moduan finkatzen baditu mugak edo Konstituzioaren bermea baliogabetzeko moduan (azaroaren 30eko 292/2000 KAE, 11. oinarri juridikoa). Intimitaterako oinarrizko eskubidea babesteari buruz 49/1999 KAEn esaten genuenez, eskubide horretan ***esku hartu ahal izateko****, "nahitaezkoa"* ***da esku hartzea egiteko kasuei buruzko eta esku hartzeko baldintzei buruzko "lege-aurreikuspenak egotea (4. oinarri juridikoa); eta, horrez gain, nolabaiteko "lege izaera" ere eduki behar du*** *(apirilaren 5eko 49/1999 KAE, 5. oinarri juridikoa; uztailaren 16ko 169/2001 KAE, 6. oinarri juridikoa; eta urriaren 28ko 184/2003, 2. oinarri juridikoa)".*

Horrekin guztiarekin adierazi nahi dena da datu babesaren arloan printzipio nagusietako bat den adostasunak salbuespenak izan ditzakeela lege izaera duen arau batek halakorik xedatzen badu, eta lege horrek betetzen baditu doktrina konstituzionalak agintzen dituen betekizunak interesdunaren adostasunaren beharra jada beharrezkoa ez izateko. Hori dela eta, argi dago, alde batetik, datuak babesteko eskubidea ez dela erabateko edo mugarik gabeko eskubidea; eta, bestetik, Konstituzioak nahi izan duela lege bidez, eta lege bidez baino ez, jartzea mugak oinarrizko eskubide horri; eta, ez hori bakarrik: lege bidez murriztu ahal izateaz gain, konstituzioak dio murrizketak ezartzen dituen legearen edukiak beste baldintza batzuk ere bete behar dituela; izan ere, gerta baitaiteke oinarrizko eskubidea bera murrizteaz gain, legeak ezinezkoa egitea eskubideaz baliatzeko aukera edo bertan behera uztea Konstituzioak aitortzen dion bermea.

IV
Osasunari buruzko datuak

Osasunari buruzko datuak eta datu pertsonalak babestea

"*Osasun datuak*" edo "*osasunari buruzkoa datuak*" edo, azken aldian DBLO garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren ondotik zabaldu den terminoa erabiliz, "*osasunarekin zerikusia duten datu pertsonalak*" zer diren dioen definizioa 1720/2007 Dekretuaren 5.1 g) artikuluan dago jasota: "*norbanakoaren osasun fisikoari edo buru osasunari buruzko garai bateko, oraingo eta etorkizuneko informazioa*".

Ikusten denez, osasun datuei buruz eratu zen kontzeptua zabal samarra da. Eta hala da 1981eko urtarrilaren 28ko Europako Kontseiluaren 108 Hitzarmenaren Azalpen Txostenean jasotakoa, Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak onartutako gomendioak eta Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia kontuan hartuta eratu zelako.

Eta Hitzarmenaren 45. gogoeta juridikoak osasun datuei buruzko honako definizioa ematen du: "*norbanakoaren osasun fisikoari edo buru osasunari buruzko garai bateko, oraingo eta etorkizuneko informazioa*".

Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2003ko azaroaren 6ko Epaiak ere honakoa dio:

> *"Komeni da 95/46/CE Zuzentarauaren 8. artikuluko 1. atalak erabiltzen duen osasun datuak kontzeptuaren gainean egiten den interpretazioa zabala izatea, eta pertsonen osasunaren alderdi fisikoaz gain, alderdi psikikoa ere biltzea bere baitan".*

Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak ere kontzeptuaren gaineko interpretazio zabala egin zuen estatu kideei egindako 1997ko otsailaren 13ko R(97)5 Gomendioan. Hona hemen: "*pertsonaren osasunari buruzko datu pertsonal guztiez gain, osasunarekin eta datu genetikoekin zerikusi zuzena eta argia duten datuak ere osasun datutzat joko dira*".

Oso argigarria da mediku historial elektronikoetako (EP131 Dokumentua) osasunari buruzko datu pertsonalen tratamenduari buruzko Datuak Babesteari buruzko 29. artikuluko Lan Taldearen Laneko Dokumentua. Hona han ezarritakoa:

> "*Definizio hau (osasun datua zer den dioen definizioa) datu pertsonalei ere ezarri behar zaie, baldin eta datu horiek zerikusi zuzena eta argia badute pertsonen osasun egoeraren deskribapenekin… batik bat mediku espedienteetan jasota badaude. Beste datu batzuk ere datu sentsibletzat jo beharko dira, adibidez, dena delako pazientearen tratamenduari buruzko dokumentazio medikuaren baitako datu administratiboak (gizarte segurantzaren zenbakia, ospitaleratze-data, eta abar); batez ere, kontuan hartzen bada, pazientearen tratamenduaren testuinguruan ezinbestekoak ez balira, datu horiek ez zirela mediku espediente batean jasota egongo eta ez zirelako inondik inora han jaso beharko*".

Horretaz gain, dokumentuak zera dio:

> *"HME sistemei buruzko lege xedapenek arau orokor moduan ezarri beharko dute pazientearen adostasuna nahitaezkoa dela datuak HME sisteman sartu ahal izateko edo datu horietara sartu ahal izateko (batez ere, datuak behar ez bezala erabiltzeko arriskua dagoenean, adibidez, datu psikiatrikoak badira, abortuei buruzkoak eta abar), eta ukatzeko aukera egotea ere aurreikusi beharko dute, hain intimoak ez diren datuak direnean".*

Bukatzeko, zera dio:

> *"Dokumentu medikuetan, historial mediku elektronikoetan eta HME sistemetan dauden datu guztiak dira datu pertsonal sentsibleak. Beraz, Zuzentarauak dauzkan datu pertsonalak babesteari buruzko arau guztiak bete behar izateaz gain, Zuzentarauko 8. artikuluan informazioa sentsiblearen tratamendua arautzeko jasotako datu-babesari buruzko arauak ere bete beharko dira".*

Konstituzio Auzitegiaren doktrinak ere behin eta berriz berretsi du osasun datuak intimitate pertsonalaren babes eremuan daudela (azken epaiak: martxoaren 23ko 70/2009 eta ekainaren 26ko 159/2009).

Datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubideak ere babesten ditu osasun datuak.

Hona Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 8ko 202/1999 Epaiak dioena:

> *"Esanak esan, eta kontuan izanda babes-errekurtso honek argitu nahi duen auzia dela ea Konstituzioaren 18. artikuluarekin bat datorren aipatu berri dugun langilearen osasun datuak tratatzea eta euskarri informatiko batean gordetzea, esan beharrean gaude ukituaren berariazko adostasunik gabe hori egitea ez dela neurri proportzionala eta egokia, eta, beraz, informazioaren titularraren intimitaterako eskubidea eta informatika askatasuna urratzen dituela.*
>
> *..., auzi honetan garrantzia duen alderdia enpresak hartutako neurria bera da; izan ere, oinarrizko eskubide bat murrizten duen neurri batek proportzionaltasunaren printzipioa betetzen duen ala ez egiaztatzeko erabili ohi diren kanonak neurriari ezarri eta gero, esan daitekeelako neurria ezin dela egokitzat, beharrezkotzat eta proportzionaltzat jo, lortu nahi den helbururako; hau da, laneko absentismoa kontrolatzeko [66/1995 KAE, 5. oinarri juridikoa; 207/1996 KAE, 4. E) oinarri juridikoa eta 69/1999 KAE, 4. oinarri juridikoa]. Hain zuzen ere, neurria ez delako izatez orekatua, ez baitakar onurarik edo abantailarik interes orokorrerako edo enpresa interesetarako; eta kaltea dakarkiolako, ordea, intimitate eskubideari.*
>
> *Horrekin lotuta, gogora ekarri behar dugu Konstituzioaren 18.4 artikulua garatzen duen datuak babesteko lege organikoak (LORTAD) datu pertsonalak babesteko ezarri zituen printzipio orokorren artean daudela, batetik, datuak kongruentziaz eta arrazionaltasunaz erabili beharra, "hau da, biltzen den eta informatikoki tratatzen den informazio pertsonalaren eta informazio eskaeraren oinarrian dagoen legezko helburuaren artean lotura garbi bat egon behar dela, eta, ondorioz, zorrotz debekatzen du datu bilketaren oinarrian zegoen helburua ez den beste baterako erabiltzea (4. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatia)" (94/1998 KAE, 4. oinarri juridikoa); eta, bestetik, datu zehatzak eta eguneratuak izan beharra (4.3 artikulua). Erregulazio hori ia bat dator Datu pertsonalen tratamendu automatizatuaren aurrean pertsonak babesteari buruzko Europako Kontseiluaren 1981eko urtarrilaren 28ko Hitzarmenaren 5. eta 7. artikuluekin. Espainiak 1984ko urtarrilaren 27ko Tresnaren bidez eta Pertsona fisikoen datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko 1995eko urriaren 24ko 95/46/CE Zuzentarauaren 6. eta hurrengo artikuluen bidez berretsi zuen. Beraz, kasu honetan berretsi behar dugu enpresak langileen osasun datuen berri izan eta datuen tratamendu informatikoak egiteak -datuak gordetzeko asmoz- urratu egiten duela biltzen den informazio pertsonalaren eta informazio horren bilketaren oinarrian zegoen helburuaren arteko lotura garbia egon behar dela dioen printzipioa.*
>
> *Beraz, guk ateratzen dugun ondorioa da datu base horretan diagnostiko medikuak tratatu eta gordetzea ukituaren berariazko adostasunik gabe, Konstituzioaren 53. artikuluko oinarrizko eskubideak babesteko bermea urratzen duela".*

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2008ko uztailaren 17ko Epaiak ere gauza bera dio:

> *"Datu pertsonalen babesa, eta bereziki datu medikuena, guztiz garrantzitsua da norbanakoek euren bizitza pribatuaz eta familia bizitzaz gozatu dezaten, Hitzarmenaren 8. artikuluak bermatzen duenez. Hitzarmenaren Estatu Kontratugileetako sistema legalen printzipio behinena da datu medikuen konfidentzialtasuna zaintzea. Medikuntzaren lanbidearen arloan eta osasun zerbitzuetan gai erabakitzailea da pazienteen pribatutasunaren zentzua errespetatzea... Barneko legeek berme nahikoa eskaini behar dute osasun datuen*

edozelako komunikazio edo datu erakusterik gerta ez dadin, bestela, urratu egiten direlako Hitzarmenaren 8. artikuluko bermeak".

Konstituzio Auzitegiak ere oinarrizko eskubidea ez dela mugagabea dela esan du:

"… eta nahiz eta Konstituzioak muga zehatzik ez ezarri, eta nahiz eta botere publikoei ez agindu mugok jartzeko, beste oinarrizko eskubideekin egin duen bezala, argi dago gainontzeko oinarrizko eskubideetan eta Konstituzioak babestutako beste ondasun juridikoetan bilatu behar direla mugak, hala agintzen duelako Konstituzioaren batasun printzipioak (apirilaren 8ko 11/1981 KAE, 7,oinarria;, 6. oinarria, eta, 18. artikuluari dagokionez, 110/1984 KAE, 5. oinarria). Mugak bi eratakoak izan daitezke: edo oinarrizko eskubideari zuzenean jarritako murrizketak —lehen aipatu ditugunak— edo oinarrizko eskubidea erabiltzeko moduari, denbora-epeari edo tokiari jarritako murrizketak. Lehengo eran mugak jartzea, oinarrizko eskubidea garatzeko modu bat da. Bigarren eran mugak jarriz gero, dena delako oinarrizko eskubidearen edukia eratzen duten ahalez baliatzeko modu zehatzari jartzen zaizkio mugak. Hori egitea eskubidea nola baliatu arautzea da azken finean, eta legelari arruntak egin dezake hori, Konstituzioaren 53.1 artikuluak xedatutakoaren arabera. Egin beharreko lehenengo konstatazioa da, begien bistakoa izan arren garrantzi handikoa ere badelako, ***Konstituzioak nahi izan duela lege bidez, eta lege bidez baino ez, jarri ahal izatea mugak oinarrizko eskubide bati.*** *Oinarrizko eskubideek amore eman behar dute konstituzioaren arabera garrantzi handiko ondasunak edo interesak badaude tartean, baldin eta eskubideari egiten zaion murrizketa beharrezkoa bada aurreikusitako helburua erdiesteko, proportzionala bada, eta murrizten den oinarrizko eskubidearen funtsezko edukia errespetatu behar du behintzat (292/200 KAE)".*

Era berean, murrizketak nola egin ere adierazi du:

"Datuak babesteko oinarrizko eskubideari buruz ere esan behar dugu ulertu behar dela ***eskubideari egiten zaion murrizketa ezin dela egon administrazio publikoaren jardunean oinarrituta besterik gabe.*** *Eta ez da nahikoa legeak administrazioari ahalak ematea kasuan-kasuan berak mugak jar ditzan, eta legearen zeregin bakarra izatea zehaztapen bat edo beste egitea konstituzioak babestutako ondasun edo eskubideren bat dagoenean tartean.* ***Legegileak erabaki behar du noiz dagoen tartean datu pertsonalak babesteko eskubidea murriztea ekar dezakeen halako ondasun edo eskubide bat; eta legegileak esan behar du zein egoeratan murriztu daitekeen, eta legegileak berak murriztu behar du eskubidea, arau zehatzen bidez, eta interesdunari murrizketa eta murrizketaren ondorioak aurreikusi.*** *Legegileak hori egin ezean, administrazioari eskuordetuko lioke legegileari baino ez dagokion (Konstituzioaren 53.1 artikulua) oinarrizko eskubideen arloko eginkizun bat: mugak argi ezartzea eta arautzea".*

Osasun datuak babesteko lege erregimena

Europako Kontseiluaren 1981eko urtarrilaren 28ko 108 zenbakiko Hitzarmenak honakoa dio 6. artikuluan:

"Arraza, iritzi politikoak, erlijio sinesmenak edo filosofikoak, sindikatu afiliazioa agerian uzten duten datu pertsonalak eta osasunari edo bizitza sexualari buruzko datu pertsonalen tratamendua ezin izango dira modu automatikoan tratatu, barruko zuzenbideak ez baditu berme egokiak aurreikusten".

Bestalde, merezi du aipatzea 1997ko apirilaren 4an Oviedon egin zen "Biologiaren eta medikuntzaren aplikazioei dagokienez, giza eskubideak eta giza duintasuna babesteko

Hitzarmena" (1999ko uztailaren 23ko Tresnaren bidez berretsia; 1999ko urriaren 20ko 251 zk.ko BOE). Esan behar da pertsonen osasunari buruzko informaziorako, adostasun informaturako eta intimitaterako eskubidea aztertzen duen nazioarteko lehenengo tresna dela, eta biologiaren eta medikuntzaren arloan giza eskubideak eta giza duintasuna babesteko esparru komun bat ezarri zuela horretarako. Hitzarmenaren 5. artikuluak xedatzen duen arau orokorrak dio ukitutako pertsonaren adostasun informatua beharko dela osasunaren esparruan esku hartzeak egiteko.

Datu pertsonalen tratamenduaren arloan pertsona fisikoak babesteari buruzko eta datu horien zirkulazio libreari buruzko Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46 Zuzentarauaren 8.1 artikuluak —33. kontuan hartzekoen atalak osasun datuak "*oinarrizko askatasunak edo intimitatea urra dezaketen datuak*" direla dioela kontuan izanik—, honakoa xedatzen du:

> *"Estatu kideek debekatu egingo dute arraza, iritzi politikoak, erlijio sinesmenak edo iritzi filosofikoak eta sindikatu afiliazioa agerian uzten dituzten datu pertsonalen eta osasunari edo bizitza sexualari buruzko datu pertsonalen tratamenduak".*

Nazioarteko eta Batasuneko arauek osasun datuei ematen dieten babes berezia DBLOn islatu da; izan ere, berariazko lege erregimena finkatzen baitu 7. artikuluko 3. idatz-zatiak, "*Bereziki babestutako datuak*" izenburuarekin, datu horiek babesik handiena merezi dutelako, nortasunaren alderdirik intimoenei buruzkoak direlako eta oinarrizko eskubide biren bilgunea direlako: intimitaterako eskubidea eta datu pertsonalak babesteko eskubidea.

Idatz-zati horrek honakoa dio:

> *"Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori".*

Kontuan hartzen bada osasun datuak, datu sentsibleak izanik, eragin handia dutela ukituaren esparrurik intimoenean, DBLOk izaera orokorrarekin ezarri duena baino erregulazio berezituagoa eta zorrotzagoa ezarri du osasun datuen tratamenduari buruz —zein kasutan egin daitezkeen— eta datuen tratamenduetan segurtasuna bermatzeko hartu beharreko neurriei buruz; bai eta osasun datuen tratamenduetan betebeharreko konfidentzialtasun eta zuhurtzia betebeharrari buruz ere; eta, ondorioz, nahitaez bete beharreko araua izango da datuen titularren berariazko adostasuna eskuratzea, datu horiek tratatzeko.

Edozelan ere, legez xedatutako kasuetan, 7.3 artikuluak osasun datuen tratamendua burutzeko aukera aurreikusten du. Lege gaikuntzaren oinarrian, baina, interes orokorreko arrazoiak egon beharko dira nahitaez.

Komeni da "*legez xedatutako kasuetan*" adierazpenak zer esan nahi duen argitzea.

Horretarako, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/CE Zuzentaraua aipatuko dugu. Zuzentarau hau datu pertsonalen tratamenduaren arloan pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta datu horien zirkulazio libreari buruzkoa da.

Zuzentarauaren 8. artikuluko 4. idatz-zatiak honakoa xedatzen du:

> *"Berme egokiak baldin badituzte, Estatu kideek, garrantzi handia duten interes publikoko arrazoiak tarteko, 2. idatz-zatian aurreikusitako salbuespenez gain, beste batzuk ere ezarri ahal izango dituzte, estatu mailako legeen bidez edo kontroleko agintaritzen bidez".*

95/46/CE Zuzentarauaren 34. gogoeta juridikoan dago agindu horren azalpena. Hona dioena: *"Estatu kideei baimena eman beharko zaie, garrantzi handiko interes publikoko arrazoiak daudenean tartean, datu sentsibleen kategoriak tratatzeko debekuen salbuespenak egiteko osasun publikoaren eta babes sozialaren arloan, batez ere, kalitatearen eta errentagarritasunaren bermeen kasuan, eta gaixotasun aseguruaren erregimenean prestazio eta zerbitzuen erreklamazioak ebazteko erabilitako prozeduren arloan eta ikerketa zientifikoaren arloan eta estatistika publikoen arloan era bai. Horretaz gain, estatuen ardura da pertsonen bizitza pribatua eta oinarrizko eskubideak babesteko berme egokiak eta berariazkoak aurreikustea"*.

Bestalde, Datuak Babesteari buruzko 29. artikuluko Lan Taldeak ere Zuzentarauaren 8.4 artikuluaren interpretazioa egin du mediku historial klinikoetako osasunari buruzko datu pertsonalen tratamenduari buruzko agirian. Hona hemen ulertu duena:

> *"Kasu bakoitzean, salbuespenezko datu tratamenduen multzoak garrantzi handiko interes publikoa izan beharko du Estatuarentzat, eta ezinbestekoa izan beharko du garrantzi handiko interes publikorako. Mota horretako neurriak proportzionatuak izan beharko dute; horrek esan nahi du ezin dela egon salbuespen gutxiago dakarren beste neurririk.*
>
> *Gainera, bizitza pribaturako eta familia bizitzarako eskubidean esku-hartzeko, nahitaez bete beharko da Giza Eskubideei buruzko Europako Hitzarmena, eta, horretaz gain, Estrasburgoko jurisprudentzia hartu beharko da aintzat: legea betez egin beharko da eta gizarte demokratikoan ezinbestekoa izan beharko da interes publikoaren ondorioetarako. Estrasburgoko jurisprudentziak behin baino gehiagotan adierazi du salbuespena ezartzen duen legeak garbi adierazi behar duela zein den eskumendun agintaritzei aitortzen dien eskumeneko boterearen helmena eta nola baliatu eskumenaz, neurriaren helburu legitimoa kontuan hartuta, eta norbanakoari ere arbitrariotasunaren aurkako babes egokia emanez".*

Zuzentarauaren 8. artikuluko 3. idatz-zatiak osasun datuei buruzko aurreko ikuspegi hori jasotzen du eta zera xedatzen du:

> *"1. idatz-zatia ez da ezarriko datu tratamendua beharrezkoa bada prebentziorako, mediku diagnostikorako edo mediku tratamendurako, asistentzia prestaziorako edo osasun zerbitzuen kudeaketarako; eta tratamendua lanbide-sekretuari lotuta dagoen pertsonal sanitarioak —legedi nazionalak edo agintaritza nazional eskumendunek ezarritako arauen aginduz izan— edo sekretu betebehar baliokidea duen beste pertsona batek egiten badu".*

Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak estatu kideei egin zien 1997ko otsailaren 13ko R(97) Gomendioaren 7. puntuko lehenengo atalak ere —datu pertsonalak babesteari buruzkoa da— mota honetako datuen komunikazioa arautzen du eta arau orokor bat ezartzen du horrelako datuen komunikazioari buruz, eta zera da, "*Mediku datuak ezingo dira komunikatuko, kapitulu honetan eta 12. kapituluan ezarritako baldintzak bete ezean"*.

Puntu horretako hirugarren atalak ere jasotzen ditu guretzat interesgarriak izan daitezkeen bi kasu, non datu komunikazioa egin daitekeen titularraren adostasunik gabe. Hona hemen:

> *"a) Komunikazioa lege batean aurreikusita badago eta ezinbesteko neurria bada gizarte demokratikoan, honako arrazoiengatik:*
>
> *i. osasun publikoko arrazoiak; edo*
>
> *ii. benetako arrisku bati aurrea hartzea edo delitu jakin bat zapaltzea edo*
>
> *iii. garrantzi handiko beste interes publiko bat, edo*
>
> *iv. besteen eskubideak eta askatasunak babestea*
>
> *b) legeren batek komunikazioa baimentzen badu helburu hauetarako:*
>
> *i. datuen subjektua edo lerro genetiko bereko senide bat babestea*
>
> *ii. ukituaren edo hirugarren pertsona baten interes bitalak babestea edo*
>
> *iii. berariazko kontratu betebeharrak betetzea edo*
>
> *iv. legezko erreklamazio bat ezartzea, horretaz baliatzea edo defendatzea".*

Lehen aipatu dugun WP131 dokumentuak ere honakoa dio:

> *"Salbuespen horrek prebentzio izaerako, izaera terapeutikoko eta susperraldi izaerako osasun zerbitzuak emateko berariazko asmoa duten datu pertsonalentzat bakarrik balio du, eta osasun zerbitzu horien kudeaketarako, adibidez, fakturazioa, kontabilitatea edo estatistikak.*
>
> *Ez ditu estaltzen zerbitzu horiek zuzenean emateko beharrezkoak ez diren geroko tratamenduak, esate baterako, ikerketa medikua, gastu itzulketak gaixotasun aseguruak izateagatik edo diru-salaketak aurkeztea. Osasun publikoaren eta babes sozialaren esparruko hainbat tratamendu ere 8. artikuluko 3. idatz-zatiaren helmenetik kanpo daude, batez ere, kalitatearen eta errentagarritasunaren bermeari buruzkoak, eta gaixotasun-aseguruaren erregimenean prestazio eta zerbitzu eskaeren erreklamazioak ebazteko prozedurak ere bai; izan ere, Zuzentarauaren 34. kontuan hartzekoen edo gogoeten atalean 8. artikuluaren 4. idatz-zatia alegatzeko adibide moduan aipatzen baitira".*

DBLOk ere jaso ditu Batasuneko aurreikuspen horiek.

Hona DBLOren 7.6 artikuluak xedatzen duena:

> *"Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa gorabehera, artikulu honen 2 eta 3. idatz-zatiek aipatu izaera pertsonaleko datuak tratatzeko modukoak izan daitezke, datu horiek tratatzea beharrezkoa denean prebentziorako edo medikuaren diagnostikoarentzat, osasun-laguntza emateko edo tratamendu medikoentzat edo osasun-zerbitzuak kudeatzeko, baldin eta datu horiek tratatzen baditu lanbide-isiltasuna duen osasun-arloko profesional batek, edo lanbide-isiltasunaren pareko betebeharra duen beste pertsonaren batek.*
>
> *Aurreko paragrafoak aipatzen dituen datuak tratatzeko modukoak izango dira, berebat, tratamendua beharrezkoa denean ukituaren edo beste pertsona baten berebiziko interesa babesteko, ukituak bere adostasuna emateko gaitasunik ez duenean arrazoi fisiko zein juridikoen ondorioz".*

Audientzia Nazionalak 2002ko maiatzaren 31ko epaian artikulu hori interpretatu zuen, eta adierazi zuen 7.6 artikuluan aurreikusitako salbuespena **era murriztuan interpretatu behar dela,** eta esan zuen kasu bakoitzean aztertu beharko dela ea tratamendua benetan den prebentziorako eta diagnostikorako. Beraz, beste helbururen bat duen tratamendu baterako bada (aztertzen ari garen kasuan adibidez laneko absentismoa da helburua) eta "bigarren mailakotzat" jo badaiteke, orduan ez da 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoaren babespean egongo.

Berriki Auzitegi Gorenaren 2009ko urriaren 20ko epaiak berretsi egin du Audientzia Nazionalaren interpretazio murriztailea, Audientzia Nazionalaren 2007ko maiatzaren 24ko epaiarekin bat etorrita.

> *"Historia klinikoari dagokionez, Pazientearen Autonomiari buruzko Legeak dio "paziente bakoitzaren dokumentazio klinikoa ahalik eta osoena izan" behar dela, behar bezalako osasun asistentzia eman ahal izateko. Horregatik, zilegi izan daiteke, inpugnatutako epaiak ere esaten duenez, historia klinikoaren batasunaren printzipioaz hitz egitea. Baina, argi utzita historia klinikoa bateratzeko kontuaren asmo bakarra paziente bakoitzaren gaineko informazioa ez sakabanatzea dela, eta horren onuradun bakarra pazientea bera dela. Pazientearen Autonomiari buruzko Legearen 16. artikuluaren lehenengo idatz-zatiak argi uzten du hori: "Historia klinikoa, batik bat, gaixoak osasun-laguntza ona izango duela bermatzeko bitarteko bat da. Historia klinikoek ez dute izaera unitarioa izango laneko arriskuen prebentzioko mutuei, errekurritutako epaiak nahi zuen bezala, lana errazteko, eta are gutxiago enpresariei. Egia da osasun asistentzia hobea ematea ahalbideratzen duela, baina hobekuntza ez da hirugarrenak ahalegin gutxiago egiteko (pertsonal sanitarioa, administrazioa, enpresariak eta abar), pazientea hobeto egoteko baizik. Garrantzi handiko alderdia da hau, pertsonen osasunari buruzko informazioa intimitaterako oinarrizko eskubidearen babespean dago erabat, Konstituzio Auzitegiaren 196/2004 Epaiak, beste batzuen artean, argitu duenez. Beraz, informazio horrekiko bete behar den konfidentzialtasunak salbuespenak izatekotan, pazienteari ekarriko dizkion onurengatik izango dira, edo behar bezala balioztatutako interes orokorreko eskakizun gorenengatik, baina ez dira izango laneko arriskuak prebenitzeko mutuak errazago lan egiteko. Pazientearen Autonomiari buruzko Legearen 18. artikuluak ere pazienteari berari baino ez dio aitortzen historia klinikoa atzitzeko eskubidea, eta ez hirugarrenei; eta 19. artikuluak "historia klinikoak modu aktiboan eta arduratsuan zaintzeko mekanismo bat ezarri beharko" dela dio.*
> *Labur esanda, gai honek ahalik eta konfidentzialtasunik handiena eskatzen du, eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legean eta Pazientearen Autonomiari buruzko Legean ez dago elementurik adierazten duenik FREMAPek baimenik gabe egindako datu komunikazioa legezkoa denik".*

Bestalde, DBLOren 8. artikuluak zera dio osasun asistentziaren esparruari dagokionez: "*Lagapenaren inguruan 11. artikuluak xedatutakoa gorabehera, erakunde eta osasun-zentro publiko zein pribatuek eta kasuan kasuko profesionalek eurengana jotzen duten pertsonen edo eurek tratatu behar dituzten pertsonen osasunari buruzko izaera pertsonaleko datuak trata ditzakete, estatuko edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoko osasunari buruzko legerian xedatutakoaren arabera".*

15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamenduaren 10.5 artikuluak ere honakoa dio: "*ez da beharrezkoa izango interesatuak baimena ematea, osasunarekin zerikusia duten datu pertsonalak komunikatzeko Osasunaren Sistema Nazionala osatzen duten erakunde, zentro eta zerbitzuen artean, eta hori baita baliabide elektronikoen bidez ere,*

betiere datu horiek pertsonei osasun arloko arreta eskaintzeko ematen badira; hori guztia Osasunaren Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen V. kapituluan xedatutakoaz bat egin beharko da".

Azkenik, Lege Organikoaren 11.2 f) artikuluak ere dio zilegi dela osasunarekin lotutako zenbait datu lagatzea "*Osasunari buruzko izaera pertsonaleko datuak lagatzea beharrezkoa denean, fitxategira jotzea eskatzen duen larrialdiari aurre egiteko edo ikerketa epidemiologikoak egiteko, estatuko zein autonomia-erkidegoetako osasunari buruzko legerian ezarritakoaren arabera".*

Esandako guztia ikusirik, Bulegoak ateratzen duen ondorioa da DBLOren 7.3 artikuluak araubide berezia ezartzen duela osasuneko datuentzat. Beraz, interesdunaren adostasunik gabe osasuneko datuak tratatu edo komunikatzeko, lege baten baimena beharko da, eta baimen horren oinarrian interes orokorreko arrazoiak egon beharko dira.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 219/2008 Txostenak argiago dio "*Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 7.3 artikulua ezartzeak esan nahi duela, espezialitate printzipioari helduta, ezinezkoa dela Lege Organikoaren 11.2 artikuluak aurreikusten dituen tratamenduak legezkotzat jotzeko arrazoiak aplikatzea bertan aipatutako datuei; ondorioz, kasu jakin batzuetan baino ezin izango dira datu horien tratamendua eta lagapena gaitu: arau berezi batek halakorik jasotzen duenean ala lege orokorrak horrelako datuak berariaz aipatzen dituenean*".

Ondorioz, 15/1999 Lege Organikoak osasun datuak noiz tratatu daitezkeen zorrotz adierazita dauka zerrenda batean. Hona hemen noiz tratatu daitezkeen osasun datuak:

- Interesdunak berariaz adierazten badu hori egiteko adostasuna.
- Lege izaera duen arau batek hori egin daitekeela esaten badu.
- Tratamendua ezinbestekoa bada prebentziorako edo mediko diagnostikorako, osasun asistentzia emateko edo osasun zerbitzuak kudeatzeko; baina, 15/1999 Lege Organikoaren 7.6 artikuluak ezarritako murrizketekin: Gainera, lehen esan bezala, artikuluaren interpretazioa ere murriztailea izan beharko da.
- Tratamendua nahitaezkoa bada ukituaren hil ala biziko larrialdi egoera bati aurre egiteko.
- Tratamendua osasun arretaren esparruan eta osasun zentroetara joaten diren pazienteei dagokienez egiten bada, eta ezargarria den lege sektorialak dioena betez egiten bada.
- Datuak komunikatzea nahitaezkoa bada larrialdi bati aurre egiteko edo azterketa epidemiologikoak egiteko, arloko araudian xedatutakoaren arabera.

Araudi hori tartean dagoen osasunaren arloko gainontzeko legediarekin osatu beharko da. Beraz, osasunari buruzko datuen esparruari dagokionez, batez ere honako hauek izan behar ditugu kontuan: Datuak Babesteko Lege Organikoa eta DBLO garatzen duen Erregelamendua, eta osasun datuak tratatzeko oinarrizko arau-esparrua eratzen duen osasun arloko araudia, araudi horrek osatu egiten baititu15/1999 Lege Organikoak emandako arauak.

V

Segidan aztertuko dugu legearen aurreproiektuaren testua, eta esan behar da aurreproiektatutako legearen helburua dela, izenburuak dioenarekin bat, dopinaren aurkako legedia Dopinaren Aurkako Munduko Kodera egokitzea, eta horretarako, Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearen hainbat artikulu aldatzen ditu.

Bere garaian Agentziak 12/2012 Legearen gaineko txostena egin zuen, legea izapidetzen ari zen bitartean. Legezkotasun txosten hartan (IL10-010) sakon aztertu genuen, batetik, legeak nolako eragina zuen pertsonen pribatutasunerako eta intimitaterako oinarrizko eskubidean, eta, bestetik, datu pertsonalen tratamenduetan legeak agindutako aurreikuspenen ondoriozko datu pertsonalen tratamenduetan ziurtatu beharreko printzipioak eta bermeak. Honako printzipioez ari gara: datuen kalitatearen printzipioa (DBLOren 4. artikulua); informazio bilketako informaziorako eskubidea (DBLOren 5. artikulua); ukituaren adostasuna (DBLOren 6. artikulua); bereziki babestutako datuen tratamendua (DBLOren 7. artikulua); osasun datuak (DBLOren 8. artikulua); sekretu gorde beharra (DBLOren 10. artikulua); datu komunikazioa edo datu lagatzea (DBLOren 11. artikulua) eta hirugarren konturako datu atzipena (DBLOren 12. artikulua).

Aurreko gure txostenean zorrotz aztertu genituen DBLOk arautzen dituen eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak garatzen dituen printzipio horiek; eta, beraz, txosten horretara jotzen dugu, gauza bera bi aldiz ez esateko. Hala ere, ikusirik proiektatutako lege aldaketa nolakoa den, txosten honen bidez hainbat alderdi azpimarratu nahi ditugu, datuak babes oinarrizko eskubiderako garrantzi handia dutelako, bereziki lotura estua dutelako DBLOko printzipio batzuekin.

Lehenengo eta behin, arreta jarri nahi dugu puntu batean, eta da Agentziak uste duela **legeak ez dituela behar bezain ondo edo argi ebatzi dopinaren aurkako kontrol eta zehapen erregimena ezarpen eremu subjektiboaren mugak.** Legearen artikuluak ikusita, batez ere 1. artikuluko 5. eta i. idatz-zatiak, 12. artikuluko 1. eta 9. idatz-zatiak (hau orain aldatu egingo da), 21.1 artikulua (hau ere aldatu egingo da) eta seigarren xedapen gehigarria ikusita, badirudi dopina kontrolatzeko erregimena ezarri ahal zaiela honako hauei: kirolari federatuei, federatu gabeko kirol-lehiaketetan parte hartzen dutenei (eskola-lizentzia, unibertsitate-lizentzia, edo lizentziaren baliokidea den inskripzioa dutenak) eta lehiaz kanpoko kirol-jardueretan aritzen direnei.

Eta kontu hori oso garrantzitsua da, IL10-010 Txostenean esan genuenez, argitzeko ea lege hau ondo ezkontzen den pertsonen pribatutasunerako (Konstituzioaren 18.4 artikulua) eta intimitaterako (Konstituzioaren 18.1 artikulua) eskubidearekin, Agentziak uste duelako Euskadin kirola egiten duten pertsona guztiei (haur eta heldu) ustez dopin kontrolak egiteko agintzen duen lege batek ez duela betetzen proportzionaltasunaren irizpidea honakoen artean: legearen kontrol helburua (joko garbia bermatzea eta kirola egiten dutenen osasun prebentzioa) eta kirola egiten dutenen oinarrizko eskubide eta askatasunekiko errespetua.

112. En este ámbito, la reforma no ha contemplado la suspensión provisional optativa, basada en un resultado analítico adverso por sustancias específicas, productos contaminados u otras infracciones de las normas antidopaje. Al respecto, no se encuentra fundamentación en el expediente que nos ayude a comprender tal opción.

113. En el **apartado 1 del artículo 23** se tipifican dos nuevas infracciones muy graves, relativas a la complicidad y a la asociación prohibida, siguiendo lo estipulado en los artículos 2.9 y 2.10 del CMA. Cabe añadir que, en el caso de la asociación prohibida, el

artículo únicamente parece recoger los supuestos en los que la persona de apoyo al deportista no está a sujeta a la autoridad de una organización antidopaje, no apreciándose la inclusión de la referencia en el caso de sujeción y que esté cumpliendo el periodo de suspensión. Asimismo, no se observa la tipificación de la asociación con la persona que está actuando como encubridor o intermediario de las personas descritas.

114. La nueva redacción dada al **artículo 24** pretende introducir el régimen sancionador previsto en el CMA, junto con los criterios que permiten la graduación de los periodos de suspensión. Ahora bien, junto con lo anterior, el texto mantiene la tipificación de las sanciones recogidas en los tres primeros apartados del texto vigente. Esto provoca que la mayoría de las infracciones se contemplen por duplicado, lo que no contribuye a la claridad ni a la seguridad jurídica del texto.

115. Así, inicialmente, se recogen la infracción junto con otras que responden a similar gravedad estableciéndose una horquilla de suspensión y, en su caso, de multa. Por otra parte, las modificaciones introducidas siguen un patrón distinto identificando la conducta concreta para imponer una sanción fija que luego puede ser rebajada en un periodo concreto en función de determinadas circunstancias atenuantes.

116. Se da la particularidad de que algunas sanciones pueden llegar a ser inferiores a las marcadas con carácter general en las horquillas de los tres primeros apartados (por ejemplo, la señalada en el apartado 8º en relación con el 1º). Por ello, convendría revisar la redacción dada a los tres primeros apartados, en relación con el resto, a los efectos de dotar de coherencia y seguridad jurídica a la materia. O, incluso, podrá valorarse su supresión, integrando en el lugar adecuado aquellos aspectos no recogidos en los apartados siguientes.

117. Por otra parte, cabría reflexionar sobre la oportunidad de integrar los criterios de aplicación de los periodos de suspensión dentro del artículo 28, dedicado también a los criterios para la imposición de sanciones. De esta forma se evitaría la pérdida de sistematicidad que provocará dificultades a la hora de imponer los criterios en la materia.

118. El **artículo 24 bis** incluye las previsiones del CMA relativas a las sanciones por infracciones múltiples. En el mismo se echa en falta la referencia a la posibilidad de que el periodo de suspensión pueda ser objeto de reducción adicional en los casos contemplados en el artículo 10.6 del CMA.

119. Por su parte, el 2º párrafo quedaría más completo si se indicase que el periodo de suspensión será desde ocho años hasta la suspensión de por vida.

120. Asimismo la expresión empleada en el párrafo 4 relativa a que la organización antidopaje se haya "esforzado razonablemente para presentar la notificación", aun proviniendo del CMA, incorpora a nuestro ordenamiento conceptos jurídicos indeterminados que deberían ser descartados. En este supuesto sería más adecuado referenciar que la organización antidopaje debería acreditar el intento de la práctica de la notificación, en los términos previstos en la normativa establecida al respecto.

121. El **artículo 30** supone la traslación al texto legal del artículo 108 del CMA, relativo a la anulación de resultados en competiciones posteriores a la recogida de muestras o a la comisión de una infracción de las normas antidopaje. Ahora bien, en el mismo no se incluye, tal y como se realiza en el CMA, el periodo límite de dicha medida "hasta el inicio de cualquier suspensión provisional o periodo de suspensión".

122. Las previsiones del **artículo 38 bis** ya han sido objeto de un riguroso escrutinio por parte de la AVPD sin que proceda insistir sobre las consideraciones que efectúa y, que como anteriormente hemos expuesto, la práctica totalidad de las mismas ya han sido objeto de acogimiento en el texto.

123. Únicamente advertir que en el mismo no se ha incluido la salvedad, en relación a la publicación de resultados de menores, recogida en el artículo 14.3.6 del CMA, que apunta a que cuando el deportista u otra persona que haya sido hallado culpable sea menor no será necesaria la comunicación pública obligatoria y que la comunicación pública, en el caso de que afecte a un menor, será proporcional a los hechos y circunstancias de caso.

D) Observaciones de técnica normativa:

124. En la materia de técnica normativa la Comisión recuerda que el anteproyecto se debe ajustar a las Directrices para la elaboración de proyectos de ley, decretos, órdenes y resoluciones, aprobadas por el Acuerdo del Consejo de Gobierno de 23 de marzo de 1993, aplicables en virtud de la disposición adicional tercera de la LPEDG.

125. Siguiendo lo expresado en las mismas, se formulan las siguientes observaciones a fin de lograr un producto normativo técnicamente más acabado.

126. El título de la norma modificativa deberá explicitar su carácter de tal. Así las normas que tengan por objeto la modificación o derogación de otras anteriores deberán indicar sumariamente en su título, además de la materia regulada, el objeto o finalidad de la misma, modificación o derogación,

127. El anteproyecto informado consiste en una norma de modificación de diferentes artículos que, según las directrices referidas, deben abordarse no de forma agrupada, en un artículo único, sino cada modificación en un artículo independiente, que serán numerados ordinalmente.

128. Por otra parte, el título del artículo modificativo deberá citar el número y el título del artículo a modificar, si lo tuviere, y de la norma modificada. En este sentido, los apartados existentes podrían constituirse en artículos en la mayoría de los casos.

129. Las salvedades serían las correspondientes a las modificaciones de los artículos 13, 23, 30 y 37, para las que se emplea más de un apartado, que deberían ser agrupadas en un artículo.

130. En la composición de las disposiciones transitorias es preferible la denominación correlativa de disposición transitoria primera, disposición transitoria segunda, frente a la titulación genérica de la parte como disposiciones transitorias y luego su enumeración como 1 y 2.

131. Asimismo, aunque no se incluye en el texto, convendría reemplazan la mención que se realiza en el artículo 36.2 a la derogada Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre protección de la seguridad ciudadana, sustituyéndola por la vigente. Ley Orgánica 4/2015, de 30 de marzo, de protección de la seguridad ciudadana.

132. Finalmente, en el artículo 38 bis 4. convendría sustituir la palabra "comunicación" por "divulgación", para evitar equívocos con otra figura jurídica diferente

CONCLUSIÓN

La Comisión dictamina que, una vez consideradas las observaciones formuladas en el cuerpo del presente dictamen, puede elevarse al Consejo de Gobierno para su aprobación el anteproyecto de ley de referencia.

Lo que certificamos en Vitoria-Gasteiz, a 22 de enero de 2016 para su conocimiento y consideración, recordándole la obligación prevista en el artículo 30.2 de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de comunicar a esta Comisión la disposición o resolución que finalmente se adopte, en la forma y plazo que se establecen en el artículo 34 del Reglamento de Organización y Funcionamiento (aprobado por Decreto 167/2006, de 12 de septiembre).

Vº Bº:

Jesús María Alonso Quilchano,

Secretario

Sabino Torre Díez,

Presidente

FIRMADO DIGITALMENTE POR:

Firmante: **AHOLKU BATZORDE JURIDIKOA-COMISION JURIDICA ASESORA**
Fecha de la firma: **22/01/2016 11:42:32**
Validación de la firma: **Correcta**

AHOLKU BATZORDE JURIDIKOA
COMISIÓN JURÍDICA ASESORA
EUSKADI

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAKO SAILBURUA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, 2016ko urtarrilaren 21ean egindako osoko bilkuran, ertzean adierazitako kideak bertaratu direla, zure **kontsulta** aztertu du (erregistro-zenbakia: 192/2015), **Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeko legearen aurreproiektuari buruzkoa (Erref.: DNCG_LEY_42158/2014_06**).

Hausnartu, eta aho batez eman du irizpen hau. Batzordearen iritzia Calonge Crespo batzordekideak adierazi du.

BATZORDEBURUA:
Sabino Torre Díez jauna.

PRESIDENTEORDEA:
Xabier Unanue Ortega jauna

KIDEAK:
Maria Teresa Astigarraga Goenaga andrea.
Luis Mª Eskubi Juaristi jauna.
Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.
Gorka Erlantz Zorrozua Aierbe jauna.
Imanol Zubizarreta Arteche jauna.
Ion Gurutz Echave Aranzabal jauna.
Iñaki Calonge Crespo jauna.

IDAZKARIA:
Jesús Mª Alonso Quilchano jauna.

5/2016 ZENBAKIDUN IRIZPENA

AURREKARIAK

1. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak, 2015eko abenduaren 1ean emandako Aginduaren bidez (egun bereko sarrera-erregistroa du), goian aipatutako lege-aurreproiektuari buruzko kontsulta egin zion Batzordeari.

2. Sailburuaren igortze-aginduaz eta aurreproiektuaren testuaz gain, honako hauek ditu espedienteak:

   a) Agindua, 2014ko azaroaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeko lege-aurreproiektua prestatzeko prozedurari hasiera ematen diona.

b) Aurreproiektuaren memoria, 2014ko azaroaren 21ekoa, saileko Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak prestatutakoa.

c) Agindua, 2014ko azaroaren 24koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeko lege-aurreproiektua aurrez onartzekoa. Agindu horretan, arauzko testu debiduna dago.

d) Euskadiko Kirol Batzordeak 2014ko urriaren 29an egindako bileraren aktari dagokion ziurtagiria.

e) Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren ofizioak, 2015eko otsailaren 6koak. Haien bidez, lege-aurreproiektuaren kopia bana bidali zitzaien Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiei; Datuak Babesteko Euskal Bulegoari; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako medikuen elkargo ofizialei eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziadunen Elkargo Ofizialari; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkarteari; Euskal Kirol Federazioen Batasunari; eta EKIME elkarteari (Euskadiko Kirol Medikuntza Elkartea).

f) Ebazpena, 2015eko otsailaren 6koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, aurreproiektua jendaurrean jartzekoa (2015eko otsailaren 18an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian).

g) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, 2015eko otsailaren 11koa.

h) Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena, 2015eko martxoaren 9koa.

i) Sailaren txosten juridikoa, 2015eko uztailaren 28koa, Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzak egindakoa.

j) Ofizioa, 2015eko martxoaren 13koa, Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzarena. Horren bidez, aurreproiektuaren kopia bat bidali zitzaion Osasunaren Babeserako Espainiako Agentziari.

k) Enpresen gaineko eraginari buruzko txostena, 2015eko ekainaren 5ekoa, Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren aholkularitza juridikoak egindakoa.

l) Jasotako alegazioak baloratzeko txostena, 2015eko uztailaren 15ekoa.

m) 14/15 Irizpena, 2015eko irailaren 25ekoa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena.

n) Jasotako alegazioak baloratzeko txostena, 2015eko azaroaren 14koa.

o) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, 2015eko azaroaren 16koa.

p) Generoaren ikuspegitik garrantzirik ez izatea justifikatzen duen txostena.

q) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, 2015eko abenduaren 22koa.

GOGOETAK

I BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

3. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeak 3.1. a) artikuluan xedatutakoa betez eman da irizpen hau. Idatz-zati horretan jasotakoaren arabera, Batzordearen kontsulta-eginkizunaren baitan dira "lege-aurreproiektuak", edozein dela haien gaia edo xedea; baldin eta atal horretan bertan zehazten diren salbuespenak betetzen ez badira. Kasu honetan, ez gaude era horretako salbuespen baten aurrean.

II LEGE-AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

4. Irizpenaren xede den testuak zioen azalpena eta artikulu bakarra, bi xedapen iragankor eta azken xedapen bat ditu. Artikuluan indarrean den Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legean egingo diren 28 aldaketak barneratzen dira.

5. Azalpenari dagokion zatian, araudi berria arrazoitzeko zioak deskribatzen dira, hots: i) Kiroleko Dopinaren aurkako Legea 2015eko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen Dopinaren aurkako Mundu Kode berrira egokitzea; ii) Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia Euskadiko administrazio publikoari esleitutako eginkizunak betetzeaz arduratzen den zerbitzu espezializatu modura aitortzea; eta, azkenik, iii) Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetza Batzordeak (aurrerantzean Bitariko Lankidetza Batzordea) Kiroleko Dopinaren aurkako Legeari buruz 2013ko martxoaren 13an lortutako akordioaren edukia barneratzea.

6. Azpimarratzen da aldaketa adierazgarrienak, Dopinaren aurkako Mundu Kode berriaren ondoriozkoak, hauek direla: beste jokabide batzuk zehatzea; lagin biologikoak Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren egiaztapena ez baina onarpena baduten laborategietan aztertzeko aukera; zehapenak aldatu eta etendura-epeak nabarmen luzatzea; eta 10 urteko preskripzio-epea ezartzea.

7. Hau da artikulu bakar horretako atalen edukia:

8. Lehen zenbakian beste modu batean idazten da Kiroleko Dopinaren aurkako Legeko 10. artikuluko 2. zenbakia, eta adierazten da Dopinaren aurkako Euskal Agentzia izango dela arlo horretan EAEko administrazio publikoari legez dagozkion funtzioak beteko dituen organoa.

9. 2. zenbakiak 12. artikuluko 9. zenbakia aldatzen du, eta Bitariko Batzordearen Akordioan haren inguruan emandako interpretazioa jasotzen. Hartan, kontroletatik kanpo uzten dira estatuko kirol-jarduera ofizialak eta nazioarteko kirol federazioek edo dagokion erakunde olinpiko edo paralinpikoak antolatutako nazioarteko kirol-lehiaketak. Gainera, ezartzen da Euskadikoa ez den estatuko edo erkidegoko lizentzia duten kirolariei lehiaketatik kanpo kontrolak egiteko, Dopinaren Aurkako Estatuko Agentziak edo beste agentzien arduradunek eskatu beharko dutela, eta haiekin hitzarmen bat sinatuta egingo direla.

10. Hirugarren, laugarren eta bosgarren zenbakiak 13. artikulua aldatzekoak dira. Artikulu horri hiru zenbaki erantsi zaizkio: 11., 12. eta 13 zenbakiak. Horrela, proba-sistemaren eta dopinaren aurkako proben baliozkotasunari buruzko presuntzioaren konfigurazioa Dopinaren aurkako Mundu Kodeari egokitzen zaio. Halaber, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak onartutako metodo analitikoak edo erabakitzeko mugak baliozkotzat jotzen dira, baldin eta kanpo-berrikusketa izan eta komunitate zientifikoari kontsultatu bazaio. Hori guztiori, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.1.1 eta 3.2.1 artikuluetan adierazitakoari jarraiki.

11. Seigarren zenbakiak Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 16. artikuluko 3. zenbakia aldatzen du, kirolariari analisien emaitza jakinarazi aurretik laginari buruzko analisi osagarriak egiteko aukerari buruzkoa, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 6.5. artikuluan xedatutakoarekin bat.

12. Zazpigarren zenbakiak Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 18. artikuluko 3. zenbakia aldatzen du, eta ezartzen du laginen analisiak DMA agentziak onartutako laborategietan ere egin ahal izango direla, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 6.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

13. Zortzigarren zenbakiak Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 19. artikuluko 1. zenbakia aldatzen du, eta testua Bitariko Batzordean adostutakora egokitzen, ñabardura batekin: EHAAn argitaratuko den zerrenda BOE aldizkarian argitaratuaren osagarri izango dela.

14. Bederatzigarren zenbakian Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 21.1. artikulua aldatzen da, eta hori ere Bitariko Batzordearen Akordioaren ondorio da, eta

administrazioaren zehazpen-araubidetik kanpo uzten ditu estatuko edo nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan gertatzen diren ekintzak edo ez-betetzeak.

15. Hamargarren zenbakiak artikulu berri bat sortzen du, 22 bis artikulua, "derrigorrezko behin-behineko etendura" izenekoa, eta Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 7.91 artikulukoa ekartzen du legera. Debekatutako metodo batekin edo substantzia espezifiko bat ez den debekaturiko substantzia batekin aurkako analisi-emaitza bat lortzen denean ezarriko da.

16. Hamaikagarren eta hamabigarren zenbakietan arau-hauste larrien bi adibide berri jasotzen dira, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.9 eta 2.10 artikuluetan tipifikatutakotik eratorritakoak: konplizitatea eta debekatutako asoziazioa. Bi horiek Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 23.1. artikuluaaldatzen dute.

17. Hamahirugarren zenbakiak Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 24. artikulua aldatzen du, eta zehapen-araubidea Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.2, 10.3, 10.4, 10,5 eta 10.6 artikuluetan ezarritakora egokitzen. Artikulu horretan, aplikagarri diren zehapenak tipifikatzeaz gain, kirolariak duen erantzukizun-mailari dagozkion zenbait arau ezartzen dira, bere jokabidean erakutsitako nahitasuna kontuan hartuz.

18. Bestalde, hamalaugarren zenbakian, artikulu berri bat jasotzen da, 24 bis artikulua, zehapen anizkoitzen ondoriozko zigorrak biltzen dituena, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.7 artikuluaren ildotik.

19. Hamabosgarren eta hamaseigarren zenbakietan, 29. artikuluan bi puntu berri txertatzen dira, diruzko zigorrei eta dopinaren aurkako arau-hausteen ondorioz sortutako gastuak berreskuratzeari buruzkoak, eta hori guztiori Dopinaren aurkako Mundu Kodearekin bat.

20. Hamazazpigarren eta hemezortzigarren zenbakietan, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.10 artikuluaren ildotik, Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 30. artikulua aldatzen da, eta ezartzen da litekeena dela hirugarrenei eragindako kalteak ordaindu behar izatea, eta kontrako emaitza hauteman den lehiaketan lortutako emaitzez gain, beste batzuetan lortutako dominak, puntuak eta sariak kentzeko aukera ere badagoela, ekitate-arrazoiak tartean ez badira.

21. Hemeretzigarren zenbakian, beste artikulu bat eransten da, 31 bis artikulu berria, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.12 artikulua legera ekartzeko. Hartan, etendura batean kirolariak duen estatusa zehazten da.

22. Hogeigarren zenbakiak Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 34. artikulua aldatzen du, arau-hausteei dagokionez 10 urteko preskripzio-epe bakarra finkatuz, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 17. artikuluarekin bat.

23. Hogeita batgarren atalak Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 36. artikuluan beste zenbaki bat eransten du, 3. zenbakia, eta hartan ezartzen du administrazioaren zehazpen-arloan, hartan aurreikusten ez denerako eta bateragarri badira, dopinari dagozkion diziplina-prozeduretan aplika daitezkeen eskumenari buruzko irizpideak aplikatuko direla.

24. Hogeita bigarrenetik hogeita seigarrenera bitarteko zenbakietan bost atal eransten zaizkio Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 37. artikuluari. Dopinaren aurkako kontrol bateko emaitzen kudeaketari eta dopinaren aurkako erakundeen esku-hartzearen ondorioz sortutako balizko gatazkei buruzkoak dira, eta Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 7.1. artikulua legera ekartzeko helburua dute.

25. Hogeita zazpigarren zenbakian, beste artikulu bat eransten da, 38 bis artikulua, zigorren hedapenari buruzkoa, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 14.3. artikuluan adierazitakoari jarraiki.

26. Azkenik, hogeita zortzigarren zenbakiak 38 ter artikulua gaineratzen du, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 13.1 artikuluan ezarritako irizpidea jasotzeko, hots, dopinaren alorrean ebazpenak berrikustearen eremuan ez dela mugarik egongo, egindako eskaerekin bat etorriko dela eta ezin izango dela hasierako egoera okertu.

27. Xedapen iragankorretan ezartzen da dopinaren alorrean arau-hausteak, legea indarrean sartu aurretik egindakoak, eta dopina zigortzeko diziplina-prozedurak, indarren sartu aurretikoak, aurreko araudiaren arabera arautuko direla. Horrez gain, zehaztapen bat gaineratzen da, espedientepean dagoen pertsonaren eskuetan uzten duena arau berria edo aurrekoa aplikatzeari buruzko erabakia.

28. Azkenik, azken xedapenak dio EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

III EGITEA ETA IZAPIDETZEA

29. Lege-aurreproiektua egiteko baliatu behar den prozedura abenduaren 22ko 8/2003 Legeak ezarritakoa da (Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legea, aurrerantzean XOEPL).

30. Hori gorabehera, batzorde honek aditzera emana du zer desberdintasun dauden prozeduraz egin beharreko balorazioan, kontuan hartuta izapidetzeak dakarren

produktuaren izaera berezia, ez baita gauza bera erregelamendua edo ekimen legegilea izatea. Legebiltzarrean garatzen da bete-betean legegintza-prozedura, eta, Konstituzioak (EK), Autonomia Estatutuak edo, batzuetan, lege organikoek erabakitzeko baldintzak jartzen dituzten kasu espezifikoetan izan ezik, bete behar duten eskakizun bakarra da behar diren aurrekariak ondoan izatea, Legebiltzarrak haiei buruzko iritzia eman ahal izan dezan, eta, hala behar duenean, finantzaketa-eranskin egokia (Jaurlaritzaren Legearen 57. artikulua eta Ganberaren Erregelamenduaren 133. artikulua).

31. Eta beste hainbatetan ere esan dugunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren legeak Gobernuaren jarduera bideratu nahi izan du, xedapen orokorrak egitean darabilen metodologia bera erabil dezan lege-aurreproiektuak idaztean. Hartara, XOEPLren zioen adierazpenak dioenez, legegintzako ahala duenaren eginkizuna erraztu egingo da, hobeto funtsatutako proiektuak aurkeztuko baitzaizkio eztabaidatu eta erabakitzeko, helburuak iristeko egokiago eta finago den teknika juridikoz artikuluka banatuak.

32. Hau da, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren legea ez da parametroa arauaren balioa epaitzeko, aitzitik, bide bat ematen du ekimenari lotutako elementu garrantzitsu guztiak biltzeko, hala nola baldintzatzaile juridikoak eta ekonomikoak, ukitzen duen errealitatean eta hartzaileengan duen eragina eta abar, bai eta ikusteko ere zer neurritan dauden elkarri egokituta ekimena eta lortu nahi diren helburuak, eta ea horiek lortu ahal izango diren indarrean jartzendenean.

33. Horregatik, espedientea aztertu egingo dugu, irizpenaren xede den testua lortzeko erabilitako prozedura xedapen orokorrak egiteko prozeduraren legean xedatutakoaren araberakoa den ala ez ikusteko.

34. Hasteko agindua eman da, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren legearen 5. artikuluan ezarri bezala, legegileak erabakitako edukiarekin, eta lege-aurreproiektua aurrez onartu da xedapen orokorrak egiteko prozeduraren legearen 7.1 artikuluan adierazitako moduan.

35. Espedientean justifikazio-memoria bat jasotzen da. Hartan, dopinaren alorreko Euskadiko eta nazioarteko arauei buruzko azterketa sakona egin ondotik, proposatutako arautzearen helburua azaltzen da, aurrez adierazitako hiru helburuekin lotuta. Memorian, halaber, araudiak eragindako sektoreak, lege-aurreproiektua gaitzen duten oinarri juridikoak eta lege-aurreproiektuaren ildo nagusiak eta eragin ekonomikoa aztertzen dira. Azken atalean, genero-eragina aztertzen da.

36. Eragin ekonomikoa ere aztertzen da, eta adierazten da aurreproiektuak ez duela zertan langile-kopurua edo bitarteko materialena areagotu, eta, horrenbestez, ez dakarrela gastuen igoera adierazgarririk edo diru-sarrera publikoen jaitsierarik. Argudiatzen denez, Dopinaren aurkako Euskal Agentzia berariaz aitortzen den arren, ez da erakunde berri baten sorrera, hark zerbitzu modura funtzionatzen baitu jada eta bere zeregina burutzeko giza baliabide eta baliabide material jakin batzuk baititu, egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen dekretu bidez sortu ostean.

37. Ekimena sustatzen duen organoak aurreproiektuak generoaren ikuspegitik garrantzirik ez izatea justifikatzeko txostena egin du; izan ere, emakume eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikuluan hura eratzea eskatzen da. Txostenean adierazten denez, aurreproiektuan Gobernu Kontseiluak 2007ko otsailaren 13ko saioan onartutako irizpenetako lehenengoaren 2.1.d) letran ezartzen den salbuespena da aplikatzekoa, izan ere, generoaren ikuspegitik garrantzirik ez duen aldaketa bat da.

38. Txosten juridikoak XOEPLren 7.3. artikuluko eskakizunak betetzen ditu, eta ondoz ondoko hainbat epigrafetan aurreproiektuaren aurrekariak, eskumenak eta edukiaren inguruko azterketa egiten da, eta horri buruzko zerbait ohar egiten, testua hobetu eta egokitze aldera. Azkenik, aurreproiektua izapidetzeko beharrezkoak diren izapideen inguruko azterketa bat egiten da.

39. Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren legearen 8.1 artikuluak ezarritakoari jarraituz, testua jendaurrean jartzeko izapidea egin zen. Era berean, entzunaldi-izapidea egin da, 8.3 artikuluan esan bezala, eta testua modu partikularrean helarazi zaie lehen aipatutako erakunde eta elkarteei, eta horiek ez dute ohartarazpenik egin.

40. Halaber, ekimenaren alorrean eskumenak dituzten administrazioei kontsulta egin zaie —foru-aldundiak—, eta ez dute haren inguruko alegaziorik egin.

41. Lege-aurreproiektua Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra osatzen duten sail guztietara helarazi da, eta ez da inolako alegaziorik jaso.

42. Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak bi ikuspuntutatik eman du irizpena: hizkuntza-araudia betetzearen ikuspuntutik eta euskararen erabileraren normalizazioan daukan eraginaren ikuspuntutik.

43. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak emakume eta gizonen berdintasunerako legearen 21. artikuluan jasotzen den txostena egin du, eta hartan adierazten denez, egokitzat jotzen da generoaren araberako eraginaren txostena igortzeko salbuespena, lehen irizpenaren 2.1 d) atalean xedatutakoarekin bat etorriz.

44. Orobat, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ere egin du txostena aurreproiektuari buruz, horren testuak datu pertsonalen tratamenduari buruzko xedapenak dituela ikusita; Bulegoak, egin-eginean ere, bere eginkizunen artean baitu datuak babesteko legeak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan bete daitezen zaintzea [Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1.a) artikulua].

45. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bere txostenean eskubidearen konfigurazio konstituzionalari heltzen dio eta, horrez gain, osasun-datuek datu pertsonalen babesaren testuinguruan duten tratamendua aipatzen du. Aurreproiektuaren eduki zehatzaren inguruan, bulegoaren ohartarazpenetako zenbait zigorrak Internet bidez hedatzeari buruzkoak dira. Hori zilegi litzatekeela adierazten da, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2. artikuluaren arabera; izan ere, hedapena lege-izaera formala duen arau batean jasotzen da.

46. Bereziki zalantzagarria iruditzen zaio bulego horrikargu-hartzearen zigorra eta kirolari batek erabilitako substantzia bat publikoki hedatzearekin zer interes publiko lortu nahi den, horretarako medikuaren justifikazioa dagoenean. Haien ustez, informazio horren hedapenak ez luke gainditukо Datu Pertsonalak Babesteari buruzko legearen 4.1. artikuluko proportzionaltasun-testa. Halaber, bulego horrek gomendatzen du Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak bere web-orrian ohartaraztea Internet ez dela jendearentzat eskuragarri den iturria, eta, horrenbestez, argitaratutako informazioa ezin dela gerora beste helburu batzuetarako erabiltzeko tratatu. Eta beste gauza bat ere gomendatzen du: dopinaren aurkako erakundeak dagozkion neurriak har ditzala argitaratutako datuak Interneteko bilatzaileek indexatu ez ditzaten. Azkenik, bulego horrek uste du aurreproiektuak nolabaiteko mugarik gabeko gaikuntza ematen diola dopinaren aurkako erakunde horri, hark erabaki dezan zenbat bidetatik hedatuko duen.

47. Horren inguruan, proposamena egiten duen sailak, testuan Dopinaren aurkako Mundu Kodean adierazten dena errepikatzen dela gogoratu ondoren, adierazten du hartan ez dela hedapenari dagokionez arau-hauste eta zigor-moten arteko bereizketarik egiten; baina zenbait ñabardura egin ditu testua Datu Pertsonalak Babesteari buruzko legean ezarritakoari egokitzeko, hala erabilitako metodo edo substantziari buruzko datuen argitalpenaren inguruan, nola horri dagozkion epeen inguruan. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak planteatu dituen gainerako kontuak gogorarazte hutsak dira, legea aplikatzean bete beharreko lege-betebeharrak, eta komenigarriak iruditzen zaizkien gomendio hutsak.

48. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena ere badauka, hura arautzen duen martxoaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluari jarraiki

emandakoa, eta testua egokia iruditzen zaiola adierazten du. Batzorde horrek zenbait ohartarazpen egin ditu lotura bereziko harremanei, etendura-epearen iraupenari eta Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.9. artikulua, konplizitateari buruzkoa, legera ekartzeari buruz.

49. Nahiz eta testuaren helburuetako bat "Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia aitortzea" izan, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzari ez zaio kontsultarik egin, uste baita kontsulta hori egitea ez dela beharrezkoa, jada badagoen zerbitzu bat izaki.

50. Antzeko arrazoiak direla medio, ez da beharrezkotzat jo Funtzio Publikoko Zuzendaritzari kontsulta egitea, ez baita aurreikusten lanpostu berriak sortzerik.

51. Aipagarria da espedientean ez dela Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak egun duen egiturari buruzko daturik ematen, ezta haren baliabide ekonomiko eta materialei buruzkorik ere. Hura aipatzetik harago, espedienteak ez du aukerarik ematen gutxi gorabehera jakiteko zer dimentsio, diseinu eta jarduteko protokolo dituen. Agentziak dopinaren aurkako borrokan duen zereginari eta haren helburuei buruzko gogoetarik ere ez da egiten. Halaber, ez da adierazten haren egituraketa ezarritako helburuak betetzeko egokiena den ala ez. Dopinaren aurkako borrokaren problematikari eta gure erkidegoan duen garrantziari buruzko azterketarik ez da jasotzen. Horrek guztiorrek, gure ustez, agentziaren eginkizuna, helburuak eta errealitatea hobeto ulertzeko aukera emango luke.

52. Enpresetan duen eraginari buruzko txostena egin da, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko 2012ko ekainaren 28ko 16/2012 Legeko 6. artikuluan ezartzen den moduan. Hartan, adierazten da ez duela eraginik enpresei dagozkien administrazio-zamaren arloan, testuak ez du baitu inolako zerikusirik haien eraketa, abiarazte eta funtzionamenduarekin.

53. Kirolaren Euskal Kontseiluak aurreproiektuari buruzko txostena egin du, eta aldeko irizpena eman du. Orobat, arlo horretan prozedurakarintzeko premia adierazi zuen eta gaiari buruz dagoen kontzientzia sozial urria azpimarratu.

54. Kontrol Ekonomikoaren Bulegoak ere egin du txostena, eta adierazi du aurreproiektuak ez duela zuzenean eragiten EAEko administrazioaren aurrekontuetan.

55. Azkenik, XOEPLren 10.2. artikuluan jasotzen den izapidea formalki bete dela uler dezakegu. Horrela, bada, dokumentu bat eratu da, izapidearen aurrekarien inguruko laburpen baten ostean, egindako oharrak jasotzen dituena, eta horietako bakoitzari erantzun argudiatua ematen.

56. Finean, antolaketan eta giza baliabideetan adituak diren zuzendaritzen iritzia eta balioespena jasotzea nahiko bagenu ere, XOEPLn aurreikusitako eraketa-prozedura bete egin dela ulertu behar dugu.

IV ESKUMENAK ETA ARAU-ESPARRUA

57. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen-banaketaren ikuspegitik, aztergai dugun aurreproiektuak aldatu nahi duen legearen —Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen— habilitazio-titulu berberak ditu, eta hari buruzko irizpena emanda daukagu (231/2011 irizpena).

58. Aurreproiektuak Kiroleko Dopinaren aurkako Legean ezarritakoa aldatzen du partzialki. Lege horrek kirol dopinaren alorreko araudia ordezkatzen zuen, hasiera batean, Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean jasotzen zena.

59. Gure aurreko irizpenean, erreformaren garrantzia kontuan hartuz, eskumenen eta arauen inguruko xehetasunezko azterketa sakona egin zen. Kasu honetan, ordea, aldaketa oso alderdi jakin batzuei buruzkoa da. Horrenbestez, egoeraren inguruko azaleko azalpena egingo dugu soilik, aldaketak eragina duen alderdi horietan erreparatuz.

60. Edozein kasutan, nabarmendu behar da gizarte modernoan kirol-jarduerak, oro har, eta kirol profesionalak, bereziki, lortu duten garrantzia dela medio, horien inguruan dopina sortu dela. Dopinari hiru ikuspegitatik eginzaio aurre, eta, hain zuzen, horiexek dira dopinaren aukako araubidea justifikatzen duten zutabe nagusiak, hots: i) kirolariaren osasuna babestea; ii) lehiakideen arteko aukera-berdintasuna bermatzea; eta iii) kirolaren balioak zaintzea.

61. Arlo horretan, eremu aproposa dago kirol-jarduerak hartzen dituen esparruetan (esate baterako, osasuna, hezkuntza, kultura, ikerketa, heziketa fisikoa, lanbide arautuak edo merkataritza-legeria) herri-administrazioen (estatukoa, erkidegokoa eta tokikoa) eskumenak gurutzatzeko eta haien ekintzak aldiberekoak izateko (Konstituzio Auzitegiaren 194/1998 epaia, urriaren 1ekoa).

62. Azterketa sakona egiteko asmorik gabe, gogorarazi egingo dugu, besterik gabe, arauak bereziki herritarren osasunaren babesaren esparru materialean eragiten duen neurrian, zer dioen Espainiako Konstituzioaren 43.artikuluak: 1. zenbakian herritarrek osasuna babestua izateko duten eskubidea adierazten du, eta 3. zenbakian, agintari publikoek osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola sustatuko dutela, eta aisia behar bezala baliatzen lagunduko dutela. Eta Espainiako Konstituzioaren 53.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, printzipio horiek onartu, bete eta babestu egin

behar dira, eta legedia positiboan, jardunbide judizialean eta botere publikoen jardunean horiexek izango dira kontuan. Hain zuzen ere, printzipio horiek legez garatzeak ahalbidetzen du eskubide horiek epaitegien aurrean baliatzea.

63. Halaber, gogora dezagun EAEEren 10.36 artikuluak eskumen osoa ematen diola Euskal Autonomia Erkidegoari kirolaren alorrean, zeinean bete-betean sartzen baitira bai EKL legea bera, bai eta Kiroleko Dopinaren aurkako Legea bera.

64. Arlo horretako gaian ez dago, Estatuari dagokiolako, eskumena oro har modulatzen duen beste eskumenik, salbu eta aldi berean Estatuaren beste eskumen batzuk aplikatzeak dakartzan mugak eta eskumenak gauzatzean lurralde-printzipioak dakartzanak (Konstituzio Auzitegiaren 13/1988 epaia, otsailaren 4koa).

65. Hala ere, ezinbestekoa da gogoratzea badagoela estatu-mailako dopin-antolamendu bat, kirolariaren osasuna babesteko eta kirolean dopatzeari aurre hartzeko ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoak (aurrerantzean, DOL) jaso duena. Lege horrek, xedapen jakin batzuetarako erabili duen eskumen-iturriaz gain, era generikoan aintzatesten du Estatuaren eskumen bat, hots, "Estatuaren antolamenduari buruzko xedapenak ematekoa, baita Estatuko kirol federatuari bere osoan" eragiten dioten interesen gainekoak ere. Eta ezin da ahaztu, ezta ere, Espainiako Konstituzioaren 149.1.16 artikuluak xedatutakoa (DOLen azken xedapenetan lehenengoa).

66. EKren 149.1.16 artikuluak Estatuari aitortzen dion eskumenari ("Osasunaren oinarriak eta koordinazio orokorra") dagokionez, hori EAEEren 18. artikuluarekin uztartu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen baitio, barne-osasun arloan, Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztea.

67. Osasunaren alorrean, eta maiatzaren 25eko 98/2004 KAEren arabera, " "EKren 149.1 artikuluaren 16. erregelak ere aipatzen dituen oinarriak finkatzeak edota koordinazio orokorra (zati edo azpisistemen dibertsitate edo aniztasuna multzo edo sistemara bildu nahi du, kontraesanak saihestuz eta disfuntzioak gutxituz, honako hauen arabera: 32/1983 KAE, apirilaren 28koa, 2. OJ; 42/1983 KAE, maiatzaren 20koa, 3. OJ; 80/1985 KAE, uztailaren 4koa, 2. OJ) ezin dira garatu autonomia-erkidegoek arau horien arloetan eduki ditzaketen kideko eskumenen edukia husteraino (32/1983 KAE, apirilaren 28koa, 2. OJ)".

68. Eskema hori jarraituz, esan genezake, kirolaren ikuspegitik, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena duela euskal kirola antolatzeko, eta eskumen hori egikaritu dezakeela, aurreproiektuan egin duen bezala, dopinari aurre egiteko erregulazioa ezarrita. Eta osasunaren ikuspegitik, berriz, Estatuak ezarritako oinarriak hartu beharko ditu aintzat, Estatu osoan guztien interesak modu bateratuan eta berdintasun-baldintzen arabera ziurtatzeko xedea baitute oinarriok, baina hortik

abiatuta autonomia-erkidego bakoitzak, bere interesak aldezte aldera, egoki deritzen "berezitasunak sar ditzake bere estatutuak dena delako gai horretan esleitzen dizkion eskumenen esparruaren barruan" (KAEak: 32/1981, 1/1982, 32/1983, 48 eta 49/1988, 69/1988; baita berriagoak ere: 149/1991, 141/1993, 109/2003, eta abar).

69. Adierazi behar da, era berean, DOL legearen zenbait manu organikoak direla (azken xedapenetan bigarrena). Lehen aipatutako irizpenaren kariaz, gaiari buruzko gogoeta sakona egiteko aukera izan genuen. Gauza bat soilik gaineratu behar da: aldatu beharreko alderdietan oso zeharka eragiten dutelarik, ez dela, kalifikazio horretatik eratorrita, erkidegoko legeriari dagokionez mugarik hautematen, Autonomia Erkidegoko kiroleko dopinaren "gaia" arautzeko. (Konstituzio Auzitegiaren 127/1994 eta 61/1997 epaiak).

70. Gogorarazi behar da, orobat, hasiera batean, Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 12.9, 19.1 eta 21.1 artikuluei dagokienez, eskumen arloan gatazkak sortu zirela Estatuaren eta EAEren artean eta, horren ondorioz, Estatuak konstituzio-aurkakotasun errekurtsoa jarri zuela horien aurka. Haatik, bi aldeen arteko ezadostasun horiek Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetza Batzordearen 2013ko martxoaren 13ko Akordioarekin (99 zenbakidun BOE aldizkaria, 2013ko apirilaren 25ekoa) ebatzi ziren. Artikulu horiek egokitu egin ziren akordio horretan ezarritakoari jarraituz.

71. Halaber, ez dugu ahaztu behar Kirol Dopinaren Aurkako 2005eko Nazioarteko Konbentzioa, "Unescoren Hitzarmena", Espainiak berretsia. Haren 4.1. eta 5. artikuluen arabera, estatu kideek Dopinaren aurkako Mundu Kodearen printzipioak errespetatzeko konpromisoa hartzen dute oinarri modura, eta beren betebeharrak betetzeko egokiak diren neurriak hartuko dituzte. Neurri horietan sar daitezke Dopinaren aurkako Mundu Kodea osa dezaketen legegintzako neurriak, erregelamenduak, administrazio-politikak edo -xedapenak edo beste zenbait neurri.

72. Arlo horretan, erkidegoko legegilea Dopinaren aurkako Mundu Kodean jasotzen diren xedapenak, Unescoren Hitzarmenetik eratortzen direnak, ekartzen ari da bere araudira. Horri dagokionez eta Konstituzio Auzitegiak hainbatetan aitortu duenez, ez dago arrazoirik autonomia-erkidego batek, eskumenei dagokienez, nazioarteko zuzenbidea gauzatzeko aukera eragozteko. Hala, nazioarteko hitzarmen eta tratatuak gauzatzeak, autonomia-erkidegoen eskumenari esleitutako gaiei dagokienez, ez dakar, agerikoa denez, eskumen berri bat esleitzea, dagokion autonomia-erkidegoak beste manu batzuen arabera dagoeneko zuenaz apartekoa (Konstituzio Auzitegiaren 252/1988 Epaia).

73. Hori dela eta, materialki eskumena daukanari dagokio Europar Batasuneko edo nazioarteko zuzenbidea betearaztea, barne-zuzenbideko arauen arabera; izan ere, "ez dago eskumen espezifikorik Europar Batasuneko zuzenbidea betearazteko" (Konstituzio Auzitegiaren 236/1991 eta 79/1992 epaiak). Edozein kasutan, berezko eskumenak betearaztean ez da "bestearen eskumen-esparrua inbaditu behar, ez da eragotzi behar Konstituzioak eta estatutuek esleitzen dizkioten funtzioak bete ditzala eta ez da administratuen gainean alferrikako zamarik ezarri behar" (Konstituzio Auzitegiaren 252/1988 eta 79/1992 epaiak).

74. Lurralde historikoetako foru-organoen eskumenei dagokienez, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzkoak (LHL), 7.b.6 artikuluan esleitzen die foru-organoei arau autonomikoak garatu eta exekutatzea alor hauetan: kirola sustatzea, eskola-kirolaren programak eta denontzako kirolarenak. Eta aurreproiektuan ez dira alderdi horiek aipatzen.

75. LHLren 6. artikuluak xedatu duenarekin bat, Euskadiko kirolaren legeak erakunde komunei esleitzen die alor hauetako eskumena "dopatzea aurrezaintzea, kontrolatzea eta zigortzea" [Euskadiko kirolaren legearen 4.2.q) artikulua]. Kiroleko Dopinaren aurkako Legeak ez zuen eragin xedapen horren indarraldian, ezta aurreproiektu hau onartzeak ere .

76. Era berean, aurreproiektuak ez du inolaz ere eragiten Toki-araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. 2.l) artikuluan ezartzen denez, gai hauei dagozkien udal-eskumenetan "kultura-eta kirol-arloko jarduera eta instalazioak".

77. Laburbilduta, ez diogu inongo arazorik ikusten aurreproiektuaren edukiari, autonomia-erkidegoaren eskumenak bidezko eran egikarituta daudelako.

78. Antolaketaren ikuspegitik, EAEEren 10.2 artikuluak adierazitako eskumena ere tartean da, autonomia-erkidegoari bere autogobernu-erakundeen antolaketa, araubidea eta jarduera esleitzen diona. Konstituzio Auzitegiak 50/1999 epaian (3. OJ) adierazi zuenez, autonomiak berezko du erkidegoko administrazioak bere burua modu askean antolatzeko eskumena, eta eskumen esklusibo den aldetik, eduki bakartzat du "dagozkien erkidego-administrazioak osatzen dituzten, edo horien mendeko diren, organo, administrazio-unitate edo erakundeak sortu, aldarazi eta deuseztatzeko ahala".

79. Bestalde, diziplina-prozedurak jorratzerakoan, prozesuko arauen gaineko eskumenen eta Euskadiko zuzenbide substantiboaren berezitasunetatik eta beronen antolaketatik eratortzen diren administrazio-prozeduren babesa dago (EAEE legearen 10.6. artikulua).

V AURREPROIEKTUAREN EDUKIAREN AZTERKETA

A) Ohar orokorrak:

80. Aurrez adierazi dugun moduan, aurreproiektuak Kiroleko Dopinaren aurkako Legean ezarritakoa partzialki aldatzea dakar. Funtsean, indarreko Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aipatutako munduko kode berrira (Johannesburgon, Hegoafrikan, 2013ko azaroaren 12tik 15era egin zen Dopinaren aurkako Munduko IV. Konferentzian onartu zena eta 2015eko urtarrilaren 1ean sartu zena indarrean) egokitzeko betebeharrari erantzuten dion aldaketa bat da.

81. Memorian adierazten denez, arauzko ekimenak segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzea dakar, izan ere, berez konplexua den dopinaren aurkako borrokari dagokion eremu juridikoan ziurtasun-ingurune bat sortu nahi da etatalka ez egitea nazioarteko eremu juridikoarekin —harmonizatzea eskatzen du—.

82. Dopinaren aurka borrokatzeko Dopinaren aurkako Mundu Agentzia sortu zen, zuzenbide pribatuko fundazio modura, Suitzako zuzenbidearen baitan. Dopinaren aurkako Munduko Agentziak Dopinaren aurkako Mundu Kodea onartu zuen. Kode horretan, estatuentzat izaera loteslea ez duten zenbait arau eman ziren, eta horregatik, zuzenbide publikoko nazioarteko tresna bat sortu behar izan zen, estatuentzat lotesle izan zitekeena.

83. Hori Kiroleko Dopinaren aurkako Nazioarteko Konbentzioaren bidez lortu zen (UNESCOk onartu zuen 2005eko azaroaren 18ko bilkuran). Espainiak berretsi egin zuen konbentzio hori eta Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta barne-ordenamendu juridikoaren atal da, Konstituzioaren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera. Nahiz eta Dopinaren aurkako Mundu Kodea ez izan ez izan konbentzioaren zati bat, konbentzioak espresuki adierazten du estatuetako legediak behartuta daudela kodeko printzipioak errespetatzera, kiroleko dopinaren aurkako borrokarako ekimenak estatuan eta nazioartean koordinatzeari begira.

84. Dopinaren alorreko arau-hausteen tipifikazioan, indarrean dagoen 2009ko kodeko arau-hausteak atxikitzen ditu kode berriak, baina, horietaz gainera, jokabide berri batzuk ere zigortzen ditu. Atea irekitzen zaio lagin Dopinaren aurkako Munduko Agentziaren nazioarteko egiaztapena ez duten laborategietan biologikoen analisiak egiteko aukerari, baldin eta agentzia horren onarpena badute. Zehapenak aldatu egiten dira, halako moldez non etendura-epeak nabarmen luzatu diren. Halaber, Dopinaren aurkako Mundu Kodearekin bat etorriz, preskripzio-epe berri bat ezartzen da, 10 urtekoa.

85. Halaber, aipatu behar da arau-ekimenaren beste helburuetako bat 12/2012 Legearen aldaketa baliatzea dela Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia berariaz aitortzeko 12/2012 Legeak 10. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrari esleitzen dizkion eginkizunak betetzeko organo espezializatu gisa, EAEko dopinaren aurkako borrokaren antolakuntzaren ordezkari izan dadin. Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuak aitortuta zegoen, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren zerbitzu moduan.

86. Azkenik, testuan Bitariko Batzordeak Kiroleko Dopinaren aurkako Legeari dagokionez hartutako akordioaren edukia eransten da.

87. Aztertutako testuak, aurrez adierazitakoa transkribatzera mugatzen den neurrian, ez du hura gai horretan indarrean den ordenamenduan behar bezala txertatzea eragozten duen ezadostasunik. Gure ustez osatu egin beharko liratekeen alderdiak edo gaia hobeto arautze aldera gogoetagai izan beharko liratekeen alderdiak azpimarratu besterik ez dugu nahi.

B) Dopinaren aurkako Euskal Agentzia:

88. Zioen azalpenean adierazten den moduan, berritasun adierazgarrienetako bat da Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia "aitortzea" EAEko Administrazio publikoaren Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 10. artikuluan esleitzen diren funtzioak betetzeko eginkizuna duen zerbitzu espezializatu modura.

89. Hasiera batean, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea ekarri zuen aurreproiektua izapidetzean, Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia zuzenbide publikoko organismo modura eratu zen, eta berezko izaera juridikoa aitortzen zitzaion, EAEko administrazio orokorretik apartekoa.

90. Konfigurazio horri buruzko zenbait iritzi zeudenez, Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen behin betiko testuan Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia ez zen aipatzen. Horren ordez beste formula baten alde egin zen, hau da, EAEko Administrazio publikoari esleitu zitzaion gaiari zegozkion funtzioak betetzea, horretarako beharrezkoak diren administrazio-egiturak eratuz.

91. Agindu hori, gerora, arestian aipatu dugun Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuz gauzatu zen. Dekretuan zehazten zenez, Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia administrazio-zerbitzua Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren barnean kokatzen zen.

92. Aurrekoa aski ez dela iritzita, aurreproiektuaren bidez ikusgaitasun handiagoa eman nahi zaio agentziari. Horrela, legezko testuan gaiari dagozkion funtzioen betetzea esleitzen zaio zuzenean.

93. Proiektatutako aldaketa horren helburua ez da administrazio instituzionalaren organo berririk sortzea, izan ere, arauak ez ditu horretarako beharko lituzkeen elementuak. Haatik, ez da Dopinaren Aurkako Euskal Agentziaren izaerari buruzko aipamenik egiten, eta horrek interprete juridikoa dedukzioz jokatzera behartzen du.

94. Argi dago proiektatutako aitorpen/sorrera hori EAEEk autonomia-erkidegoari bere burua modu askean antolatzeko ematen dion ahal orokorraren adierazpena dela, erkidego-administrazioa osatzen duten organo, administrazio-unitate edo erakundeak sortu, aldarazi eta deuseztatzeko ahalarena.

95. Halaber, egia da ahal hori irizpide eta arau batzuekin antolatu behar dela, administrazio-egitura modu antolatuan konfiguratu ahal izan dadin, beharrezkoak diren betekizun eta tresnak ezarriz eta egitura bakoitzak administrazio-sisteman duen posizioa zehaztuz.

96. Gaur egun, gure erkidegoko antolamenduak ez du lege izaera duen antolaketa-arau berezkorik, horri dagokionez jarraibiderik emango duenik. Dena den, horrek ez du esan nahi egiturak sortzeko horrekin lotutako irizpiderik ez dagoenik. Horren adibide da Euskal sektore publikoaren Legearen proiektua, batzorde honen irizpena jaso zuena. Proiektu horrekin, gabezia hori betetzeko asmoz, legez adierazi nahi dira euskal erakundeen administrazio-antolaketan jarraitu beharreko irizpideak.

97. Proiektu horrek agerian uzten ditu gaur egun EAEko administrazioak erabiltzen dituen antolaketaren arloko eskema eta irizpideak: ñabarduna txiki batzuekin, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean nahiz, laster indarrean izango den eta aurrekoa ordeztuko duen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean islatzen den administrazio-antolaketaren teoriaren eskema klasikoa jarraitzen du.

98. Hala, antolaketaren teoria klasikoan, administrazio orokorraren eta harten organismo autonomoen barnean era daitezkeen egituraz hitz egiten dugunean administrazio-organoak eta administrazio-unitateak bereizi egin ohi dira. Administrazio-unitateak antolaketaren oinarrizko elementuak dira. Horiek konplexutasun-maila ezberdinekoak izan daitezke, lanpostu-zerrenden bidez sortzen dira, eta organo jakin baten barnean txertatzen dira. Beste alde batetik, administrazio-organoak daude, hots, hirugarrenen aurrean ondorio juridikoak dituzten funtzioak esleitzen zaizkien administrazio-

unitateak, edo ezinbestez esku hartu behar dutenak. Horiek maila ezberdinekoak izan daitezke antolaketa-eskalan duten mailaren arabera, eta ez daude lege-erreserba printzipioaren baitan. Hala administrazio bakoitzak dagokio horien sorrera arautzeko arauak ezartzea.

99. Gure kasuan, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziaren esku-hartzeek hirugarrenen aurrean duten eraginkortasuna kontuan hartuz, argi dago administrazio-organo bat dela. Ildo horretatik, horiek sortu/aitortu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 11. artikuluan (2. eta 3. zenbakiak) jasotzen diren oinarrizko betekizunak bete beharko lirateke, Euskal sektore publikoaren Legearen proiektuan jasotzen diren betekizunen berdinak nahiz laster indarrean izango den Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legearen 5. artikuluan barneratzen direnenen berdinak direnak, hots:

- Nola kokatuko den dagokion administrazioan, eta zeinen mendean egongo den.

- Zein egiteko eta eskumen izango dituen.

- Abian jartzeko eta jarduteko beharko dituen diru-izendapenak.

100. Aurreproiektuan formula labur baten alde egin da, aipatutako gutxieneko betekizunak osorik betetzen ez dituena, ezta, aurrekoetatik eratorrita, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziari gutxieneko segurtasun juridikoa emateko ezinbestekotzat jotzen diren beste batzuk ere.

101. Gai hori ez da Konstituzioz legearen baitan geratzen osorik. Hori dela eta, administrazio publiko bakoitzak arautu ohi du zuzenean. Haatik, legezko formulazio bat behar ez izateak ez du esan nahi, haren alde egitekotan, horretarako eskatzen diren gutxieneko betekizunak bete behar ez direnik.

102. Hautatutako formulazioan, ez da sortu asmo den organoaren izaera juridikoaren arrastorik ikusten, halakotzat jotzen bada ere. Era berean, gure ustez, ez dira osorik betetzen hura txertatzeko moduari (nola kokatuko den dagokion administrazioan) eta mendekotasunari (noren mende egongo den) buruzko betekizunak ere. Alderdi horiek argitu egin beharko lirateke, nola jardungo duen jakiteko.

103. Edozein kasutan, oro har zehaztu beharko lirateke haren ahal, funtzio, antolaketa eta jarduteko moduarekin lotutako zenbait alderdi. Eta organoaren izaera kontuan hartuta, erregelamenduz garatu beharko lirateke.

104. Azkenik, arestian aipatu dugun moduan, espedientean ez da agertzen haren funtzionamendurako kredituen zuzkidurari buruzko atalik. Alderdi hori osatu egin beharko litzateke espedientean.

C) Artikuluen gaineko beste zenbait ohar:

105. Jada esan dugu **12.9, 19.1 eta 21.1 artikuluak** Bitariko Batzordeak Kiroleko Dopinaren aurkako Legeaz hartutako akordioaren translazioa direla.

106. Gainerako erreformei dagokienez —Dopinaren aurkako Mundu Kodean ezarritakoak Kiroleko Dopinaren aurkako Legera egokitzeko asmoadutenak— ez da alderdi bereziki garrantzitsurik hautematen, eta gure iruzkinak proiektatutakoa juridikoki hobetzekoak dira.

107. **18. artikuluan** 3. zenbakia aldatu da, Dopinaren aurkako Mundu Kodeko 6.1. artikuluari jarraituz, laginak Dopinaren aurkako Munduko Agentziak onartutako laborategietan ere aztertzeko aukera izan dadin. Halako laborategiek ez dute haren ziurtagiria, baina haien lankidetza beharrezkoa da kostuarekin eta irisgarritasun geografikoarekin lotutako arrazoiak direla medio. Horretarako, Dopinaren aurkako Munduko Agentziak ziurtatzen du laborategian analisiari eta zaintzari dagokienez eskatzen dituen estandar zorrotzak betetzen direla.

108. Aipagarria da kasu batean soilik eskatzen duela Dopinaren aurkako Mundu Kodeak laginak bi laborategi motetan aztertzea: debekatutako substantzia bat bada edo kirolariaren laginean haren metabolitoak edo zantzuak agertzen badira. Gainerako kasuetan, beste laborategi mota batzuk erabiltzea onartzen du, betiere, emaitzak fidagarriak badira.

109. Halaber, DOLren 20.2. artikuluan adierazten den aukera txertatzeari buruzko gogoeta egitea komeniko litzateke. Horren arabera, estatuko homologazioa duten laborategietan egindako analisiak ere baliozkotzat har daitezke. Edozein kasutan, aipatu behar da emaitzen kudeaketaz arduratuko den dopinaren aurkako erakundeak hautatuko duela laborategia.

110. **22 bis** artikuluan analisi-emaitza kontrako baten, debekatutako metodo baten edo substantzia espezifiko bat ez den debekatutako metodo baten ondotik lizentzia automatikoki eteteko erabakia txertatzen da. Gai horren harira, ohartarazi behar dugu, Dopinaren aurkako Mundu Kodeak ezartzen duenez, etete hori haren 7.2, 7.3 eta 7.5 artikuluetan ezartzen diren berrikuspen- eta jakinarazpen-prozesuak bete ostean ezarriko direla. Horri dagokionez, aurreproiektuan berrikuspenari dagozkion prozesuak jasotzen dira soilik, eta ez dira jasotzen kontrako analisi-emaitzen,

pasaportean izandako ezohiko emaitzen eta pasaportean hautemandako kontrako emaitzen berrikuspenaren amaierako jakinarazpenari buruzkoak.

111. Bestalde, testuan ez da jasotzen etete hori bertan behera uzteko aukera adituen epaimahaiari frogatzen bazaio arau-haustean, ziurrenik, kutsatutako produktu dagoela tartean.

112. Horrela, erreforman ez da hautazko behin-behineko etetea jartzeko aukera jasotzen, substantzia espezifikoen edo kutsatutako produktuen ondorio diren kontrako analisi-emaitzetan edo dopinaren aurkako arauen gaineko bestelako arau-hauste mota batzuetan oinarrituta. Horri dagokionez, espedientean ez da agertzen zergatik egin den hautu hori.

113. **23. artikuluaren 1. zenbakian,** beste bi arau-hauste oso larri tipifikatzen dira, konplizitateari eta debekatutako asoziazioari buruzkoak, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.9 eta 2.10 artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Debekatutako asoziazioari dagokionez, aipagarria da artikuluan egoera mota jakin bat soilik jasotzen dela, hain zuzen, kirolariari laguntzen dion pertsona dopinaren aurkako erakunde baten baitan ez izatearena. Horrela, ez da aipatzen lotura duen pertsonaren kasua, hura etendura-epea betetzen ari denerako. Halaber, ez da jasotzen deskribatutako pertsonen estaltzaile edo bitartekari modura jarduten duen pertsonarekiko lotura izatearen tipifikazioa ere.

114. **24. artikulua** berridaztean, Dopinaren aurkako Mundu Kodean aurreikusitako zigor-araubidea sartu nahi da, etendura-epeak mailakatzeko aukera ematen duten irizpideekin batera. Haatik, aurrekoarekin batera, indarreko testuko lehen hiru ataletan jasotako zigorren tipifikazioa bere horretan uzten da testuan. Horren ondorioz, arau-hauste gehienak bitan jasotzen dira, eta horrek ez dio onik egiten testuaren argitasunari, ezta haren segurtasun juridikoari ere.

115. Hala, hasiera batean, arau-haustea antzeko larritasun-maila duten beste batzuekin batera jasotzen da, eta etenduraren tarte bat eta, hala badagokio, isunaren tarte ezartzen da. Bestalde, sartutako aldaketek bestelako eredu bati jarraitzen dute: jokabide zehatza identifikatu egiten da, zehapen irmo bat ezartzeko, eta gerora, zehapena epe batean murrizteko aukera ematen du, inguruabar aringarri jakin batzuen arabera.

116. Aipagarria da zigor batzuk oro har lehen hiru ataletako tarteetan orokorki adierazitakoak baino apalagoak izan daitezkeela (esate baterako, 8. zenbakian adierazitakoa, 1. zenbakian adierazitakoarekin alderatuz). Hori dela eta, lehen hiru atalei emandako idazketa gainbegiratzea komeniko litzateke, gaiari koherentzia eta

segurtasun juridikoa emate aldera. Edo, are gehiago, horiek ezabatzeko aukera azter daiteke, eta dagokion lekuan txertatzea hurrengo ataletan jasotzen ez diren alderdiak.

117. Beste alde batetik, aztertu egin beharko litzateke ea egokia den 28. artikuluaren barnean etendura-epeak aplikatzeko irizpideak sartzea; hots, zigorrak ezartzeko irizpideei buruzkoan etendura-epeak aplikatzeko irizpideak ere sartzea. Horrela eginez gero, sistematikotasuna galtzea eragotziko litzateke, eta ez litzateke zailtasunik sortuko gaiaren inguruko irizpideak ezartzeko.

118. **24 bis** artikuluan, arau-hauste anizkoitzengatiko zehapeneiburuz Dopinaren aurkako Mundu Kodeak xedatutakoa jasotzen da. Hartan, faltan botatzen da Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.6. artikuluan jasotzen diren kasuetan etendura-epeari murrizketa gehigarria onartzeko aukeraren inguruko aipua.

119. Bestalde, 2. zenbakia osoago geratuko litzateke etendura-epea zortzi urte eta biziarteko etendura arte luza daitekeela adieraziko balitz.

120. Halaber, 4. zenbakian erabiltzen den espresioak, hau da, dopinaren aurkako erakundeak "jakinarazpena aurkezteko zentzuzko ahalegina", egin duela adieraztekoak, Dopinaren aurkako Mundu Kodetik eratorria den arren, kontzeptu juridiko zehaztugabeak sartzen ditu gure ordenamenduan, eta horiek baztertu egin beharko lirateke. Kasu horretan, egokiagoa litzateke adieraztea dopinaren aurkako erakundeak jakinarazpena egitearen saiakera egiaztatu egin beharko lukeela, horri buruz ezarritako araudian adierazitako moduan.

121. **30. artikuluak** Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.8. artikulua legezko testura ekartzen du. Artikulu hori laginak jaso osteko lehiaketetako emaitzak baliogabetzeari edo dopinaren aurkako arauak hausteari buruzkoa da. Haatik, artikulu horretan ez da jasotzean, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen artikuluan jasotzen den arren, neurri horri dagokion gehienezko epea, hau da, "behin-behineko edozein etendura edo etendura-epea hasi arte".

122. **38 bis** artikuluan aurretik ere zorroztasunez aztertu ditu DBEBk. Horrenbestez, ez dago hark egindako oharrak errepikatzeko premiarik. Gainera, arestian aipatu dugun moduan, gehienak testuan jaso dira.

123. Soilik ohartarazi behar da hartan ez dela jaso adin txikikoen emaitzak argitaratzeari dagokion salbuespena, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 14.3.6. artikuluan jasotzen dena. Haren arabera, erruduntzat jotako kirolaria edo beste edozein pertsona adin txikikoa bada ez da beharrezkoa izango nahitaezko jakinarazpen publikoa, eta adin txikiko bat tartean denean, jakinarazpen publiko hori proportzionala izango da kasuaren jazoera eta inguruabarrak aintzat hartuz.

D) Araugintza-teknikari buruzko oharrak:

124. Araugintza-teknika dela eta, Batzordeak gogorarazten du aurreproiektuak egokitu egin behar duela, oro har, lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko 1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onetsitako gidalerroetara, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren arabera aplikagarriak direnetara.

125. Horietan adierazitakoari jarraituz, hurrengo ohartarazpenak egin dira, teknikoki osoagoa den arauzko produktu bat lortze aldera.

126. Aldaketa-arauaren izenburuak argi utzi beharko du arau bat aldatzekoa dela. Horrela, aurreko arauak aldatu edo baliogabetzeko helburua duten arauen izenburuan, arautzen den gaia ez ezik, arau horren helburu edo xedea adierazi beharko da argi eta garbi, hots, aldatzeko edo baliogabetzeko arau batden.

127. Txostena egiteko igorri diguten aurreproiektua hainbat artikulu aldatzeko arau bat da, eta aipatutako gidalerroei jarraituz, ez dira artikulu bakarrean multzokatuta jorratu behar; aitzitik, aldaketa bakoitza aparteko artikulu batean jorratu behar da, eta artikulu horiek modu ordinalean zenbakitu.

128. Bestalde, aldaketa sartzen duen artikuluaren izenburuak aipatu egingo ditu aldatu nahi den artikuluaren zenbakia eta titulua, halakorik badu, baita aldatutako arauarena ere. Horri dagokionez, aurreproiektuan adierazitako zenbakiak, gehienetan, artikulu bilaka daitezke.

129. Salbuespenak 13, 23, 30 eta 37. artikuluen aldaketetan emango lirateke; izan ere, horietan zenbaki bat baino gehiago erabiltzen da, eta artikulu bakarrean multzokatu beharko lirateke.

130. Xedapen iragankorretan hobe da erabiltzea, adibidez, lehen xedapen iragankorra eta bigarren xedapen iragankorra, era korrelatiboan, atalari xedapen iragankorrak izenburu orokorra eman, eta gero lehenengoa, bigarrena eta abar jarri baino.

131. Halaber, testuan jasotzen ez den arren, 36.2 a artikuluan indargabeturik dagoen herritarren segurtasuna babesteari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoari egiten zaion aipamena aldatu eta indarrean dagoena jasotzea komeniko litzateke: 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, herritarren segurtasuna babestekoa

132. Azkenik, 38 bis 4. artikuluan "komunikazio" hitza kendu eta, haren ordez, "hedapena" ipintzea komeniko litzateke, bestelako irudi juridiko batekin nahas ez dadin.

ONDORIOA

Batzordearen irizpena da, txosten honen mamian egindako oharpenak kontuan hartu ostean, aurreproiektua Jaurlaritzaren Kontseilura bidal daitekeela, onetsia izan dadin.

Eta hala ziurtatzen dugu, Gasteizen, 2016ko urtarrilaren 22an, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2. artikuluak xedatzen duen betebeharra gogorarazi nahi dugu: azkenean onartzen den xedapen edo ebazpena Batzordeari jakinarazi behar zaio, irailaren 12ko 167/2006 Dekretuz onartutako Antolamendu eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 34. artikuluak xedatzen duen moduan eta epean.

OE:

Jesús María Alonso Quilchano,	Sabino Torre Díez.
Idazkaria	**Batzordeburua**

XVII

ORDEN DE INICIO DEL PROCEDIMIENTO /

PROZEDURA HASTEKO AGINDUA

PROYECTO DE LEY DE MODIFICACIÓN DE LA LEY CONTRA EL DOPAJE EN EL DEPORTE.
KIROLEKO DOPINAREN AURKAKOA LEGEA ALDATZEN DUENA LEGE PROIEKTUA

FIRMADO DIGITALMENTE POR:

Firmante: **CRISTINA URIARTE TOLEDO**
Fecha de la firma: **04/11/2014 9:20:07**
Validación de la firma: **Correcta**

ORDEN de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se da inicio al procedimiento de elaboración del anteproyecto de Ley de modificación de la Ley contra el Dopaje en el Deporte.

La Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, regula el procedimiento de elaboración de las normas, estableciendo en su artículo 4.1 que estos procedimientos se iniciarán por Orden del Consejero o Consejera titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen. En este supuesto es competente la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, en virtud de lo dispuesto en el Decreto 20/2012, de 15 de diciembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, cuyo artículo 10 atribuye al Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura las funciones y áreas de actuación en materia de deportes; y en el Decreto 193/2013, de 9 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura, según el cual, corresponde a la Dirección de Juventud y Deportes, "*analizar las necesidades y proponer las medidas normativas que corresponden a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en materia de deporte….*".

Asimismo, el citado Decreto 193/2013 en su artículo 4.1 dispone que *"Corresponderá a la Consejera o Consejero de Educación, Política Lingüística y Cultura el ejercicio de las competencias establecidas en los artículos 26 y 28 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre la Ley de Gobierno, y cuantas otras le atribuya la legislación vigente…"* Entre estas competencias se encuentra el de proponer para su aprobación por el Gobierno, proyectos de Ley en materias propias de su competencia.

Asimismo, el artículo 5 de la citada Ley 8/2003, establece el contenido de la Orden de inicio:

1.- Objeto y finalidad de la regulación

La Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el Dopaje en el Deporte, se basó en los principios comúnmente aceptados por los organismos internacionales más avanzados en la lucha contra el dopaje en el deporte. La estructura piramidal del deporte de competición y la interrelación de las competiciones deportivas en sus distintos ámbitos y niveles territoriales exigía un marco jurídico común en la lucha contra el dopaje en el deporte. Por dicha razón, en el año 2003, la Agencia Mundial Antidopaje elaboró el Código Mundial Antidopaje y los estándares internacionales que lo complementan. Tales textos constituyeron un conjunto de reglas y directrices de obligado cumplimiento para el movimiento deportivo internacional y de necesaria referencia para las instituciones públicas implicadas en la lucha contra el dopaje. Ello condujo a la aprobación, por la UNESCO, en su sesión de 19 de octubre de 2005, de la Convención Internacional contra el Dopaje en el Deporte. Dicha convención fue ratificada por España en el año 2007 y, en consecuencia, forma parte de nuestro ordenamiento jurídico interno, conforme a lo dispuesto en el artículo 96 de la Constitución. Aunque el Código Mundial Antidopaje no forma parte integrante de la Convención, ésta establece que, con miras a coordinar en el plano nacional e internacional, las actividades de lucha contra el dopaje en el deporte, los signatarios de la Convención están obligados a respetar los principios del Código.

En este marco de armonización, la IV Conferencia Mundial Antidopaje aprobó el nuevo Código Antidopaje que entrará en vigor el próximo 1 de enero de 2015.

Por ello, el País Vasco se encuentra en la obligación de adecuar a la mayor brevedad la vigente Ley 12/2012, de 21 de junio, de lucha contra el dopaje, al nuevo Código Mundial Antidopaje.

Como modificaciones más relevantes del nuevo Código se pueden destacar las siguientes:

- En la tipificación de las infracciones en materia de dopaje, el nuevo Código mantiene las infracciones del vigente Código de 2009, pero se añaden nuevas conductas penadas.
- Se incluye la posibilidad de que las muestras biológicas sean analizadas por laboratorios que no cuenten con la acreditación de la Agencia Mundial Antidopaje, pero sí con su aprobación.
- Se modifican las sanciones incrementándose de forma sustancial los periodos de suspensión.
- El nuevo Código Mundial Antidopaje establece un nuevo periodo de prescripción de 10 años.

Asimismo, se ha aprovechado la modificación de la Ley 12/2012 para reconocer a la Agencia Vasca Antidopaje, servicio administrativo que fue adscrito por el Decreto 193/2013, de 9 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del

Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura, al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia deportiva, como el servicio especializado en desarrollar las funciones atribuidas en el artículo 10 de la Ley 12/2012 a la Administración Pública del País Vasco, actuando como la organización antidopaje del País Vasco.

Por último, el texto incorpora el contenido del Acuerdo de la Comisión Bilateral de Cooperación Administración del Estado-Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en relación con la Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el Dopaje en el Deporte.

2.- Estimación sobre la viabilidad jurídica y material

El marco legal de la competencia que se ejercita deriva de lo dispuesto en el artículo 10.36 del Estatuto de Autonomía, que confiere a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en materia de deporte. En ejercicio de dicho título competencial, el Parlamento Vasco aprobó la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco, que en su artículo 4 establece la competencia de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de dopaje, en concreto, la regulación de la prevención, control y represión del dopaje.

En este contexto, se aprobó la Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el dopaje en el deporte, regulando dicha materia en el ejercicio de la plena competencia de esta Comunidad. Competencia que, evidentemente, incluye no solo la elaboración del texto normativo sino también la posible modificación del mismo.

3.- Repercusión en el ordenamiento jurídico

La Ley cuya regulación se pretende supondrá la modificación de la Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el Dopaje en el Deporte.

4. Incidencia en los presupuestos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Procede señalar que la modificación de la Ley contra el Dopaje en el Deporte no implica gravamen presupuestario alguno.

La modificación no supone la creación, directa o indirecta, de nuevas estructuras u órganos. Tampoco conlleva la dotación de mayores recursos humanos y materiales.

RESUELVO

Primero.- Acordar el inicio del procedimiento de elaboración del anteproyecto de Ley de modificación de la Ley contra el Dopaje en el Deporte.

Segundo.- El expediente de elaboración de la disposición, que se inicia mediante esta Orden, deberá ser completado con los siguientes trámites e informes:

1.- Elaboración del anteproyecto.

2.- Aprobación previa del anteproyecto por este Órgano.

3.- Informe jurídico del Departamento, según lo previsto en el artículo 7.3 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general.

4.- Audiencia e información pública prevista en el artículo 8 de la Ley 8/2003 mencionada, a los efectos de que puedan realizar sus aportaciones diversas entidades (Unión de Federaciones, Asociaciones de Federaciones Deportivas de los Territorios Históricos, Federaciones Vascas y Territoriales, Colegios Oficiales, Agencia Estatal Antidopaje, etc…).

Además se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco un anuncio por el que se dará trámite de audiencia por plazo de 20 días hábiles.

5.- Participación y consulta a otras Administraciones prevista en el artículo 9 de la Ley 8/2003 mencionada, a los efectos de que puedan realizar sus aportaciones las tres Diputaciones Forales (Araba, Vizcaya y Gipuzkoa), así como a otros Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

6.- Memoria del procedimiento, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 10.2 de la Ley 8/2003.

7.- Memoria económica, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 10.3 de la Ley 8/2003.

8.- Informe del Consejo Vasco del Deporte, según lo establecido en el artículo 4 b) del Decreto 220/2000, de 7 de noviembre, por el que se regula el citado órgano.

9.- Informe del Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte, conforme a lo estipulado en el artículo 3 e) del Decreto 94/2004, de 25 de mayo, por el que se regula el citado Comité.

10.- Informe de evaluación previa del impacto en función del género e Informe del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, de conformidad con los artículos 20 y 21 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, artículo 3 d) de la Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación del citado Instituto y con las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres, aprobadas por el Acuerdo de Consejo de

Gobierno, en su sesión celebrada el día 21 de agosto de 2012, publicado mediante la Resolución 40/2012, de 21 de agosto, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento.

11.- Informe de la Dirección de Normalización Lingüística, de acuerdo con lo estipulado en el artículo 3 del Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

12.- Informe de la Dirección de Función Pública, de acuerdo con lo previsto en los artículos 6.1, a) de la Ley de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y 16, a) del Decreto 188/2013, de 9 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Administración Pública y Justicia.

13.- Informe de la Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación y Mejora de la Administración, de conformidad con el artículo 18, c) del Decreto 188/2013, de 9 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Administración Pública y Justicia.

14.- Informe de control económico-normativo, de conformidad con lo establecido en el artículo 25.1 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

15.- Informe de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi en virtud de lo dispuesto en el artículo 3.1 c) de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.

16.- No se aprecia la necesidad de ningún trámite ante la Unión Europea.

Tercero.- Se incorporará al expediente la presente Orden de inicio, toda la documentación correspondiente, en su caso, a los estudios y consultas evacuados, y una memoria sucinta de todo el procedimiento, con el contenido que señala el artículo 10.2 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, y a los efectos de su aprobación final, en los términos que señala el artículo 12 de la referida Ley.

En Vitoria-Gasteiz,

La Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura
CRISTINA URIARTE TOLEDO

AGINDUA.... Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, kiroleko dopinaren aurkako legea aldatzeko lege-aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematekoa

8/2003 Legeak, abenduaren 22koak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak arauak prestatzeko prozedura antolatzen du, eta, horretarako, 4.1. artikuluaren bidez agintzen du prozedurek jorratzen duten dena delako gaian eskumena daukan sailaren titularra den sailburuaren aginduz abiarazi behar direla prozedurok. Kasu honetan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak du eskumena, hala ezartzen baitu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuak. Hartan ezartzen denez, sail horren baitako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzari dagokio "*Kirol... politiken arloko beharrizanak aztertzea, eta arauzko neurriak proposatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari*".

Orobat, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuak, 4.1 artikuluan, hau ezartzen du: *"Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluek ezarritako eskumenez baliatzea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari dagokio; eta, halaber, ... indarreango legeriak esleitzen dizkion eskumenez baliatzea…"* Eskumen horien artean bere eskumeneko gaietan gobernuari lege-proiektuak proposatzea dago, hark onar ditzan.

Eta 8/2003 Legearen 5. artikuluak, hasiera onartzeko aginduak zer eduki izan behar dituen ezartzen du:

1. Arautzearen xedea eta helburua.

Kiroleko dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea kiroleko dopinaren aurkako borrokan nazioartean aurreratuen dauden erakundeek onartutako printzipioetan oinarritu zen. Lehiaketa-kirolaren egitura piramidala denez, eta kirol-lehiaketek elkarren artean lotura dutenez lurralde-eremuetan eta -mailetan, esparru juridiko komuna behar da kiroleko dopinaren aurkako borrokan aritzeko. Hori dela eta, 2003. urtean, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak Dopinaren aurkako Mundu Kodea idatzi zuen, eta kode horren osagarri diren nazioarteko estandarrak ere zehaztu zituen. Testu horiek nazioarteko kirol-mugimenduak nahitaez bete beharreko arau eta jarraibideen multzoa dira, eta horrekin batera, baita beharrezko erreferentzia ere dopinaren aurkako borrokan esku hartzen ari diren erakunde publikoentzat ere. Ekimen horien ondorioz, UNESCOk, 2005eko urriaren 19an izandako bileran, Kiroleko Dopinaren Aurkako Nazioarteko Konbentzioa onartu zuen. Espainiak ere berretsi zuen konbentzio hori 2007. urtean, eta gure ordenamendu juridikoaren zati bat da, Konstituzioaren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera. Nahiz eta Dopinaren aurkako Mundu Kodea ez izan konbentzioaren zati bat, konbentzioak ezartzen du sinatzaileak

behartuta daudela kodeko printzipioak errespetatzera, kiroleko dopinaren aurkako borrokarako ekimenak estatuan eta nazioartean koordinatzeari begira.
Bateratze-giro horretan, Dopinaren aurkako IV. Mundu Konferentziak 2015eko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko den Dopinaren aurkako Kode berria onartu zen.

Horiek direla eta, Euskadik nahitaez egokitu beharra dauka, lehenbailehen, orain indarrean dagoen Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea Dopinaren aurkako Mundu Kode berrira.

Hauexek dira kode berri horrek dakartzan aldaketa esanguratsuenak:

- Dopinaren alorreko arau-hausteen tipifikazioan, indarrean dagoen 2009ko Kodeko arau-hausteak atxikitzen ditu kode berriak, baina, horietaz gainera, jokabide berri batzuk ere zigortzen ditu.
- Atea irekitzen zaio lagin biologikoen analisiak egiteko aukerari Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren nazioarteko egiaztapena ez duten laborategietan, baldin eta Agentziaren onarpena badute.
- Zehapenak aldatu egiten dira, halako moldez non etendura-epeak nabarmen luzatu diren.
- Dopinaren aurkako Mundu Kode berriak 10 urteko preskripzio-epea ezartzen du.

Bide batez, 12/2012 Legearen aldaketa baliatu da Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia —zeina Eusko Jaurlaritzan kirol arloan eskumena duen sailari atxiki baitzitzaion— Legearen 10. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoari esleitzen zaizkion funtzioak gauzatzeko organo espezializatu gisa aitortzeko; alegia, Euskadiko dopinaren aurkako erakundea izan dadin.

Azkenik, Euskadiko Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearen arloan Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetza Batzordearen Akordioaren edukia erantsi da testuan.

2.- Bideragarritasun juridikoaren eta materialaren azterketa.

Gauzatzen den eskumenaren lege-esparrua Autonomia Estatutuko 10.36 artikulua da, kirolaren arloko eskumen esklusiboa ematen baitio Euskal Autonomia Erkidegoari. Eskumen hori baliatuz, Eusko Legebiltzarrak 14/1998 Legea onartu zuen, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena. Lege horrek, 4. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunek kirol-arloan dituzten eskumenak ezartzen ditu, eta, zehazki, dopatzea aurrezaintzeko, kontrolatzeko eta zigortzeko arauak ezartzekoa.

Testuinguru horretan, Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea onartu zen, eta arlo horretako araubidea ezarri zuen, erkidego honen eskumen osoa baliatuz. Eskumenaren barruan, jakina, araua egin ez ezik hura aldatzeko aukera ere badago.

3.- Antolamendu juridikoan izango duen eragina.

Arautu nahi den legeak kiroleko dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzea dakar.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan duen eragina.

Adierazi behar da Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeak ez dakarrela aurrekontu-zamarik.
Aldaketak ez dakar, zuzenean edo zeharka, egitura edo organo berririk sortzerik. Eta ez ditu giza baliabide edo baliabide material gehiago eskatzen.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeko aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematea.

Bigarrena.- Xedapen hori egiteko espedientea, agindu honen bidez abiarazten dena, izapide eta txosten hauekin osatu beharko da:

1.- Aurreproiektua egitea.

2.- Organo honek aurreproiektua onartzea.

3.- Sailaren txosten juridikoa, abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak, 7.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

4.- Aipatutako 8/2003 Legeak 8. artikuluan ezarritako entzunaldia eta jendaurrean jartzea, zenbait erakundek beren ekarpena egin dezaten (federazioen elkarteak, lurralde historikoetako kirol-federazioen elkarteak, euskal federazioak eta lurralde-federazioak, elkargo ofizialak, Osasun Publikoko Zuzendaritza, Dopinaren aurkako Estatuko Agentzia…)

Horrez gain, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Iragarki horren bidez, 20 egun balioduneko entzunaldiari hasiera emango zaio.

5.- Beste administrazioei kontsulta egitea eta haien parte-hartzea, aipatutako 8/2003 Legearen 9. artikuluan ezarri bezala. Horren helburua da hiru foru-aldundiek (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoak) beren ekarpenak egin ahal izatea.

7.- Prozeduraren memoria, 8/2003 Legearen 10.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

7.- Memoria ekonomikoa, 8/2003 Legearen 10.3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

8.- Kirolaren Euskal Kontseiluaren txostena, azaroaren 7ko 220/2000 Dekretuaren 4 b) artikuluak ezarritakoari jarraituz (dekretuak kontseilu hori arautzen du).

9.- Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordearen txostena, maiatzaren 25eko 94/2004 Dekretuaren 3 e) artikuluak ezarritakoari jarraituz (dekretuak batzorde hori arautzen du).

10.- Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, halaxe ezarri baita Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluan eta aipatutako erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 3. d) artikuluan.

11.- Hizkuntza Normalizaziorako Zuzendaritzaren txostena, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskara-erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak, ezarritakoarekin bat.

12.- Ekonomia- eta arau-kontrolerako txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomi Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 25.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

13.- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluan xedatutakoa betez.

14.- Ez da beharrezkotzat jotzen Europar Batasunean inolako izapiderik egiterik.

Hirugarrena.- Hasteko agindu hau espedienteari erantsiko zaio, bai eta kontu honen inguruko agiri guztiak, emandako azterlan eta kontsulta guztiak, eta prozedura osoaren berri ematen duen memoria labur bat ere (abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2 artikuluak adierazitako edukia bildu behar du); hori guztia beharrezkoa da behin betiko onartzeko, lege horren 12. artikuluak ezarritako moduan.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua
CRISTINA URIARTE TOLEDO

XVIII

ORDEN DE APROBACIÓN PREVIA DEL PROYECTO / PROIEKTUA AURRETIK ONARTZEKO AGINDUA

PROYECTO DE LEY DE MODIFICACIÓN DE LA LEY CONTRA EL DOPAJE EN EL DEPORTE.
KIROLEKO DOPINAREN AURKAKOA LEGEA ALDATZEN DUENA LEGE PROIEKTUA

FIRMADO DIGITALMENTE POR:

Firmante: **CRISTINA URIARTE TOLEDO**
Fecha de la firma: **24/11/2014 16:10:48**
Validación de la firma: **Correcta**

ORDEN de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se aprueba el Anteproyecto de Ley de modificación de la Ley contra el dopaje en el deporte

La Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General dispone, en su capítulo II, que el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden del Consejero o Consejera titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen.

Conforme a lo establecido en el artículo 7.1 de dicha Ley "una vez redactados los proyectos de disposiciones de carácter general, deberán contar con la aprobación previa por el órgano que haya dictado la orden de inicio, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan".

Mediante Orden de 3 de noviembre de 2014, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, se ordenó el inicio del procedimiento de elaboración del Anteproyecto de Ley de modificación de la Ley contra el dopaje en el deporte.

Una vez redactado el texto del Anteproyecto, de acuerdo con la finalidad establecida en la citada Orden de inicio, procede su aprobación previa y anterior a los trámites de audiencia y consulta pertinentes.

Por cuanto antecede,

RESUELVO

Primero.- Aprobar el Anteproyecto de Ley de modificación de la Ley contra el dopaje en el deporte.

Segundo.- Continuar los trámites de instrucción del procedimiento de elaboración de la citada disposición.

En Vitoria-Gasteiz,

La Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura
CRISTINA URIARTE TOLEDO

AGINDUA.... Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, kiroleko dopinaren aurkako legea aldatzeko lege-aurreproiektua onartzekoa

8/2003 Legeak, abenduaren 22koak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak, II. kapituluan xedatzen duenez, xedapen orokorrak egiteko prozedura jorratzen duten dena delako gaian eskumena daukan sailaren titularra den sailburuaren aginduz abiarazi behar da.

Lege horren 7.1 artikuluan esaten denez, "xedapen-proiektu orokorrak idatzi ondoren, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurretik onartu beharko ditu, dagozkion negoziazio, entzunaldi eta kontsulta izapideak egin aurretik"..

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko ..... Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion kiroleko dopinaren aurkako legea aldatzeko lege-aurreproiektua egiteko prozedurari.

Aurreproiektuaren testua idatzirik, eta entzunaldia eta kontsulta-izapideak hasi aurretik, hasiera emateko aginduak duen helburuaz bat, aldez aurretik onartu behar da.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Kiroleko dopinaren aurkako legea aldatzeko lege-aurreproiektua onartzea.

Bigarrena.- Xedapen hori egiteko prozedura bideratzeko izapideekin jarraitzea.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua

CRISTINA URIARTE TOLEDO